GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDA NAFARROAN

BORONDATEZKO ESKUALDE TXOSTENA, 2021
GJHen aplikazioaren jarraipena Nafarroako Gobernuko departamentuetako plan eta programetan



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Nafarroako 2030 Agenda ezartzeko Borondatezko Eskualde Txostena
Nafarroako Gobernuko departamentuek abiaraziriko plan eta programen jarraipena

© Nafarroako Gobernua, 2021
Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia
Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia
Laguntza teknikoa:

lursarea
AGENCIA NAVARRA DEL TERRITORIO Y LA SOSTENIBILIDAD

EDUKIEN TAULA

1. Aurkezpena..... 6

2. Zer dira Borondatezko Eskualde Txostenak (VLRak)?..... 7

3. Esparru europarra, nazionala eta eskualdekoa 9

4. COVID-19aren efektu espezifikoak 2030 Agendaren irismenean..... 15
- 4.1. Hitzaurrea 15
- 4.2. Analisi kualitatiboa: Ongizate estatuaren erresilientzia..... 19
- 4.3. Analisi kuantitatiboa: eragina enpleguan, errenta bermatua eta barne produktu gordina..... 20
- 4.4. Ikasitakoa..... 21

5. GJHak eta bertako jomugak Nafarroan..... 24
- 5.1. Jarraipen prozesua 24
- 5.2. Balorazio kualitatibo orokorra..... 25
- 5.3. Departamentuetako jardunbide egokiak GJHen arabera..... 26
- 5.4. GJHen Bisorea Nafarroan..... 27

1.GJHa. POBREZIA DESAGERRARAZTEA 28
Nafarroako Politika Publikoak..... 29
Jardunbide egokia: Errenta Bermatuaren bidezko babes soziala 30
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan..... 31
2.GJHa GOSERIK EZ..... 32
Nafarroako Politika Publikoak..... 33
Jardunbide egokia: Nekazaritzan barietate tradizionalak kontserbatzea..... 34
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan..... 35
3.GJHa. OSASUNA ETA ONGIZATEA 37
Nafarroako Politika Publikoak..... 38
Jardunbide egokia: Medikuntza pertsonalizatuko NAGEN proiektua..... 40
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan..... 41
4.GJH. KALITATEZKO HEZKUNTZA 43
Nafarroako Politika Publikoak..... 44

Jardunbide egokia: Talka plana oinarrizko gaitasun digitaletan ... 45
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan ... 46
5. GJHa. GENERO BERDINTASUNA ... 47
Nafarroako Politika Publikoak ... 48
Jardunbide egokia: «SKOLAE» hezkidetza programa ... 49
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan ... 50
6. GJHa. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA ... 51
Nafarroako Politika Publikoak ... 52
Jardunbide egokia: Drainaketa jasangarrirako hiri sistemak ... 53
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan ... 54
GJHa. ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ-KUTSAGARRIA ... 55
Nafarroako Politika Publikoak ... 56
Jardunbide egokia: Energiaren arloko dirulaguntzen programak ... 57
8. GJHa. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA ... 58
Nafarroako Politika Publikoak ... 59
Jardunbide egokia: Turismo ibilbide txikieneko eremuetan garapen jasangarria bultzatzeko lurralde lana ... 60
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan ... 61
9. GJHa. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA ... 62
Nafarroako Politika Publikoak ... 63
Jardunbide egokia: 2030 Agendari jarraikitzen dioten eta lankidetzan oinarrituta dauden I+Gko proiektuen laguntza ildoa ... 64
10. GJHa. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA ... 65
Nafarroako Politika Publikoak ... 66
Jardunbide egokia: DAVID programa ... 68
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan ... 69
11. GJHa. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK ... 70
Nafarroako Politika Publikoak ... 71
Jardunbide egokia: Hirigintza COVID-19aren garaian: gune publikoetan bizitzea eta horiek eraldatzea ... 73
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan ... 74
12. GJHa. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK ... 75
Nafarroako Politika Publikoak ... 76
Jardunbide egokia: Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legea abiaraztea ... 77
13. GJHa. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA ... 78
Nafarroako Politika Publikoak ... 79
Jardunbide egokia: LIFE-IP NAdapta-CC Proiektua, «Nafarroa Klima Aldaketara moldatzeko estrategia integratua» ... 80

14. GJHa. ITSASPEKO BIZITZA 81
15. GJHa. LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA 82
Nafarroako Politika Publikoak 83
Jardunbide egokia: Naturaguneen edukiera kontrolatzeko aplikazioa 84
16. GJHa. BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK 85
Nafarroako Politika Publikoak 86
Jardunbide egokia: Zigor Betearazpeneko eta Justizia Leheneratzaileko zerbitzua 88
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan 89
17. GJHa. HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA 90
Nafarroako Politika Publikoak 91
Jardunbide egokia: Nafarroako finantzaketa jasangarrirako programa 93
Ekarpena garapen bidean diren herrialdeetan 94

6. Ondorioak eta gomendioak 95
- 6.1. Garapen jasangarriaren egoera orokorra Nafarroan 95
  - Jasangarritasuna 2030era begira 95
  - GJHen egoera kuantitatibo orokorra Nafarroan 95
  - Departamentuen jardunbide egokiak 96
- 6.2. Garapen Jasangarriaren edukiak eta alderdiak 96
  - Pertsonak 96
  - Oparotasuna 97
  - Gure planeta 97
  - Bakea eta Bizikidetza 97
  - Itunak 98
- 6.3. Gobernantza eta jarraipena 98

ERANSKINA. Nafarroako Gobernuaren plan eta programen barnean, 2030 Agendarekin zuzenean edo zeharka lotuta daudenak 99

Dokumentu honetako testuak irisgarritasun-jarraibideen arabera egituratu eta diseinatu dira, ahalik eta pertsona gehienek kontsulta dezaten, ikusmen-urritasunen bat dutenek barne.

1. AURKEZPENA

GJHak eta horietan bilduriko jomugak Nafarroan lortzeari buruzko bigarren jarraipen txosten hau Borondatezko Eskualde Txostenak deiturikoen forma eta metodologiarekin egin da. Hori dela eta, lehenengo epigrafean Nazio Batuek sustatutako txosten mota horiek zer diren azaltzen da. Txosten horiek 2030 Agendaren ezarpenean izaniko aurrerapena ikuskatzeko xedea dute, duten izaera unibertsal eta integratua errespeta dadin eta garapen jasangarriaren alderdi guztiak bete daitezen, eta, horrenbestez, Tokiko eta Eskualdeko Gobernuek helburu eta jomuga horiek toki esparruan kokatzeko atazan parte har dezatela sustatzeko.

Horren ondoren, Nafarroan diseinatutako politikek duten irismena Europako eta Estatuko orientabideekin duten lotura jasotzen ditu txostenak. Zehazki, hauek aurkezten dira: Europar Batasunak bultzatutako politikak zein heinetan jarraikitzen dieten 17 GJHei; Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioak bultzatutako 2030erako Garapen Jasangarrirako Estrategia; eta, azkenik, Reactivar Navarra / Nafarroa Suspertu Plana 2020-2023 eta Plan horrek zein heinetan jarraitzen dion estrategia hari eta GJHei. Hala, ikusten da koherentzia dagoela Nazio Batuen Agendaren, Europako politiken, Espainiako Estrategiaren eta gure suspertze planaren artean.

Ondoren, COVID-19aren pandemiak garapen jasangarrian –eta, bereziki, haren alderdi sozialean– dituen ondorioei buruzko apartatu bat aurkezten eta ongizate estatuaren erresilientziari buruzko analisi kualitatibo bat egiten da; bestalde, analisi kuantitatibo bat jasotzen da enpleguan, babes sozialean (errenta bermatua), barne produktu gordinaren eta beste alderdi batzuetan; azkenik, denbora tarte horretan ikasitako ikasgai batzuekin amaitzen da. Hurrengo epigrafean 2030 Agenda Nafarroako Foru Komunitatean ezartzearen jarraipena bera dago jasota. 2020an lehen jarraipena egin zen, ikusteko politikak nola aplikatzen diren, panorama globalari dagokionez. Horri esker, eskualde garapenaren barne egoera ebaluatu ahal izan zen. 2020ko txostenean jasotako ondorioen artean, honako hau aipatzen zen:

Adierazitako jardunbideei jarraituz, plangintzan aurreikusitako ekintzek GJHetako jomugetan duten benetako eraginaren arabera egin behar da jarraipena. Adierazleen bilakaera ebaluatzeak, aldi berean jomugekin lotutakoak, aukera ematen ahal du 2030 Agendarekiko aurrerapena kuantitatiboki ebaluatzeko. Ebaluazio kualitatiboa garapen jasangarriaren arloko ekintzak gauzatzean egiten den bilakaeran oinarritu behar da.

Horregatik guztiagatik, txosten honen edukia hainbat jarraipen atazaren emaitza da: plan eta programena, ezarritako adierazleena, COVID-19a izaten ari den ondorioena –nola benetakoena hala aurreikusteko modukoena–. Alabaina, borondatezko txostenek 2030 Agendaren ebaluazioari dagokionez dituzten berezitasunak ere kontuan hartzen ditu. Hori dela eta, foru eragileek Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda Nafarroan ezartzearen alde gauzatutako zenbait ekintza zehatzen edo esperientzia batzuen eginkizun espezifikoa hartu da kontuan, horien emaitza positiboa aintzat hartuz. Horretarako, jarraipen metodologiari buruzko apartatu bat bildu da, hitzaurre gisa (adierazleen eguneraketa, departamentuetako arduradunei eginiko inkesta eta horiekin gauzaturiko tailerra), eta horren ondoren, Nafarroako GJHen egoeraren laburpen kuantitatibo bat eta 2030 Agenda ezartzeko jardunbide egokien katalogo interesgarri bat aurkezten dira. Horren ondoren, Nafarroako GJHen egoeraren analisi xehatu bat egiten da, eta honako hauek biltzen ditu analisi horrek: departamentuek gure komunitatean egiten dituzten jarduerak, katalogoko jardunbide egokietako bat eta Nafarroako garapenerako nazioarteko lankidetzak zenbateraino laguntzen duen GJHak EBko kide diren herrialdeetan lortzen.

Txostenaren bukaeran ondorioak eta hartu beharreko gomendioak egiten dira.

2. ZER DIRA BORONDATEZKO ESKUALDE TXOSTENAK (V.L.R.A.K.)?

Nazio Batuek, 2021eko Garapen Jasangarriari buruzko Goi Mailako Foro Politikoaren bidez (HLPF2021, ingelesezko siglengatik), «GJHak eta horietan bilduriko jomugak toki esparruan kokatzea» gomendatzen du, Tokiko eta Eskualdeko Gobernuen (LRG) parte-hartzea sustatuta dagozkien Borondatezko Toki Txostenen (VLR) eta Borondatezko Nazioz Azpiko Txostenak (VSR) bidez. Horregatik deitzen zaio Borondatezko Foru Txostena jarraipen txosten honi, zeinak jarraipena ematen baitio iaz eginikoari eta

Nafarroako 2030 Agendaren jarraipenerako webgunean argitaraturikoari.

Bai VLRk bai VSR proiektuek aukera ematen diete tokiko eta eskualdeko agintariei GJHen irismena eta horiek 2030 Agendari egiten dioten ekarpena ebaluatzeko. Beraz, 2030 Agendaren ezarpena ebaluatzeko sistema global batean txertaturiko jarraipen baliabideak dira. Plangintza baliabide bat ere osatzen dute, agintari horiei aukera emanik ekintzak lehenesteko eta jasangarritasunari buruz kontzientziatzeko, bai Administrazioko teknikariei eta zerbitzuei, bai herritarrei, oro har.

Prozesuak inplikatutako alderdiak tartean sartu behar ditu, eragile askoren interesa pizteaz gain, informazioa emateko ere bai, baita garapen jasangarriaren eta giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko ere.
Maila anitzeko alderdi horri «GJHak toki esparruan kokatzea» ere baderitzo, zedarritze espaziala mundu osoa izanik ere, toki eta eskualde agintariei edo estatuz azpiko agintariei baitagokie batez ere.

«Nafarroako 2030 Agendaren Jarraipen Txostena» dokumentuko ondorioetan jada adierazi zen asmoa ez zela soilik bi urteko txosten bat egitea, baizik eta, horretaz gain, arreta berezia jartzea COVID-19ak gure inguruan dituen ondorioei, lehengoratze ekimenei eta ekimen horiek 2030 Agenda eta bertako jomugak Nafarroan txertatzeko atazan dituzten efektuei. Esku artean duzun txostenak arreta berezia jartzen die alderdi horiei, Foru Administrazioan horretaz arduratzen diren pertsona guztien baterako lanaren eta «jardunbide egokiak» deritzenen bidez.

Borondatezko txostenek esperientziak trukatzeko aukera ematen dute, ikasitako arrakastak, erronkak eta ikasgaiak barne, 2030 Agendaren ezarpena bizkortze aldera. Adierazgarriagoak dira nazio mailan eta nazioz azpiko mailan berrikuspen prozesu inklusibo, parte-hartzaile, garden eta sakona dakartenean; **ebidentzietan oinarritzen direnean, ikasgai eta irtenbide ukigarriak** sortzen dituztenean; eta GJHen ezarpena bultzatzeko ekintza eta lankidetza zehatzei jarraitzen zaienean.

Txosten horiek **2030 Agendaren ezarpenean duen aurrerapena ikuskatzeko** dira, GJHak eta horietan bilduriko jomugak barne, herrialde guztietan, duten izaera unibertsal eta integratua eta garapen jasangarriaren alderdi guztiak errespetatuz betiere. Borondatezko txostenak Nazio Batuen Erakundean erregistratzen ahal dira, beste erakunde batzuekin batera azter daitezen. GJHak Nafarroan ezartzeko jarraipen lanak 2030 Agendaren Departamentuarteko Batzordeari dagozkio. Borondatezko Eskualde Txostena hainbat eragilerekiko iterazio prozesu bat da; Batzordearen helburuetako bat da, hain zuzen ere, horien lanek GJHen urteko jarraipen txostena handitzeko balio izatea. GJHekiko duten inplikazio maila eta 2030 Agenda ezartzean bakoitzak dituen planen irismena ezagutzeko aukera ematen duten gobernu unitateetako arduradunekin izaniko harreman guztien bidez gertatzen da iterazioa.

Azkenik, Nafarroan 2030 Agendaren helburuen, jomugen eta adierazleen bilakaera nolakoa den jakiteko, hainbat iturritatik datorren adierazle sistema batekin lan egiten da, eta horretan funtsatuta toki mailara eta eskualde mailara jaisteko ahalegina ere egiten da.

3. ESPARRU EUROPARRA, NAZIONALA ETA ESKUALDEKOA

Esan bezala, nola 2030 Agendak hala jarraipen txostenak egiteko atazak maila anitzeko alderdia hartu behar dute kontuan: ikuspegi globaletik eskualde ikuspegira, Nafarroaren kasuan. Horrek esan nahi di ikuspegi europarretik eta estatukotik igaro behar duela. Azken hiru alderdi horiek (eskualdekoa, europarra eta estatukoa) adierazleetan oinarritutako jarraipen sisteman daude. Txosten honetan, ebaluazioa kualitatiboagoa da; izan ere, Nafarroako Gobernuaren planak, programak eta ekintzak askoz ere zehazkiago daude ezarrita beste maila batzuek ematen dituzten orientabideak baino, mundu maila barne (GJHekin loturiko jomugak). Halaber, irizpide orokorrekiko koherentziari ere eutsi behar zaio: aukera berdintasuna, belaunaldien arteko justizia, gizarte kohesioa eta inor atzean ez uztea, karbonorik gabeko aurrerapena, giza eskubideak eta pertsonen arteko berdintasuna, integrazioa eta pobreziaren aurkako borroka, azken batean, GARAPEN JASANGARRIA.

Eskualdeko Borondatezko Txosten honetan garrantzitsutzat jotzen da alderdi europarra deskribatzea. Europako programazioaldi berriaren barruko plangintzari (2021-2027), Europako finantzaketa iturriei eta 2030erako hartutako konpromiso politikoei (eta helburu zenbatgarriei) eragiten dielako. Hori dela eta, ezin da ahaztu Europako orientabideek GJHei jarraikitzen dietela; zehazki, hona hemen zein heinetan jarraikitzen dieten:

1. GJHA: POBREZIA DESAGERRARAZTEA. EBk zenbait helburu ezarri zituen jada 2020rako Europako Estrategian (pobrezia indizeak murriztea talde kalteberetan –hogei milioi pertsona inguru–). Egungo programazioaldian, helburuak eguneratu egin dira kolektibo kalteberetan (ijitoak edo erromaniak, adibidez) gauzatutako ekintzari dagokionez eta etxebizitza eta integrazioarekin lotutako gaietan, baina, halaber, ekintza espezifikoetan ere eragiten da, hala nola haurren pobrezian, pobrezia energetikoan, auzo behartsuetako hiri-berroneratzean, eta abarretan. Hori guztia Gizarte Eskubideen Europako Oinarriari dagokionez, horren funtsezko eginkizuna Europar Batasun bidezkoagoa eta inklusiboagoa izan dadin lortzea izanik, eta, bistan denez, beste GJH batzuekin dago lotuta, ondoren ikusiko dugun bezala.

2. GJHA: GOSERIK EZ. Europan ez da kezkagarria gosearen arazoa, baina bai, ordea, desnutrizioarena, Osasunaren Mundu Erakundearen orientabideen arabera. Dieta osasungarriak ezartzea lotuta dago elikagaien segurtasunarekin, bizitza osasuntsu eta osasungarriarekin, beharrezkoak ez diren kontsumoak murriztearekin eta elikagaiak alferrik galtzearekin, lurzoruaren babesarekin, nekazaritza jarduera jasangarriekin eta ekoizleen lanari balioa ematearekin.

3. GJHA: OSASUNA ETA ONGIZATEA. Bizi itxaropenaren igoera erabiltzen da Osasunaren egoeraren adierazle orokor gisa, baina Europan kezkagarria da biztanleriaren zahartze ez-osasungarria. Horrekin batera, adinari dagozkion gaixotasun tipikoen aurkako prebentzio eta zaintza gerontologikoak gauzatu behar dira, bai eta osasunaren politiken eta kudeaketa publikoaren barruko zahartze aktiboko politikak ere.

4. GJHA: KALITATEZKO HEZKUNTZA. Europako Batzordeak lehentasuna ematen dio Europako Hezkuntza Esparruari; izan ere, ikasleen artean mugikortasuna eta gaitasun digitalak eskuratzea sustatzen du. Hezkuntza sistema maila guztietan eta helduen maila guztietan sustatzea eta hobetzea, prestakuntza integrala eta lan merkaturako sarbidea errazte aldera. Pertsonen prestakuntza integrala, halaber, Kulturarako Europako Agenda Berriarekin eta Ikerketaren Europako Esparruarekin lotuta dago.

5. GJHA: GENERO BERDINTASUNA. Ordezkapenaren arloan lorpenak lortu diren arren, benetako genero berdintasunerako aurrerapausoak motelak

dira. Gogoraraztekoa da Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT, 2012) zortzigarren artikulua: *«Batasunak, bere jarduera guztietan, gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua izanen du».*

6. GJHA: UR GARBIA ETA SANEAMENDUA. EBn bizi diren pertsona gehienek edateko urez hornitzeko eta kalitate handiko saneamendurako azpiegitura dute eskura. Ura kudeatzeko tradizio eta kultura luzea dago, baina erronka berriak sortzen dira alor horretan, klima aldaketarekin, aldaketa demografikoekin eta, batez ere, biodibertsitatearen eta ur baliabideen babesarekin lotuta. 2030erako Hiri Uraren Agendak aintzat hartzen ditu halako gaiak ur politika berrietarako.

7. GJHA: ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ-KUTSAGARRIA. Europako Itun Berdeak (2019) energia sektorean funtsezkoak diren lau sektore jorratzen ditu: lehena, energiaren sektorea eta ekonomia deskarbonizatzea; bigarrena, eraikuntza arloan, pertsonen energia faktura murrizten laguntzea hiri-berroneratzearen eta birgaitze efizientearen bidez; hirugarrena, industria berrikuntza gauzatzea, eta horretarako, birziklatutako materialen erabilera areagotzea; laugarrena, mugikortasun alorrean (EBko isurketen % 25 eragiten du mugikortasunak) eta garraio publiko eta pribatu garbi, merke eta osasungarriagoak sustatzea.

8. GJHA: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA. Hazkunde ekonomikoak, pertsona bakoitzeko banatutako barne produktu gordinaren (biztanleko BPG) bidez neurtua, enpleguaren sorkuntza faboratu behar du. Europar Batasunak asmo handiko helburuak ditu 20 eta 64 urte bitarteko pertsonentzako enplegua sortzeko eta bermatzeko, Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsaren eta Invest EU Programaren (2021-2027) bidez. .

9. GJHA: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA. Europako industria estrategiaz gain (2020), GJH honetan azpiegiturekin eta berrikuntzarekin lotutako alderdiak ere biltzen dira. Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programa (Horizon Europe) Europako Batzordeak plangintza estrategikorako xedatu duen baliabidea da eta funtsezko hiru alderditan oinarrituta dago: Zientzia bikaina; Europako erronka globalak eta industria lehiakortasuna; eta *Innovative Europe.*

10. GJHA: DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA. Europar Batasunak, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Agentziaren bidez, pertsonen integrazioa sustatzen du, erakundeekin eta gobernuekin lankidetzan jardunda, eta kezka adierazten du aukerei, diru-sarrerei eta aberastasunari dagokienez, bai eta pertsonen gizarte aurrerapenei gagozkiela ere, desparekotasunak gora egin duela kontuan izanik.

11. GJHA: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK. Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren barruan, hiriek finantza babesa aurkitu dute 2021-2027 aldian hiri-berroneratze aktiboa eta etengabea sustatzeko. Aldi horretan, hiri garapen jasangarria da lehentasuna, eta honako hauekin lotuta dago: digitalizazioa eta konektibitate digitala, lehiakortasun baliabide gisa; mugikortasun jasangarria eta gizarteratzea kohesio baliabide gisa; eta hiri berdeak, emisio gutxikoak eta erresilienteak. Europako Hiri Agenda, emisio gutxiko hiri garapeneko ekimen eta estrategiekin, ekimen globalekin koordinatuta egoteaz gain (Urban LEDS), sormenarekin, inklusioarekin eta ingurumenarekin konprometituta (New European Bauhaus) daudenekin, hain zuzen.

12. GJHA: EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK. EBko politika batzuek esku hartzen dute, baina Ekonomia Zirkularrerako Europako Estrategiak (Europako Itun Berdea) kontuan hartzen du baliabideen balioa ahalik eta luzaroen gordetzeko aukera, eta produktuaren bizi zikloen amaieran leheneratu egiten ditu, ekonomia linealean ez bezala, non baliabideak bizkor eta modu ez-jasangarrian hartzen, erabiltzen eta eskuratzen ditugun. Hona hemen ingurumen inpaktuak murrizteko urrezko hiru arauak: zabortegietara eramaten diren hondakinen kopurua murriztea; hondakinak berreskuratu eta berrerabiltzea eta baliabideen efizientzia; eta baliabideak birziklatzea, lehengaien eskaria murrizteko.

13. GJHA: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA. Europako politikak hauekin lotuta daude: nazioarteko konpromisoak; berotegi efektua sortzen duten gasen

emisioa arindu eta murriztea (Epe luzerako klima estrategia, COM(2018) 773) eta berotze globala eragin duen klima-aldaketaren efektuetarako egokitzapenaren plangintza (COM(2021)82), Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen bitartez; eta sare eta plataforma ugari sortzea eta horietan parte hartzea (Alkateen Ituna, Climate-ADAPT)

14. GJHA: ITSASPEKO BIZITZA. Nafarroan kostaldeak eraginik ez duen arren, itsas estrategiari buruzko esparru zuzentarauak kutsaduraren, efluenteen, habitaten, biodibertsitate babesaren eta abarren arloan ezarritako jarraibideak bete beharko lituzke.

15. GJHA: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA. Biodibertsitateari buruzko Europar Batasunaren Estrategia 2020ra arte: gure bizi asegurua eta kapital naturala delakoan jasota dagoenez, Ebk azken urteotan aurrera egin du ekosistemen babesean eta egoeran. Halere, eta leku guztietan ez bada ere hein berberean gertatu, Europan biodibertsitatearen galera eta lurzoruaren narriadura areagotu egin dira. Europar Batasunak lurzoruaren erabilera jasangarria (lurralde plangintza), zerbitzu ekosistemikoekiko harremana, azpiegitura berdeak eta hiri-berroneratzean eta naturan oinarritutako soluzioak (hiri agenda eta 11. GJHa) bultzatzen ditu.

16. GJHA: BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK. 2021-2027 aldirako lehentasunen artean, jasota dago Europak aurrera egitea hainbat alderditan: herritarrengandik hurbilago egotea (subsidiariotasun printzipioa), aurreko esperientziei erantzutea («bakean, adiskidetzean, demokrazian eta giza eskubideetan aurrera egitea Europan»), toki esparrura gerturatzea eta parte-hartze demokratikoa areagotzea.

17. GJHA: HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA. Europar Batasunak koordinazioari eusten dio Garapenerako Laguntza Ofizialaren, kapital eta inbertsio fluxuen eta estatu kideen finantza egonkortasunaren arloan, eta, azken urteotan, datuen eta informazioaren fluxuan jartzen du arreta, garapen jasangarriaren arloko baliabide garrantzitsua baita.

Alderdi nazionalean, 2020an onartu ziren Garapen Jasangarrirako Estrategia (2013) eta Aurrerapen Txostena (2021). Beheko koadroan, orientabide estrategikoen laburpen bat egiten da, **ezarritako zortzi herrialde erronketan** multzokatuta. Deskribapenean Espainiako egoeraren diagnostikoa egiten da, politika publikoak behar bezala kokatzeko ez ezik, sektore pribatuak eta pertsonak maila anitzetan eta eragile anitzetan inplikatzeko ere bai. Horrela, Espainiak 2015ean konpromisoa hartu zuen, 2030 Agendaren orientabideei jarraituz, honako helburu hauek lortzeko: pertsonen bizitza, bizi gareneko ingurune naturala eta harekin dugun harremana hobetzea, sistema ekonomikoaren eta lan merkatuaren eraginkortasuna hobetzea, eta erakunde eta zerbitzu publikoak indartzea.

1. Taula. Garapen jasangarrirako espainiako estrategia. GKH-en alde jokatzea

Herrialde erronkak	Politika eragileak	Zeri jarraikitzen dioten
1. Pobrezia eta desparekotasunak desagerraraztea	Trantsizio soziala. Aberastasuna birbanatzea eta eskubideak bermatzea • Trantsizio soziala. • Aberastasuna birbanatzea. • Pentsioak. • Eskubideak bermatzea. • Kultura eta kirol dinamizazioa eta digitalizazioa. • Fiskalitate berdea, bidezkoa, progresiboa eta birbanatzeko gaitasuna duena.	1. GJHa; 2. GJHa Politika bizkortzaileak: 1, 10, 5, 11, 7, 6, 17, 16
2. Klima eta ingurumen larrialdiari aurre egitea	Planetaren mugak errespetatzen dituen herrialde bat • Trantsizioak. Planetaren mugak. • Egokitzapena. • Mugikortasun jasangarria. • Kontserbazioa. • Efizientzia energetikoa. • Fiskaltza berdea	13. GJHa Politika bizkortzaileak: 7, 8, 14, 17, 10, 3, 11

3. Genero desparekotasunaren arrakala ixtea eta diskriminazioa desagerraraztea	Askatasunean eta berdintasunean funtsatutako bizitzak guztiontzat • Askatasunean eta berdintasunean funtsatutako bizitzak. • Zainketen kultura. • Zeharkakotasuna eta arrakalen desagerpena. • Genero ikuspegia. Baita fiskaltzan ere.	5. GJHa Politika bizkortzaileak: 10, 16, 1, 3, 4, 8.
4. Kontzentratuegi dagoen eta mendetasun handiegia duen sistema ekonomiko baten eraginkortasunik ezak gainditzea	Eredu ekonomiko berri bat, berdeagoa, digitalagoa eta bidezkoagoa • Eredu ekonomikoaren trantsizioa (berdea, digitala, bidezkoa). • Fiskaltza eta eredu ekonomikoa. • Zientzia, ikerketa eta garapena eta berrikuntza. • Kultura eta kirola.	9. GJHa Politika bizkortzaileak: 12, 8, 13, 7, 6, 10, 5, 2, 14, 15, 17.
5. Laneko prekarietatea bukaraztea	Kalitatea eta egonkortasuna enpleguan • Kalitatea eta egonkortasuna enpleguan. • Langabeziak bereziki eragiten dien kolektiboak. • Gaikuntza eta prestakuntza. Digitalizazioa • Ekonomia soziala	8. GJHa Politika bizkortzaileak: 5, 10, 1, 4, 13, 16, 17.
6. Zerbitzu publikoen krisialdia leheneratzea	Zerbitzu publiko indartuak, ongizate estatu demokratiko eta erresiliente baterako. • Gizarte zerbitzuak eta mendekotasun eta desgaitasunari arreta. • Osasuna. • Hezkuntza. • Osoko babesa haurrentzat. • Administrazio publikoa. • Justizia eta babeserako sarbidea indarkeriari aurre egiteko. • Ogasun Publikoa.	16. GJHa; 3. GJHa; 4. GJHa Politika bizkortzaileak: 1, 2, 5, 10, 16, 17.
7. Bidegabekeria globalari eta giza eskubideen, printzipio demokratikoen eta planetaren jasangarritasunaren aurkako arriskuak amaiaraztea	Nazioarteko lidergoa, globalizazioa bidezkoa, jasangarria, berdintasunezkoa, demokratikoa eta giza eskubideetan oinarritua izan dadin lortzeko • Multilateralismoa eta nazioarteko konpromisoak: klima, ingurumena, merkataritza, osasuna, garapen jasangarria, etab. • Giza eskubideak. • Lankidetza, garapenerako laguntza eta ekintza humanitarioa.	17. GJHa Politika bizkortzaileak: GJH guztietan.
8. Gure landa ingurunea biziberritzea eta erronka demografikoari aurre egitea	Gizarte eta lurralde kohesioa. Eskubide eta aukera berdintasunean oinarritutako landa eremua • Dinamizazio sozioekonomikoa • Erronka demografikoak eragindako genero arrakalak ezabatzea • Lurralde antolamendua: kapital soziala, jarduera eta enplegua lurraldean.	11. GJHa Politika bizkortzaileak: 1, 2, 3, 4, 8, 9, 10, 13, 14, 15, 16, 17.

Azkenik, eskualde alderdian, GJHak ezartzeko eta toki esparruan kokatzeko ataza **Reactivar Navarra / Nafarroa Suspertu 2021-2023 Planean** dago jasota. Estrategia horrek Nafarroaren susperraldi sozial eta ekonomikoa aurreikusten du datozen urteetarako, eta inor atzean ez uzteko ideia du oinarri. Herritarren eta gizarte eragileen zuzeneko parte-hartzea izan du planak, Parlamentuari eta Europar Batasunak ezarritako orientabide eta lehentasunei jarraikiz, eta erakunde publiko eta pribatuekin itunak ditu helburu. Planaren jarduketa ildoek 2030 Agendari jarraikitzen diote:

1. **Ekonomia suspertzea,** enpleguarekin, azpiegiturekin, berrikuntzarekin eta industriarekin lotutako GJHei, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari, trantsizio digitalari eta merkatu bakarra indartzeari jarraikiz.
2. **Trantsizio energetikoaren eta lurralde garapen jasangarriaren esparruek** jarraiki egiten diete nola Europar Batasuneko Itun Berdearen ahaleginei hala hauekin lotutako GJHekin: nekazaritza eta elikagaien segurtasuna; energia; klima aldaketa; hiri eta lurralde jasangarriak; eta ekosistemen babesa.

3. Babes sozialaren gizarte kohesioaren esparruan, garrantzitsua da jarraibide europarren eta GJHen artean pobreziarekin, osasunarekin, genero berdintasunarekin, hezkuntzarekin eta berdintasun ekonomiko eta sozialarekin loturik daudenei jarraikitzea.

4. Zerbitzu publikoen esparruan, planteatutako egiturazko erreformak eta erakundeen hobekuntza hartzen dira kontuan, Europar Batasunaren suspertze planaren esparruan. Bizikidetza esparruari gagozkiola, planak jarraiki egiten dio, berriz ere, 2030 Agendan jasotako helburuen artean bakearekin eta instituzioekin lotutakoarekin, eta, gainera, lagungarria da Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren lehen helburua betetzeko.

5. Azkenik, **kanpo ekintza,** politika horien nola barne alderdia hala kanpo alderdia antolatzeko modu gisa.

2. Taula. Reactivar Navarra / Nafarroa suspertu planaren erreferentzia-esparrua

Nafarroa Suspertu Planaren misioak	2030 Agenda	Europar Batasunaren suspertze plana	S3 Estrategia
Gure ekonomia eraldatzea	8. helburua: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa. 9. helburua: Industria, berrikuntza eta azpiegiturak. 12. helburua: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak	• Ekonomiaren trantsizio digitala. • Enplegua babestea. • Merkatu bakarra indartzea.	Nafarroako ehun enpresarialaren arrakasta eta sustapenaren helburua.
Trantsizio ekologikoa bizkortzea	7. helburua: Energia eskuragarri eta ez-kutsatzaileak. 13. helburua: Klima aldaketa.	• Europako Itun Berdea. • Trantsizio energetikoa.	Jasangarritasuna eta ingurumena errespetatzeko helburua.
Gizarte kohesioa sustatzea	1. helburua: Pobrezia desagerraraztea. 3. helburua: Osasuna eta ongizatea. 4. helburua: Kalitatezko hezkuntza. 5. helburua: Genero berdintasuna. 10. helburua: Desparekotasunak murriztea.	• Bidezko trantsizioa. • Enplegua babestea. • Aukera berdintasuna. • Gazte bermea.	Bizi kalitatea eta gizarte kohesioa sustatzea.
Gure bizikidetza esparruan sakontzea	16. helburua: Bakea, justizia eta instituzio sendoak.	• Gizarte kohesioa.	
Lurraldea egituratzea	2. helburua: Goserik ez egotea. 11. helburua: Hiri eta komunitate jasangarriak. 15. helburua: Lurreko ekosistemetako bizitza.	• Europako Itun Berdea.	Jasangarritasuna eta ingurumena errespetatzeko helburua.
Lidergo publikoa	16. helburua: Bakea, justizia eta instituzio sendoak.	• Digitalizazioa sustatzea. • Gizarte kohesioa.	Lehiakortasun ekintzak.
Kanpo ekintza	Zeharkakoa gainerako helburu guztiekin		

3. Taula. Reactivar Navarra / Nafarroa suspertu plana zenbateraino den garapen jasangarrirako espainiako estrategiaren araberakoa.

Herrialde erronkak	Politika eragileak	Reactivar Navarra | Nafarroa Suspertu
Pobrezia eta desparekotasunak desagerraraztea	Trantsizio soziala. Aberastasuna birbanatzea eta eskubideak bermatzea	3. Gizarte kohesioa eta aukera berdintasuna sustatzea
Klima eta ingurumen larrialdiari aurre egitea	Planetaren mugak errespetatzen dituen herrialde bat	2. Trantsizio ekologikoa bizkortzea
Genero desparekotasunaren arrakala ixtea eta diskriminazioa desagerraraztea	Askatasunean eta berdintasunean funtsatutako bizitzak guztiontza	3. Gizarte kohesioa eta aukera berdintasuna sustatzea 5. Gure bizikidetza esparruan sakontzea
Kontzentratuegi dagoen eta mendetasun handiegia duen sistema ekonomiko baten eraginkortasunik ezak gainditzea	Eredu ekonomiko berri bat, berdeagoa, digitalagoa eta bidezkoagoa	1. Ekonomia eraldatzea digitalizazioari begira
Laneko prekarietatea bukaraztea	Kalitatea eta egonkortasuna enpleguan	1. Ekonomia eraldatzea digitalizazioari begira
Zerbitzu publikoen krisialdia leheneratzea	Zerbitzu publiko indartuak, ongizate estatu demokratiko eta erresiliente baterako.	6. Arlo publikoaren lidergoa berrestea
Bidegabekeria globalari eta giza eskubideen, printzipio demokratikoen eta planetaren jasangarritasunaren aurkako arriskuak amaiaraztea	Nazioarteko lidergoa, globalizazioa bidezkoa, jasangarria, berdintasunezkoa, demokratikoa eta giza eskubideetan oinarritua izan dadin lortzeko	7. Lanean mugen barnean eta mugez kanpo: kanpoaldea
Gure landa ingurunea biziberritzea eta erronka demografikoari aurre egitea	Gizarte eta lurralde kohesioa. Eskubide eta aukera berdintasunean oinarritutako landa eremua	5. Lurraldea modu jasangarrian egituratzea

4. COVID-19AREN EFEKTU ESPEZIFIKOAK 2030 AGENDAREN IRISMENEAN

4.1. HITZAURREA

Administrazio publikoen ikuspuntutik, COVID-19ak zenbait ondorio orokor izan ditu, zerbitzuetan, herritarrentzako arretan eta larrialdiei aurre egiteko ekintzan jarraitutasuna izate hutsaz harago doazenak. COVID-19ak agerian utzi du politiken jarraipenerako baliabideak izan behar direla (behatokiak, estatistikak, osasun publikoa, etab.). 2030 Agenda ezartzeko ez ezik, orokorrean gobernuaren plangintza eta ekintzarako ere bai.

Osasun langileak eta ekipamenduak izan dira COVID-19ak zuzenean gehien kaltetu dituen zerbitzuak. Osasunbideak –Nafarroako Osasun Zerbitzuak– gizarte egituran bertan funtsezko elementua dela erakutsi du. Txosten hau idazten den bitartean, bosgarren infekzio olatua gainditzen ari gara, baina osasun zerbitzuek, aitzinaldean, adinekoen populazioa eta egoitzak artatu zituzten. Geroago, helduak zaindu zituzten eta ospitaleko arreta eman zuten. Gaur egun beste erronka batzuei egin behar diegu aurre: gazteak, pertsona desgaituak, patologia jakin batzuk dituzten pertsonak eta, batez ere, COVID-19ak duen eragina, birusak berak jotako pertsonengan ez ezik, gizartearen osasun mental orokorrean ere bai.

Erasan hipotesi horiek erronka handia dira ikerketarako eta epe labur eta ertaineko erasanetarako. Hipotesi horiei beste hipotesi batzuk eransten zaizkie lurralde efektuarekin eta errealitatearekin lotuta daudenak. Hasierako hilabeteetan, landa inguruneak alde segurua zirudien gaixotasunari aurre egiteko. Nafarroan gehiago dirudi ipar-hego efektu bat. Baina, batez ere, balizko desparekotasunetan eta, batik bat, horien kausetan izandako eraginari buruz hausnartu beharko da. Gai horiek nolabaiteko denbora ikuspegi batez aztertu beharko dira.

Agidanez, COVID-19ak ageriko ondorioak izan ditu «gizarte arrakala» jakin batzuetan eta desparekotasuna areagotzea eta kolektibo kaltebera gehiago agertzea eragin dute arrakala horiek. Desparekotasunak, gainera, pertsonek ziurgabetasunarekin eta aurreikusi ezinarekin bizitzeko duten gaitasunari eragiten dio: nolakoak izanen ote dira hurrengo hilabeteak? Berriz gertatuko al da? Hezkuntza eta kultura, agidanez, faboragarriak dira erasan indibidualei (senide eta ezagunen galera, bakardadea, gizarte harremanekin lotutako kezkak edo kaleko eta dendetan izaniko harremanekin loturiko arazoak, etab.) eta arazo sozialei (jarduera eta enplegua galtzea, gastu jakin batzuei ezin aurre egitea, segurtasunik ez egotea, askatasun galera, etab.) modu egokiagoan aurre egiteko.

Osasunean zuzeneko ondorioak izateaz gain, erasanen bigarren multzo bat zerbitzu publikoak emateari eta konfigurazioari dagokie. Larrialdi zerbitzuak ohituta daude arrisku handiko egoeretara, baina askoz denbora tarte laburragoetara egokituta betiere; alabaina, gizarteak eta osasun zerbitzuek bi urte eman dituzte larrialdi egoeran. Hezkuntzari dagokionez, hiru ikasturte akademikotan izan du pandemiak eragina. Zerbitzu publiko horiek, zorionez, erantzuteko gaitasun handia erakutsi dute.

Ondorio demografikoak, bestalde, berehalakoak dira baina hainbat hamarkadako iraupena izaten dute. Duela zenbait urtera arte oraindik agerian zeuden 18ko gripearen ondorioak biztanleria piramideetan; halaber, gerren ondorioak agerikoak izaten jarraitzen dute gaur egunean. Gatazka edo gertaera horiek berehalako eragina dute nola heriotza tasan hala jaiotza tasan; izan ere, multzo kopuru aldakor bati eragin ohi diote, edo bestela esanda, multzo horiek guztizko biztanlerian duten parte-hartzea nabarmen murrizten da. Heriotza tasa, logikoa den bezala areagotu egiten da,

gaixotasunak zuzeneko eragina duelako ez ezik, beste gaixotasun batzuetan ere ondorioak dakartzalako eta banakako arretari ere erasaten diolako. Gizarte egoera ezegonkortasunezkoa, gatazkatsu eta segurtasunik ezekoa denean, jaiotza tasa murriztu egin ohi da.

Bizi itxaropenari ere eragiten dio. Gogoan izan behar dugu bizi itxaropenaren indizea pertsonak jaiotzen diren unetik aurrera kalkulatzen dela, eta gizarte bateko gizabanakoak hiltzen direneko batez besteko adinari dagokio. Hau da, bizi itxaropena zera da, pertsona batek jaiotzean bizitzeko duen itxaropena, urte kopuruan adierazia. Ez da nahastu behar biziraupen indizeekin. Bai, jada aipatu dugu jaiotzen kopuruak behera egiten duela eta heriotza tasak gora egiten duela –multzo guztietan, gainera–, COVID-19aren zuzeneko eraginez, eta gora egiten duela, halaber, beste heriotza kausa batzuetan. Horren ondorioz, bizi itxaropenak behera egiten du berehala, tasak egonkortu arte. Azkenik, nabarmentzekoa da COVID-19ak dituen efektuen zati indibiduala. Horri dagokionez, nazioarteko agintariak dokumentatzen ari dira COVID-19aren efektu indibidualak epe laburrean osasun mentaleko arazo edo arrisku psikosozial bihurtzeko arriskua dakartela, talde batzuk, gutxi gorabehera zehaztuak eta/edo kalteberak, larrialdi etapa gainditzeko gai izanen ez direlako beharbada.

Beheko taula Ikerketa Soziologikoen Zentroak eginiko inkestetatik hartu da, eta bertan jasotako ehuneko altuek aditzera ematen dute pertsona askok arrisku handia dutela pandemian zehar arazoak izateko. «COVID-19agatiko pandemian espainiarrek izaniko osasun mentalari buruzko inkesta» delakoaren azken emaitzak ere argitaratzeke daude, baina dagoeneko aurreratu dutenez, adibidez, «espainiarren % 23,4k aitortu du COVID-19aren ondorioz hiltzeko beldurra sentitu duela»; «% 35,1ek aitortu du negar egin duela COVID-19aren ondorioz bizi dugun egoeragatik», edo «% 41,9k adierazi du oso lo egiteko arazoak izan dituela»; horiexek dira egungo pandemiak osasun mentalean duen eraginari buruzko zenbait datu, oso zehatzak, pandemiaren ondorenei buruzko hautematearen ikuspegi oso pertsonalizatu batean betiere.

4. Taula. Galdetu: COVID-19aren pandemiak pertsonen osasunean eragina izateko arriskua dakarten hainbat egoera eragin ditu. Esanen al zenidake koronabirusaren alarma egoera ezarri zenetik izan al duzun beheko sintomaren bat?

	SI	NO	N.S.	N.C.	(N)
Gaixotzeko beldurra	57,5	41,9	0,4	0,2	(2861)
Senide, adiskide edo ezagunen bat galtzeak eragindako nahigabea	24,1	75,8	0,1	-----	(2861)
Kezka norberak edo senideren batek lana galdu duelako	37,8	61,9	0,2	0,1	(2861)
Urduritasuna senide, adiskide eta auzokoekin aurrez aurreko kontaktuak eta harremanak eteteagatik	78,4	21,4	0,2	0,0	(2861)
Beldurra balitekeelako norberak edo senideren batek lana galtzea	63,9	35,7	0.2	0,2	(2861)
Urduritasuna kale eta saltoki hutsak edo ia hutsak ikustean	83,2	16,0	0,5	0,3	(2861)
Larritasuna gastuei aurre egin ezin izateagatik (hipotekak, alokairuak, maileguak, hornidurak, telefonoa, etab.)	38.8	61,1	0,0	0,1	(2861)
Beldurra norberaren bizitza ez delako pandemia aurretik zen bezalakoa	59,5	40,0	0,4	0,2	(2861)
Beldurra ezin zaielako bizi-proiektu batzuei heldu, hala nola emantzipatzea, negozio bat zabaltzea edo bidaiaren bat egitea	51,9	47,8	0,2	----	(2861)
Urduritasuna eta beldurra etorkizuna dela eta	78,2	20,9	0,8	0,1	(2861)

Iturria: Ikerkuntza Soziologikoen Zentroa (CIS).

Nazio Batuen Erakundeak «erantzukizun partekatua, elkartasun globala: COVID-19aren eragin sozioekonomikoei emaniko erantzuna» txostena argitaratu zuen, non laburki berrikusten den pandemiak zer eragin izanen dituen, azkenik, GJHak lortzeko bidean. Ondorio orokor horiek jarraian laburbiltzen dira, Nafarroako egoera espezifikoa ebaluatu aurretik (ikus hurrengo apartatuko analisi kualitatiboa), non alderdi horiek ere eragina izan duten.

1. irudian adierazten den bezala, helburuen arteko ondorio kateatuek kointziditu egiten dute desparekotasunen areagotzean, maila espazial, sozial eta ekonomiko guzti-guztietan. COVID-19ak desparekotasunen murrizketa geldiarazi du (ikus adierazleak atarian) baita laneko diru-sarreretan eta etxeetako errentekiko ziurgabetasunean ere (aurreko finantza krisiaz geroztik zeuden arazo horiek).

Nazio Batuen txosten horretan bereziki nabarmentzen da estatuek eta politika ekonomikoek zeregin garrantzitsua dutela talde kalteberen integrazioan, gizarte kohesioaren babesean, osasun sistemen erantzuna areagotzean, elikadura segurtasunean eta nazioartean merkataritzarako, salgai fluxurako eta politika fiskaletarako esparru seguru bat ezartzean (eta ez soilik muga zergei dagokienez); izan ere, 2030 Agendaren araberakoak dira helburu horiek guztiak.

Agidanez, Espainiako Bankuaren Urteko Txostenak –2020koak– arazo horiek berresten ditu, baina kezkagarriena da pandemiak ondoren iraunkorrak dituela kasu askotan, ez diru-sarreretan eta errentetan ez ezik beste alderdi batzuetan ere eragina dutelako, hala nola osasun mentalean, kontsumo eta mugikortasun ohituretan eta enpleguaren produktibitate eta egituran. Gizarte kohesioa garapen jasangarriaren alderdi utziezinetako bat da, eta arrakala guztiak (pobrezia, errenta, desparekotasuna, eten digitala, irisgarritasuna,

1. Irudia. COVID-19ak nolako eragina duen GJHetan



Iturria: Ekonomia eta Gizarte Gaietako Saila

4.2. ANALISI KUALITATIBOA: ONGIZATE ESTATUAREN ERRESILIENTZIA

Jada aipatu dugu ondorio demografikoak eragin kualitatibo jakin batzuk dituztela, eta ez soilik jaiotza tasan, heriotza tasan eta bizi itxaropenean. Esan bezala, ondorio psikosozialek eta arriskuaren hautemateak giza taldeen jokabide demografikoari ere eragiten diote, eta, are bizkorrago, baita metodologiari eta txosten demografikoak egiteko moduari ere. Adinaren eta sexuaren araberako analisia jada ez da nahikoa. Analisi demografikoak gero eta soziodemografikoagoak dira, hainbat aldagai hartzen baitituzte gaur egun kontuan: elkarbizitza moduaz, lan egoera espezifikoak, arrisku taldeez eta talde kalteberez gain, beste aldagai kualitatiboago batzuk ere bai, adibidez, maila sozioekonomikoaren pertzepzioa, kultura harremana etab. Gainera, etnografiaren eta antropologiaren berezko metodologiak ere txertatu ohi dira azterketan.

COVID-19ak Nafarroan duen eraginaren ebaluazio kualitatiboa kontuan hartu behar duen epigrafe batean gaude. Eta hori «bizi kalitatean» izaniko ondorioak ebaluatuz egiten ahal da, aurreko epigrafean berrikusi ditugun kondizioen isla gisa, adierazleen eta aldagaien bitartez.
Lehenik eta behin, garrantzitsua da nabarmentzea administrazioek ahalegin handia egin dutela gardentasunaren aldea eta informazioa egokiro erabiltzeko. Izan ere, berriz jarri dira pertsonak ekintzaren erdigunean: datuak eskuragarri jartzeaz gain, ahalegin handia egin dute administrazioen, pertsona eta talde espezifikoek uler zezaten «zer gertatzen ari den», baita halakoei egoera horri aurre egiteko baliabideak emateko ere, osasunaren ikuspegitik ez ezik, bizitzako beste esparru batzuetan ere bai, errazago itzuli daitezen normaltasunera. Jada aipatu dugun bezala, badu alderdi indibidual bat (osasun mentalarekin lotua) eta alderdi kolektibo bat (arrisku psikosozialekin lotua), baina beste ondorio positibo bat ere gehitu behar zaio «osasun sozial» deritzon horri, informazioa eman baita buloak, informazio faltsuak eta fake news deritzenak indargabetzeko.

Egungo egoera pandemikoari aurre egiteko, esparru sozialean ere bai, administrazioek esku-hartze soziala egin behar dute, ongi baitakigu pertsonek gizarte laguntza jaso behar dutela eta jabetu ere egin behar dutela den-dena ez dela erakundeen errua edo eskumena, baina, hala eta guztiz ere, hor daudela emozioei, egokitzapen premiei eta disfuntzio partikularrei erantzuteko, familiei laguntzeko, IKTak erabiltzeko eta abarrerako. Izan ere, behar pertsonal eta sozialen alderdi horiek –oso-oso zehatzak– ere izan dute erantzuna. Eta egoera banan-banan onartu nahi zela jakinda, ezinbestean aldatu behar izan dute administrazioek esku-hartze soziala gauzatzeko modua, Gizarte zerbitzuen arloko berrikuntza gidak bildutako aurreikuspenen ildo beretik.

Ildo horretan, diru-sarrera publikoaren eta kontsumo pribatuaren susperraldi motela ez da nahikoa jarduera berraktibatu eginen dela bermatzeko; izan ere, hainbat esparrutako eragina ebaluatu behar da: enpresak eta horien antolaketa eta finantzaketa; lehengaien prezioak; nazioarteko merkataritza; eta oinarrizko nekazaritza produktuen prezioak. Alabaina, administrazio publikoen erantzunak azkarrak izan dira eta, horrenbestez, gutxieneko denbora tarte bat igaro ondoren aztertu beharko ditugu. Esku-hartze sozial eta sanitarioko gastu igoera horiei, halaber, neurri fiskal batzuekin erantzun zaie.

Sektore eta indize makroekonomiko horien partaidetza mailak eragin aldakorra izanen du sektore horietako pertsonengan eta lan kondizioetan. Ibilgailuen ekoizpenean izanen duen eragina ikusten ari gara, bai osagaien hornidurarik ezagatik, bai energia berriztagarria –elektrikoa eta hidrogeno berdea– erabiliko duen ibilgailu eredu berri baterako trantsizioagatik; izan ere, eredu hori erakargarriagoa egin da pandemia garaian. Bestalde, COVID-19ak ez die sektore guztiei berdin-berdin eragin lan arloan, ezta langileen soldatei dagokienez ere. Lehen sektorea da kalte txikiena pairatu duena; bigarren sektoreak, berriz, kalte ertaina izan du; eta hirugarren sektorea da, azkenik, kaltetuena; nolanahi ere, banku eta finantza sektorean diru eta finantza neurriak aplikatu dira bankuen likidezia zaintzeko, merkataritza babesteko eta zor publiko eta pribatuei aurre egiteko.

Jarduera eta ekoizpen ahalmena mantentzeko eta berreskuratzeko neurriak jarri dira abian, enpresen likidezia erraztu duten mekanismoen bidez (Nafarroan ETEak dira enpresa gehienak). Zenbait jarduera izan dira onuradun, hala nola ekoizpen ekologikoarekin, kontsumo arduratsuarekin eta km0 merkataritzarekin lotutakoak, bai eta baliabide eskaseko eremuekiko, landa lurralde eta komunitateekiko eta despopulazioa pairatzen ari direnekiko interesa ere.

Ekonomiari dagokionez, aurrekontuen hornikuntza malgutzeko eta Europako Suspertze Funtsen bidezko finantzaketa txertatzeko neurriak aipatu behar dira. Neurri fiskal horiek, orobat, zenbait jarduera eta sektoretako tasa eta zerga batzuetan zerga aitorpenak edo salbuespenak aurkezteko epeak malgutzeko joera izan dute.

Babes sozialeko sistemetan txertatutako neurriek ere badute beste alderdi bat garapen jasangarriaren alderdi ekonomikoan (bideragarritasuna), baina beharrezkoak dira ongizate estatuaren berme gisa, langabeengana, langile autonomoengana, azpienplegura, gazteentzako enplegura eta abarretara iristeko. Alabaina, gizarte prestazioek kolektibo kalteberei eragiten diete bereziki, hala nola emakume migratzaileei, haurrei eta adinekoei. Eta gizarte kohesioaren eta integrazioaren alderdiarekin lotuta daude horiek. Hezkuntza sistema ere Nafarroako indargune gisa agertu da, irakasleek, ikasleek eta horien familiek emaniko erantzunagatik eta erakundeek gauzaturiko plangintzagatik, bai eta erakutsiriko erantzukizunagatik ere. Unibertsitatea, lanbide heziketa, bigarren hezkuntza, lehen hezkuntza eta haur hezkuntza ez dira eten eta premia berrietara egokitu dira. Administrazio publikoetako langileek emaniko erantzuna ere nabarmentzekoa da, zerbitzu publikoetako zerbitzari eta agente gisa duten eginkizunaren ardura bere gain hartu baitute.

Bestalde, konfinamenduak eta jarduera ekonomikoen geldialdiak airearen kalitatea eta zenbait ingurumen kondizio –ibaiak, fauna eta flora, etab.– hobetzen lagundu zuten. Zoritxarrez, hilabeteak igaro ahala, frogatu zen horrek ez zuela eragin esanguratsurik izan berotegi efektuko gasen kontzentrazioaren murrizketan, 2019an eta 2020an milioi bakoitzeko 422 zati ingurutan egonkortu baitziren.

Kultura eta aisialdi jarduerak ere, halaber, bizi kalitatearen bektoreak dira. Pandemiak zuzeneko eragina izan du kultura ekipamenduen kultura ekoizpen eta programazioan, baina, hori gorabehera, gogorarazi beharrekoa da zer-nolako eragina izan duen horrek aniztasun pertsonalean eta kulturalean, sormenean eta sorkuntzan, kulturartekotasunean eta integrazioan, gobernu irekian eta herritarren parte-hartzean, IKTen bidez.

4.3. ANALISI KUANTITATIBOA: ERAGINA ENPLEGUAN, ERRENTA BERMATUA ETA BARNE PRODUKTU GORDINA.

Jada aipatu da Nafarroako Estatistika Institutuak (NAstat) datuen jarraipena egiten duela eta 2030 Agendaren adierazleak –Nafarroako 2030 Agendaren jarraipenerako webgunean eskuragarri daudenak– eguneratzen dituela. NAstatek COVID-19aren datuetarako atal espezifiko bat gehitu du bere informazio estatistikoan. Enpleguarekin eta telelanarekin, eta herritarren kontsumo eta aisialdi ohiturekin lotutako informazioaren jarraipena egiten du.

Guztizko enplegu tasa, hau da, biztanleria potentzialki aktiboaren artean enplegua duten pertsonen ehunekoa % 73,2 inguruan mantendu zen 2019an, baina % 70,4ra jaitsi zen, ordea, 2020an. Era berean, iraupen luzeko langabezia tasa % 2,8tik % 3,2ra hazi zen.

Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiaren 2021eko maiatzeko txosten baten arabera, COVID-19ak lan desparekotasuna larriagotu du. Soldata mailak ez ezik, «lan egonkortasunak ere ez ditu objektiboki duinak diren kondizioak bermatzen». 2021eko hasieratik, behin konfinamendua igaro ondoren, hilabetez hilabete joan zen egiaztatuz enplegua berreskuratzen ari zela; aitzitik, txostenaren arabera, iraupen luzeko langabezia % 70 igo zen: maiatzean, 9.827 pertsonak –guztizkoaren % 24k, gutxi gorabehera– bi urte

baino gehiago zeramatzaten lanik egin gabe. Eta beste 11.301 pertsonak 12-24 hilabete zeramatzaten egoera berean. Genero arrakala ere ez da murriztu; emakumeek gizonek baino arazo gehiago dituzte, eta gazteek prekarietatea pairatzen jarraitzen dute. Aitzitik, langabeziaren estaldura baliabideek eta aldi baterako enplegu erregulazio espedienteek zertxobait arindu dute COVID-19aren eragina enpleguan eta, ondorioz, errenta eskuragarrian.

Nolabait esateko, 2021eko udan **langabezia indizeak** pandemia baino lehenagoko egoeretara itzuli dira. Gizarte Segurantzako inskripzio kopuruak berresten du, izan ere, datu hori. Alabaina, eta urteko datuei dagokienez, susperraldi horrek genero arrakala dagoela erakusten du: emakumezko langabeen kopuruak % 9,3ko jaitsiera izan du (2.129 emakume langabe gutxiago); gizonezko langabeen kopurua, berriz, % 19 murriztu da (3.246 langabe gutxiago gizonen artean). 2021eko uztailaren amaieran, Nafarroako langabeen % 60 emakumeak ziren (20.809), eta gizonak, berriz, % 40 (13.864).

Errenta Bermatuaren erregulazioa COVID-19aren pandemia baino lehenagokoa da (15/2016 Foru Legea, gizarteratzerako eta errenta bermatzeko eskubideak arautzen dituena), eta horrek, gizarte beharrizanetan eragina izateaz gain, administrazio publikoek eskain ditzaketen prestazioetan ere izan ditu ondorioak. Horrez gainera, premia berriak sortu ditu gizarte zerbitzuetan, bai eta kalteberatasun handieneko egoeran edo bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden biztanleei zuzendutako prestazio ekonomikoetan ere, hori izanik, azken batean, Errenta Bermatuaren helburua. Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokian argitaratutako datuen arabera, 2020an Errenta Bermatua jaso dutenen kopurua 15.941 pertsona izatetik 17.421 izatera igaro da, eta aurreikuspenen arabera, mila familia gehiago izanen dira oinarrizko premiei aurre egiteko aukera emanen dieten gutxieneko diru-sarrera horien onuradun. 2021ean zehar, aurrekontuek «COVID-19 Errenta Bermatua» izeneko partida bat dute, 11,8 milioi euroko igoera esleitzen duena.

Barne produktu gordina –BPG– nazio mailan egiten den eragiketa estatistiko bat da. Horri dagozkion azken datuak 2019koak dira. BPGak ekonomia baten tamaina eta egoera ebaluatzeko aukera ematen digu; horren ildotik, 2019an gauzaturiko ondasun eta zerbitzu ekoizpenaren balioa 20.973 milioi eurokoa izan zen Nafarroan (% 2,5eko hazkundea), edo beste modu batean esanda, 23.141 € biztanle bakoitzeko, eta urte arteko hazkundea % 3,6koa

izan zen; horrek hirugarren tokian kokatzen du Nafarroako Foru Komunitatea autonomia erkidegoen artean.

Nafarroan, Nafarroako Estatistika Institutuak –Nastatek– hiruhileko bakoitzari dagokzion portzentajezko aldakuntzak argitaratzen ditu eta, oro har, Nafarroako bilakaera Espainiako estatukoaren paraleloa izan zen. 2021eko bigarren hiruhilekoko susperraldia % 18,5ekoa izan zen 2020koaren aldean, baina jaitsiera hori ere Espainiako estatuko batezbestekoa baino puntu bat handiagoa izan zen 2020an, 2019aren aldean.

Espainiari dagozkion 2020ko – pandemiaren urteko– datu orokorrek urte arteko % 10,8ko galera izan zuten; horrek esan nahi du biztanle bakoitzeko BPGaren antzeko tasa izan zuela. Alabaina, 2021eko bigarren seihilekoan susperraldia % 17,5erainokoa ere izan da, eta langabezia indizearen jaitsierarekin batera, aurreikuspen onak eta ondorio baikorrak uzten ditu horrek agerian.

4.4. IKASITAKOA

Hasteko, osasunarekiko zuzeneko harremanarekin hasi behar dugu. «Responsabilidad compartida, solidaridad global: una respuesta a los impactos socioeconómicos de la COVID-19» izeneko txostenean oso egokitzat jotzen da **osasun publikoko sistemen** bidez emandako erantzunak. Oro har, zerbitzuek bazuten epidemiei aurre egiteko gaitasuna, baita prebentzio sistemak ere. Aurreko esperientziek (18ko gripea, hiesa, ebola, etab.) zera frogatu dute, osasun sistema publikoengatiko eskari sozialak erraztu egiten duela larrialdi eta krisi kasuetan erantzun sozial egokia ematea. Nafarroaren kasuan, Osasunbideak –Nafarroako Osasun Zerbitzuak– arreta eta erantzun integrala eman ditu, bestelako patologiak alde batera ez uzten saiatuta betiere, kontuan izanik osasun zentroak, COVID-19a duten pazienteak artatzen dituztenean, arrisku foku bihurtzen zirela.

Hasierako inpaktua gorabehera, **hezkuntza sistemak eraginkortasunez erantzun du,** eta sistema sozioekonomikoan duen eginkizuna indartu egin da nolabait; izan ere, gizarteari funtsezko baliabideak eman dizkio pobrezia gainditzeko, berdintasuna bultzatzeko, «gizarte igogailua» sustatzeko, aniztasunari eta gizarteratzeari erantzuteko, eta, oro har, giza eskubideak babesteko. Frogatuta zegoen, COVID-19ari emaniko erantzunei buruz Nazio Batuen Erakundeak landutako txostenaren arabera, Hezkuntzaren aldeko apustua egitea epe luzerako bermea da, baina COVIDen aurreko erreakzioak zera utzi du agerian, epe laburrean (hots,berehala), erakunde sendoak izateak eta lankidetzan aritzeak babes soziala eta segurtasuna indartzen dituztela, hain zuzen.

UNESCOk «Cultura y COVID-19: Seguimiento y respuesta del impacto» izeneko txostena argitaratu du, *«COVID-19aren pandemiak kulturaren sektorean eraginen lituzkeen ondorio sakonei aurre egiteko»* Hori irakurtzeak ere eragin positiboa du, kualitatiboa. Kultura sektoreak krisiaren eragina jasan du, batez ere, kultura programazio eta jardueraren arloan, baina ondarearen kudeaketan, kultura erakundeetan, profesionalek, jarduera ezagatik pairaturiko prekarizazioan ere bai, batez ere, kulturara askatasunez iristeko oinarrizko eskubideari eragiten diolako. Hala ere, COVID-19ak aukera ematen du kultura sektore integral gisa ikusteko, eta ez sektore zatikatu gisa, eguneroko bizitzari eta pertsonen arteko harremanei eragiten diena.

Era berean, COVID-19ak 5.4 jomugaren garapena ahalbidetu du **zainketen kulturaren kontzeptua**[1] kontuan hartu baita. Kolektibo kalteberentzat ez ezik, osasun publikotik haratago, zaintza lanak ondasun publikotzat hartu behar dira, gizarte osoak partekatzen duen erantzukizunezko ondasuntzat, hain zuzen. Gizarte kultu, solidario, prestatu, aurreikusi eta oparo bati dagokio, eta ez da neurtzen soil-soilik inbertsio, ekipamendu, prebentzio plan eta larrialdietan (bizi kalitatea), baizik eta pertsonari, norbanakoari eta gizakiaren duintasunari erreparatzen dion gizarte batean, era guztietako gorabeherak gainditzeko gai den gizarte justu bat (ongizatea) sustatzen duen gizarte batean... beste eremu batzuetan «erresilientzia» deritzo horri. Baina zaintza lanen kultura bat, zaintzaren gizarte bat, krisiekiko –hala nola jasaten ari garenarekiko– erresilientzia duen gizarte bat izanen da.

Zainketen kulturak esan nahi du pertsonak gure bizitza indibidual eta kolektiboaren oinarritzat jo behar ditugula, hau da, emakumeen eta gizonen arteko erantzukidetasuna, zaintzak zerbitzu publikoetan txertatzea, horiek administrazio prozedura argien bidez finantzatzea (diru-sarrerak eta banaketa), horrek premia pertsonal guztiak barne har ditzala lortzea, langileei prestakuntza teknikoa ematea, eginiko lanari balioa emanen dion ordainsariarekin betiere. Zaintzaren kultura batek gizarte berdintasuna bultzatuko du (10. GJHa), baita hainbat ikuspegitatik ere: materiala (1., 2., 8. eta 12. GJHak); generoa (5.GJHa); ingurumen «oso» bat (13., 14. eta 15. GJHak), azpiegiturak eta zerbitzuak (3., 6., 7. eta 11. GJHak) eskuratzea; eta hori guztia, halaber, bidezkoagoa eta demokratikoagoa izanen den gizarte batean (16. GJHa).

Gizarte fenomeno guztien ikuspegi indibidualizatu[2] hori lurralde ikuspegian ere islatzen da. Oraindik ez dago subsidiariotasun printzipioa berraktibatzeko aukera kontuan hartzeko osagairik, baina egia bada «tokikoak» –hots, gertukoak, hurbilekoak– garrantzi berri bat hartu duela, gobernu mailen arteko beharrezko koordinazioaren ebidentziarekin batera (ELGA, 2020). Pandemiaren hasieran, landa mundua eta ingurune isolatuenak –edo, behinik behin, gizabanako gutxienekoak–, erakargarri bihurtu ziren, arrisku txikiagoko tokitzat hartzen zirelako. Tokiko agintariek baliabide batzuen (ura, elikadura, km0, etab.) eta politiken (alkateen ituna, despopulazioa, etab.) zuzeneko kudeaketan koordinatzen gauzatutako geroagoko ekintzak toki mailaren misioa indartu dute, zeina, maila horren hurbiltasuna dela-eta, herritarrei arreta ematea baita beti eta beste ezer baino lehen (subsidiariotasuna).

Ikusi dugu desparekotasunen hazkundea izan dela COVID-19aren ondorio nabarmenena 2030 Agendaren helburuak lortzeari dagokionez. Errealitate horrek –soziala eta ekonomikoa izateaz gain, baliabideak eta soluzioetarako sarbidea ere biltzen dituenak–, eragin nabarmena izan du 5. GJHan; hori dela-eta, ONU-Emakumeak erakundeak mundu programa bat proposatu du. Ez soilik osasunerako edo babes sozialerako sarbideari buruzko benetako egoera baten diagnostiko egoera batengatik, baizik eta, krisiari aurre egiteko, **«emakumeek eta neskatoek agerian egon behar dutelako erantzunean sartuta[3]»**, justizia eta giza eskubideak bermatze hutsagatik.

Ikasitako guztia aztertu ondoren, ondorioztatu da politikak diseinatzeko lanean orientatzeko edo gidatzeko duen zeregina indartzeko gaitasuna duela 2030 Agendak, eta, halaber, aukera ona izan daitekeela plangintza ekonomikoan –nola publikoan hala pribatuan–, bai eta krisitik irteteko baliabide gisa ere, bai maila makroekonomikoan, bai enpresa mailan. Ekonomia berde, zirkular eta karbono gutxikoarekin, trantsizio energetiko eta berriztagarriarekin, hiri-berroneratzearekin, ekoizpen jasangarriarekin, ziurtapenarekin, jarraipenarekin eta abarrekin lotutako jarduerei dagozkien enplegu politikekin eta enplegu nitxoekin loturiko alderdiak.

Administrazio publikoek ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorretako jarduera horiei guztiei emaniko babesa –politikak eta eskumenak berrantolatzeko aukera egon dadin–, halaber, lagungarria da 2030 Agenda ikuspegi globalean ezartzeko.

[1] Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokia, Nafarroako 2020ko Mendekotasunari buruzko IV. Txostena». Nafarroako Gobernua, 2021. **NBE Emakumeak:** «El trabajo de cuidados: una cuestión de derechos humanos y políticas públicas». Mexiko Hiria, 2018a (https://news.un.org/es/story/2020/08/1479192).

[2] Nazio Batuen Erakundea: «Respuesta integral de las Naciones Unidas a la COVID-19: salvar vidas, proteger a las sociedades, recuperarse mejor», (ekaina, 2020): «Larrialdiaren funtsezko alderdiak lantzea eta pertsona guztiengana iristeko kondizioak sortzea, bereziki prekariotasun egoeretan daudenengana».

[3] Guterres, A.: *«La pandemia expone y explota desigualdades de todo tipo, incluida la de género».* Nazio Batuen Erakundea, 2020ko apirilaren 30a. «Los efectos del COVID-19 sobre las mujeres y las niñas», NBE Emakumeak, 2020ko maiatzaren 19a.

5. GJHAK ETA BERTAKO JOMUGAK NAFARROAN

5.1. JARRAIPEN PROZESUA

2030 Agenda asmo handiko programa bat da mundu osoko herrialde eta erakunde guztientzat. «Azterketa Nazional Boluntarioak Prestatzeko Eskuliburuan» jasotzen denez, GJHak ez dira sentsibilizazio eta zabalkunde hutsa; aitzitik, plangintza eta kudeaketa prozesuetan, jomugetan eta adierazleetan txertatzeko helburua dute, helburuen jarraipena gobernu ekintzaren diseinuan integratuta egon dadin. Agenda 230 plangintza baliabide gisa erabiltzea da garrantzitsuena, gobernu maila guztiak eta interesa duten beste alderdi batzuk sartu eta herritarren parte-hartzea erraztuko duena.

Ikusi dugunez, pandemiarekin gauza asko ikasi ditugu, besteak beste, 2030 Agenda gida gisa erabiltzeko gaitasuna dugula, txekeo politikoko zerrenda balitz bezala: osasunaren, elikagaien segurtasunaren, hezkuntzaren eta segurtasunaren alorretako politiken jarraipena eta irismena. Baina, horretaz gain, komunitatearen gizarte egoera, eskuzabaltasun eta elkartasun mailak eta abar ebaluatzeko ere bai. Osasun agintariak ere kezkatuta daude pandemiaren eragin psikosozialagatik (hainbat GJHko jomugei eragiten die horrek).

2030 Agendaren aldeko konpromisoa hartzea planeta eta gobernantza bestela ulertzeko modu bat da. Trantsizioak (ekologikoa, soziala, energetikoa, klimatikoa, kulturala, etab.) lortzeko baliabide izan daiteke, planen eta programen jarraipenean eta analisian GJHak geureganatze horretan laguntzen baitu, bai eta Nafarroako Gobernuaren politiketan GJHen ezarpen egoera deskribatzen ere (6. kapitulua).

GJHak bereganatzearen ondorioz, plangintza estrategikoarekin eta Garapen Jasangarrirako Estrategiekin lotutako fenomenoak lotu behar dira:

- GJHak ezartzeko eta, oro har, gizarterako erabilgarriak diren politikak identifikatzea.
- Jomugen araberako ekintza zehatzak txertatzea, eta horien emaitzen araberako adierazleak.
- Beste eremu espazial eta politiko batzuetara transferitzea erraztuko duten baliozko esperientziak ateratzea.
- Eragileen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetza erraztea, eskualde ikuspegi batekin betiere, gure kasuan foru ikuspegi batekin.
- Hurrengo jarraipen prozesuaren eta ebaluatu beharreko politiken diseinua bideratuko duten ondorioak ateratzea.

Aurreko urteko txostenean, Nafarroaren aurrerabidea GJHen lorpenarekin delako atari birtualerako esteka sartu zen. Nafarroako Estatistika Institutuak (NAstat) aldagaiak eguneratu ditu 2019an. Aurreko datuekin alderatuta (2015), aldakuntza txikia da, erreferentziazko aldia ez baita behar bezain luzea izan.

Garapen jasangarrirako hamazazpi **helburu**en egoeraren ebaluazioa hiru jarraipen baliabidearen bidez egiten da:

- GJHetako adierazleak: Nafarroako egoera Europako eta Espainiako batez bestekoaren aldean. Aurten esteka bat gehitu zaio adierazle harmonizatuen Nafarroarako ordezkaritzari, autonomia erkidegoetako estatistika organo zentralek elkarrekin egindako lanaren emaitza (OCECA adierazleak).

- GJHen politika sektorialaren ekarpenak: abiaraziriko plan estrategiko jakin batzuen betetze egoeraren balorazio kualitatiboa. Plan sektorial bakoitzak, inkesta bidez, urteko bere ekintzek GJHekin dituzten harremanei buruzko erantzun batzuk ematen ditu, eta arreta berezia jartzen du COVID-19ak izandako efektuari.

- Jardunbide egokiak ateratzea, foru eragileei berariaz egindako inkesta baten bidez, 2030 Agenda ezartzearen aldeko emaitza positiboa izan badute. Horrela, borondatezko foru txostenaren irismena zabaltzeko baliagarriak diren ekintza zehatzen hautaketa lortzen da. Gainera, tailer bat egin zen, non departamentuek parte hartu baitzuten, eta GJH bakoitzeko jardunbide egoki bat hautatu baitzen.

Hurrengo taulan, politika sektorialen arduradunei (zuzendaritza nagusiak) bidalitako inkestei buruzko laburpen bat aurkezten da. Aipatu beharrekoa da plan eta programa batzuek, iaz jasoriko erantzunen arabera, ez dutela bilakaerarik izan, eta, beraz, parte-hartzearen ehunekoa nabarmen handitu dela departamentu guztietan; halaz ere, alderdi hori ez da islatzen taulan.

5. Taula. Planen eta programen jarraipenari buruzko inkestak, GJHei dagokienez

Departamentua	Igorriak	Jasotakoak	%
Kultura eta Kirola	2	1	50,0
Eskubide Sozialak	6	6	100,0
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	14	4	28,6
Hezkuntza	5	3	60,0
Ekonomia eta Ogasuna	5	2	40,0
Migrazio Politikak eta Justizia	4	3	75,0
Herritarrekiko Harremanak	5	4	80,0
Osasuna	9	4	44,4
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	16	7	43,8
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua	5	2	40,0
Lurralde Kohesioa	8	5	62,5
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	5	3	60,0
Landa Garapena eta Ingurumena	16	9	56,3
GUZTIRA	**100**	**53**	**53,0**

5.2. BALORAZIO KUALITATIBO OROKORRA.

Beheko taulan adierazleek Nafarroan duten egoeraren laburpena aurkezten da. Atarian aurkeztutako bilakaeraren osagarri, adierazi behar da soilik zenbakizkoa edo estatistikoa den kalkuluari balorazio kualitatiboren bat gehitu behar zaiola –batzuetan, baita zenbakizkoa ere–, hala nola azken urtearekiko bilakaera. Izan ere, adierazlearen egoera ebaluatzeko aukera ematen du halako balorazioak, adierazlerik lotuta ez duten zenbait arazo eta jomuga ere kontuan hartuta. Horrexegatik erantsi da, hain zuzen, beste zutabe bat –laugarrena–, GJHren ezarpenaren egoera orokorra adierazten duena eta, gainera, barneko ezarpen espaziala ere kontuan hartzen duena (GJHak: Lurralde Egoera Nafarroan. Eskualdeko fitxak).

6. Taula. GJHen egoera Nafarroan

GJH	15-19 bilakaera	Nafarroa / Espainia	Nafarroa / Europa	Egoera orokorra
1. Pobrezia desagerraraztea				
2. Goserik ez				
3. Osasuna eta ongizatea				
4. Kalitatezko hezkuntza				
5. Genero berdintasuna				
6. Ur garbia eta saneamendua				
7. Energia irisgarria eta ez-kutsagarria				
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa				
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura				
10. Desberdintasunak murriztea				
11. Hiri eta komunitate jasangarriak				
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak				
13. Klimaren aldeko ekintza				
14. Itsaspeko bizitza				
15. Lehorreko ekosistemetako bizitza				
16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak				
17. Helburuak lortzeko aliantza				

Zirkulu koloreztatua, GJHren egoeraren arabera: Berdez badago, GJH egoera positiboan dagoela irizten da. Horiz badago, nolabait geldirik dagoela esan nahi du. Gorriz badago, negatiboa da. Azkenik, kolore grisak adierazten du ez dela aplikatzen edo ez dagoela daturik. Kasu batzuetan, bi kolorez adierazita dago, egoeraren arabera; horrek esan nahi du bilakaera desberdina izan duela, barne alderdian, jarraipen inkestak edo haien lurralde banaketari dagokienez.

5.3. DEPARTAMENTUETAKO JARDUNBIDE EGOKIAK GJHEN ARABERA

2030 Agendaz jabetzeak esan nahi du hausnarketa eta jomugen aplikazioa txertatzea foru administrazioko zerbitzuetako teknikarien eguneroko lanean. Hausnarketa eta txertatze horretarako, komeni da zenbait esku-hartze nabarmentzea, hala nola «jardunbide egokiak», beste pertsona eta eragile batzuek beren zerbitzu edo komunitateetara transferitu ahal izan ditzaten. Hori ere, hain zuzen, Borondatezko Txostenen helburuetako bat da. Helburua 2030 Agenda aplikatzeko hainbat baliabide lortzea da, ekintza zehatzekin edo garatutako esperientziekin, jomugak eta GJHak barne hartuta.

Zer hartu dugu jardunbide egokitzat? Inkesta espezifiko bat egin zen, plan eta programen arduradunei bidali zitzaien inkesta gori, plan horietakoekin batera betetzeko. Gainera, 2030 Agenda Foru Administrazioan aplikatzeko adibide gisa jardunbide egokiak hautatzeko tailer bat eginen zela jakinarazi zen.

Dokumentazioan azaltzen zenez, jardunbide egoki bat etorkizun handiko prozesu, ekimen eta esperientzia berritzaileak, erreplikagarriak, positiboak, eredugarriak eta eskalagarriak dira, hainbat parametro sustatzen dituztenak, hala nola inklusioa, ingurunearen babesa, gizarte garapena, irakaskuntza eta hezkuntza eta aukera berdintasuna. Jardunbide egokiak GJHen jomugaren bat lortzearekin lotuta egon behar dira, eta, ahal izanez gero, jarraipen adierazleren baten bidez agerian utzi behar dira.

Orientabideen, helburuen, jomugen eta adierazleen aplikazioa, askotan, ez die GJH bakar bati ere jarraikitzen; aitzitik, hainbat eragilek parte hartzen dute horien zehaztapenean, hainbat sektore politikari dagokienez. Kasu askotan, departamentuarteko lankidetza behar da neurri bat egokiro aplikatzeko. Hori izan da, adibidez, egindako tailerrean eztabaidatu den gaia.

7. Taula. Identifikatutako jardunbide egokiak.

GJH	Jardunbide egokia	Beste GJH batzuk	ZK.
1. Pobrezia desagerraraztea	(1) **Errenta Bermatuaren estaldura eta babesa areagotzea**		1
2. Goserik ez	(2) **Nekazaritzan barietate tradizionalak kontserbatzea** (3) OPREC hitzarmenak elikagaien bankuarekin	13. GJHa 12. GJHa	2
3. Osasuna eta ongizatea	(4) **Medikuntza pertsonalizatuko NAGEN proiektua**	9. GJHa	1
4. Kalitatezko hezkuntza	(5) **Talka plana oinarrizko gaitasun digitalak**	8. GJHa	1
5. Genero berdintasuna	(6) Emakumeen parte-hartze sozial eta politikorako estrategia (7) **«SKOLAE» hezkidetza programa**	4. GJHa	2
6. Ur garbia eta saneamendua	(8) **Drainaketa jasangarrirako hiri sistemak** (9) Uholdeen aurkako toki planak	11. GJHa 13. GJHa	2
7. Energia irisgarria eta ez-kutsagarria	(10**) Energia alorreko dirulaguntzen programa**	11. GJHa	1
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	(11) INNOVARSE kudeaketa sistema (12) **Turismo ibilbide txikieneko eremuetan garapen jasangarria bultzatzeko lurralde lana** (13) Turismo behatokia: Egoiliarraren hautemate azterketa (14) Eraldaketa digitaleko laborategia (turismoa) (15) EDERBIDEA; BICIMUGI, Zikloturismoa Garatzeko Planean bilduak (16) Merkataritza eta eskulangintzarako bultzada digitaleko zentroa. (17) Merkatarien irudiari balioa emateko kanpaina (18) GATURI proiektua (19) Birziklapena Done Jakue bidean.		5
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura	(20) **2030 Agendari jarraikitzen dioten eta lankidetzan oinarrituta dauden I+Gko proiektuen laguntza ildoa** (21) Kontserbazio Zerbitzuaren eguneroko lana	3. GJHa	2

10. Desberdintasunak murriztea	(22) **DAVID Programa** (23) EMANZIPA programa	1. GJHa	2
11. Hiri eta komunitate jasangarriak	(24) **Hirigintza parte-hartzailea COVID-19aren garaian** (25) *Housing First* Programa (26) NELS sarearen web-atariko jardunbide egokien bisorea (27) GJHen kultura eta lerrokatze planaren bisorea	1. GJHa 17. GJHa 4. GJHa	4
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak	(28) **Hondakinei eta Haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea abiaraztea** (29) Pixkanaka paperezko liburuxka turistikoak liburuxka digitalekin ordeztea	8. GJHa	2
13. Klimaren aldeko ekintza	(30) **LIFE-IP NAdapta-CC Proiektua, «Nafarroa Klima Aldaketara moldatzeko estrategia integratua»** (31) Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea.	16. GJHa	2
14. Itsaspeko bizitza	(32) Ibaiak garbitzeko boluntariotza jarduerak («Auzolan»)		1
15. Lehorreko ekosistemetako bizitza	(33) **Naturaguneen edukiera kontrolatzeko aplikazioa (Nafarroa Ezagutu Sarea)** (34) Nafarroa Ezagutu Sarea (dirulaguntzen deialdiak)	11. GJHa 17. GJHa	2
16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak	(35) **Zigor Betearazpeneko eta Justizia Leheneratzaileko zerbitzua** (36) Taldean parte hartzea 2030 Agendaren jarraipen adierazleak (OCECA) homogeneizatzeko, autonomia erkidegoetako estatistika entitateen mailan	10. GJHa; 3. GJHa	2
17. Helburuak lortzeko aliantza	(37) **Bonu jasangarriak. Nafarroako finantzaketa jasangarrirako programa** (38) Iruñerriko jasangarritasun jardunaldiak (39) Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailea lantzea, Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluaren Batzorde Delegatuaren bitartez (40) Gazteria eta Agenda 2030 jardunaldiak. Gazteriarentzako harremanak mundu aldakor batean	4. GJHa	4

OHARRA: Jardunbide egokiak horretarako egindako inkestetatik, jarraipen dokumentaziotik eta 2021eko urriaren 20an egindako tailerreko lanetik atera dira. «Beste GJH batzuk» zutabean, sustatzaileek bateratutako edo tailerrean eztabaidatutako GJHak eta jomugak adierazten dira. Letra lodiz ageri dira tailerrean parte hartu zuten eragileek hurrengo kapituluan modu espezifikoan deskribatzeko hautatu zituzten jardunbide egokiak.

5.4. GJHEN BISOREA NAFARROAN

Jarraian, aurreko epigrafeetan deskribatutako prozesuari jarraituz. Aurreko urteko txostenean bezala, labur berrikusi da Nafarroako GJH bakoitzaren egoera, adierazleen egoeraren arabera. Adierazleek oso aldaketa txikia erakutsi dute (2018-2019, baten bat eskuragarri 2020). Eta ez du COVIDaren efektua modu homogeneoan islatuko.

Lehenik eta behin, jarraipen taldearen iritziz adierazlearen egoeraren laburpen labur bat agertzen da, 2015eko hasierako urtea 2019koarekin alderatuz, kasu gehienetan, eta beste batzuetan, berriz 2020koarekin alderatuz (aurreko txostenean 2018a zen). Egoeraren arabera koloreztatutako zirkulu batekin irudikatzen da: Berdez badago, GJH egoera positiboan dagoela irizten da. Horiz badago, nolabait geldirik dagoela esan nahi du. Gorriz badago, egoera negatiboa du GJHak. Azkenik, kolore grisak adierazten du ez dela aplikatzen edo ez dagoela daturik. Kasu batzuetan, bi kolorez adierazita dago, egoeraren arabera; horrek esan nahi du bilakaera desberdina izan duela, dela ingurumenarekiko loturarenik, dela barne alderdian, jarraipen inkestak edo haien lurralde banaketari dagokienez.

Hurrengo orrialdeen interpretazioak Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko moduari buruz hausnartzen laguntzea du helburu. Kontua ez da ikustea planek eta programek zenbateraino jarraikitzen dieten 2030 Agendari, baizik eta aztertutako dokumentazioa berrikustea eta eragileekin gogoeta egitea. Nafarroako Gobernuko Zerbitzuek ezarritako «jardunbide egoki» batzuk edo zenbait ekintza zehatz nabarmentzen dira. Jada aipatu dugun bezala, jardunbide egokiak etorkizun handiko prozesuak, ekimenak eta esperientziak dira, berritzaileak, erreplikagarriak, positiboak, eredugarriak eta eskalagarriak, GJHetako jomugaren bat lortzearekin lotuta daudenak. Inklusioa, ingurunearen babesa, garapen soziala, irakaskuntza eta hezkuntza, aukera berdintasuna eta beste hainbat parametro sustatzen dituzte, eta, beraz, Nafarroan 2030 Agenda ebaluatzea eta ezartzea ahalbidetzen dute, askotan jarraipen adierazle batekin lotuta daudelako.

POBREZIA DESAGERRARAZTEA

Mundu osoan pobrezia mota guztiak ezabatzea.

Adierazleek bilakaera positiboa izan dute 2015etik 2019ra. Politikak eta ekintzek Nafarroako gizarteratze mailak handitzera jotzen dute. COVID-19aren eraginagatik efektu negatiboa aurreikusten da datuetan; alabaina, koiuntura horrek ez du eraginik izanen helburu estrategikoetan eta politiken irismenean.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Gizarteratze Plan Estrategikoak 2020an izandako aplikazioak bi jarduketa ildo izan ditu: plan horretan aurreikusitako ekintzak gauzatzea eta COVID-19agatiko larrialdiarekin lotutakoa.

Lehenengoan, gizarteratze eskubidea gauzatze gisa[4], diru-sarrerak Errenta Bermatuaren eta beste zerbitzu batzuen bidez bermatzea, gizarte jantokiei laguntzea, kalteberatasun egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ekintzak, gutxiengoen hezkuntza inklusioa eta integrazioa; azken hori, aldi berean, lotuta dago Ijito Biztanleria Garatzeko Estrategia (2019-2022) delakoan bilduriko ekintzekin, eta nabarmentzekoa da, horren ildotik, Arrosadia auzoko ijito familiekin esku-hartze soziokomunitarioa gauzatzeko Programa intentsibo egikaritzeko Iruñeko Udalarekin sinatutako hitzarmena.

COVID-19agatiko larrialdiari dagokionez, azpimarratzekoak dira hauek: (a) toki erakundeei transferitzeko ezohiko funtsa, herritarren beharrak berehala estaltzen direla bermatzeko eta premia horiei erantzuteko langile osagarriak kontratatzeko erabili dena; (b) kalteberatasun egoeran dauden familiei elikadura beharrak estaltzea eta kit higieniko-sanitarioak ematea; eta (c) COVID-19ak eragindako gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonentzako aldi baterako bizitoki bat irekitzea.

Horrek guztiak mesedegarria izan da 1.2 (pobrezia murriztea) eta 1.3 (pertsona guztientzako babes soziala bermatzea) jomugak lortzeko, edo, gutxienez, atzerapen nabarmena saihesteko. Hala, administrazio publikoek —eta, zehazki, Nafarroako Gobernuak— zera erakutsi dute pandemiarekin, gaitasuna dutela talde kalteberei laguntzeko eta egoera okerrenean dauden pertsonen babes mailak handitzeko, zerbitzu publikoen bidez ematen duten estaldurari esker: etxebizitza, Errenta Bermatua, horretan diharduten GKEekiko akordioak, eta abar.

Adierazleek erakusten dutenez, 2019ra arte, pobrezia atalasearen azpiko errenta baliokidea duten etxekoen unitateen kopuruak gora egin duela (2,6 zen 2018an; 4,1, berriz, 2019an). Aurreikustekoa da gorakada hori handiagoa izatea 2020an; bibliografiaren arabera, halako taldeetan daude, izan ere, lan informalarekin lotura handiena duten pertsonak, eta COVID-19agatiko krisiak zuzeneko eragina izan du lan informalarekin. Errenta Bermatuak eragin hori arindu lezake, «Transferentzia sozialen ondoren txirotasun arriskuan dauden biztanleak» adierazlearen 2018-2019 aldiko bilakaerak erakusten duen bezala. Adierazle hori % 8,9tik % 7,7ra jaitsi da. Pertsona bakoitzeko batez besteko errenta 12.333 € zen 2018an, eta 13.394 €-rain hazi da, berriz, 2019an.

[4] Ikus, halaber, 11. GJHan, «Housing First» programaren erreferentzia.

ERRENTA BERMATUAREN BIDEZKO BABES SOZIALA

Gizarteratze politika aktiboa da, 15/2016 Foru Legearen aginduaren arabera, krisiek ondorio larriak izan ohi baitituzte pertsonen kalteberatasunean. Lege honek prestaziorako eskubidea eta gizarteratzeko eskubidea hartzen ditu kontuan, eta elementu berritzaileak biltzen ditu, hala nola enplegua sustatzea eta estaldura 65 urtetik gorakoentzat ere zabaltzea. Legea arazo sozialen indibidualizazioarekin loturiko ikuspegi horren araberakoa da, pertsonek hau pairatzen baitute: *«autoestimu galera eta lotsa- eta estigmatizazio-sentimenduak agertzea, bizitzari aurre egiteko gaitasun eta trebetasun pertsonalik gabe gelditzea eta sostengurako sare sozial eta familiarren hondatzea».*

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Eskubide Sozialetako Departamentua / Diru-sarreren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua
Itunak/lankidetzak	Nafarroako Foru Ogasuna, Nafarroako Enplegu Zerbitzua eta toki entitateak
Hartzaileak	Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

2 PROIEKTUAK | **320.000** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
1.2 JOMUGA 2030a baino lehen, definizio nazionalen arabera pobrezian –dituen alderdi guztietan– bizi diren adin guztietako gizon, emakume eta haurren proportzioa erdira jaistea, gutxienez.	200.000,00	1
MOZAMBIKE	200.000,00	1
1.3 JOMUGA Babes sozialerako sistemak eta neurriak ezartzean, estatu osorako egokiak direnak ezartzea, etxebizitzak barne, eta 2030erako pobre eta kalteberen estaldura nabarmen handia lortzea.	120.000,00	1
NIKARAGUA	120.000,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**320.000,00**	**2**

GOSERIK EZ

Gosea bukaraztea, elikagaien segurtasuna lortzea, elikadura hobetzea, eta nekazaritza jasangarria sustatzea.

Gaitasunei esker, landa garapenerako politikaren barruko ekintzak diseinatzen ahal dira, ekoizpen jasangarriarekin, aholkularitzarekin eta aniztasun genetikoaren babesarekin lotutakoak ekintzak, hain zuzen. Nutrizioaren alorrean eta barne eskala espazialetako helburuen eta jomugen ebaluazioan oraindik badago zer hobetu.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

2. GJHak –Gosea bukaraztea, elikagaien segurtasuna lortzea, elikadura hobetzea, eta nekazaritza jasangarria sustatzea– irismen global bat ere badu. Nafarroako GJHetarako esteka birtualean Espainiarekin eta Europar Batasunarekin konparatzeko adierazleak daude jasota. Oraingoz, ez dago adierazlerik udal mailan, ezta daturik ere.

2.4 (nekazaritza ekoizpen jasangarria) eta 2.3 (hazien dibertsitate genetikoa) jomugak lortzeari dagokionez, Landa Garapeneko Planaren 2020ko jarduera programan ekoizpen ekologikoa babesteko neurriekin jarraitu da (834/2007 EB erregelamenduaren araberako ekoizpen metodoak), baita Nafarroako abeltzaintza aziendarako laguntzekin ere, abeltzaintzako baliabide genetikoak kontserbatzeko, bereziki arraza autoktonoei dagokienez. Lehen sektoreko profesionalei lagun egiteko eta aholkularitza teknikoa emateko beste neurri, laguntza eta inbertsio batzuez gain.

Jarduera horiek beste GJH batzuei ere jarraikitzen diete, energiaren, azpiegituren edo toki garapenaren esparruan, eta pandemiarekin batera sasoikako langileen bizi baldintzetan esku hartzeko ahalegina egin da, bilketa garaietan funtsezko eragileak direla kontuan izanik.

2.1 jomugari dagokionez (nutrizioa eta elikadura osasuntsua), Osasun Departamentuak COVID-19ari egokitutako esku-hartzeen bidez hartu du esku haur eta nerabeen osasuna prebenitzeko eta sustatzeko estrategian, obesitatearen arloan edota Jaiotzan eta Edoskitzean Sorospena Humanizatzeko Ekimenaren ezarpenean.

1. GJHan jada aipatu dugun bezala, COVID-19aren garaian elikagaien banaketaren arloko premiazko ekintzak ere gauzatu dira, Nafarroako Gobernuko hainbat zerbitzuk, erakundek eta GKEk lagunduta betiere.

NEKAZARITZAN BARIETATE TRADIZIONALAK KONTSERBATZEA

Proiektuan aurreikusten diren ekintzen esparru zabalaren barruan, balioetsi nahi izan da toki barietateek –eta, zehazki, gure elikaduraren parte izan diren eta diren barazki barietateek– erresilientzia handia dutela; barietate horiek iraun dute, belaunaldiz belaunaldi pertsona askok beren ezagutza eta tradizioen arabera eginiko landaketa, hautaketa eta kontserbazio lanari esker.

LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren barruan, Nafarroan barietate tradizionalen gida bat eratzeko ataza honako hauen emaitza da: hainbat arrazoirengatik, toki eta familia eremuan kontserbatzen urteak zeramatzaten barietateak lokalizatzea eta, hala badagokio, hazien lagina jasotzean zetzan aurretiko landa lan baten azken bilketa; hazi horien zaintzaileek garrantzitsutzat jotzen zuten informazio guztia biltzea; hazi horien ugalketa, baldin eta bildutako kantitatea Aragoiko Nekazaritzako Elikagaien Ikerketa eta Teknologia Zentroko Baratze Espezieen Germoplasma Bankuak (BGHZ–CITA) eskatutakoa baino txikiagoa bada; horrez gain, zenbait aleren ezaugarriak egokiro ezartzea eta BGHZ–CITAra bidaltzea eta hari entregatzea, horien kontserbazioa ziurtatzeko, aldagarritasun intraespezifikoa ez dadin galdu (toki aldaera zahar askoren ordez aldaera hobetuak –uniformeagoak baina funts genetiko mugatuagokoak– erabiltzeak eragiten du, batez ere, aldagarritasun intraespezifikoaren galera).

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua / Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzua.
Itunak/ lankidetzak	Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
Hartzaileak	Nekazaritza sektoreko profesionalak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	
Argibide gehiago	Nafarroako bertako barazki barietateen gida

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

22 PROIEKTUAK | **13** HERRIALDEAK | **2.892.105** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
2.1 JOMUGA 2030erako, gosea desagerraraztea eta pertsona guztiek, bereziki pobreek eta kalteberatasun egoeran dauden pertsonek, urtebetetik beherako haurrak barne, urte osoan zehar elikadura osasuntsua, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea	641.662,00	5
BOLIVIA	119.991,00	1
EKUADOR	101.847,00	1
INDIA	100.000,00	1
KENYA	119.824,00	1
PERU	200.000,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
2.2 JOMUGA 2030erako, desnutrizio modu guztiak bukaraztea, 2025erako, 5 urtetik beherako haurren hazkunde atzerapenari eta elikagaiak alferrik galtzeari buruz nazioartean adostutako helburuak lortzea barne, eta emakume haurdunen, bularreko haurren eta adinekoen nutrizio beharrizanei erantzutea.	898.574,00	6
HERRI SAHARARRA	178.000,00	1
ARGENTINA	89.436,00	1
EL SALVADOR	200.000,00	1
GUATEMALA	120.000,00	1
MALI	200.000,00	1
NIKARAGUA	111.138,00	1

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
2.3 JOMUGA 2030ean, nekazaritza produktibitatea eta elikagai ekoizle txikien diru-sarrerak bikoiztea, bereziki emakumeenak, herri indigenenak, familiako nekazarienak, artzainenak eta arrantzaleenak, baita sarbide seguru baten bidez ere.	922.448,00	7
EKUADOR	319.882,00	2
MOZAMBIKE	192.566,00	2
PERU	210.000,00	2
KONGOKO ERREP. DEMOK.	200.000,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
2.4 JOMUGA 2030erako, elikagaiak ekoizteko sistema jasangarriak eta produktibitatea eta ekoizpena handituko duten nekazaritza praktika erresistenteak –ekosistemak mantentzen lagunduko eta egokitzeko gaitasuna indartuko dutenak– ziurtatzea.	229.421,00	3
EL SALVADOR	119.138,00	1
PERÚ	110.283,00	2
2.A JOMUGA Inbertsioa handitzea, baita nazioarteko lankidetza handiagotuz ere, landa azpiegituretan, nekazaritzako ikerketa eta hedapen zerbitzuetan, teknologiaren garapenean eta landareen eta abereen gene bankuetan, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen ahalmena handitzeko.	200.000,00	1
LURRALDE PALESTINARRAK	200.000,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**2.892.105,00**	**22**

OSASUNA ETA ONGIZATEA

Bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea bultzatzea adin guztietako pertsonentzat.

Nafarroak bere egoera onuragarriari eusten dio adierazle gehienetan. Osasun planak –osasun laguntzaren berme gisa ulertuak– diseinatzeko, arreta pertsonalizatua hartu da kontuan, eta ebaluatu egin beharko da. Hurrengo txostenotan kuantitatiboki ebaluatuko da COVID-19aren eragina.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Jada adierazi dugun bezala, pandemiak ageriko eragina izan du osasun alorreko jardueretan. Osasunak, norbanakoaren garapenerako faktore erabakigarri gisa, eragina du 2030 Agendan jasoriko beste jomuga eta helburu batzuen lorpenean, Nafarroako Osasun Planaren ikuspegi biopsikosozialari jarraikiz.

Egiaztatu dugu Osasun Departamentuaaren jarduera dela Nafarroako Osasun Planaren helburuak ezartzea, eguneroko jarduerak baldintzatu dituen pandemiak izan dituen ondorioez harago. Plan hori beste plan estrategiko batzuekin lotuta dago, hala nola Osasun Publikoaren 2016-2020rako Planarekin, Osasun Mentalaren 2019-2023rako Planarekin, 2017-2020 aldirako Nafarroako Lan Osasuneko Ekintza Planarekin, haur eta nerabeen osasuna prebenitzeko eta sustatzeko estrategiarekin eta abarrekin. Estrategia horiek COVID-19ak eragindako egoeretara egokitu dira, eta gai hauei eragiten zieten: haurren nutrizioa eta obesitatea, amen eta jaioberrien heriotza tasa, gaixotasun ez-transmitigarriak, osasun mentaleko protokoloak, adikzioak, trafikoa, prestakuntza eta ikerketa, herritarrentzako gidaliburuak, etab.

COVID-19ak, gaixotasun kutsakor gisa, arrisku foku bihurtu zituen osasun zentroak. Baina, era berean, honako hauek ere faboratu ditu: Osasun Sare Integratu bat sortzea, Foru Agindu bidez sortutako figurekin, mikrobiologiako laborategiak koordinatzeko, Zaintza Intentsiboetako Unitateen koordinazio exekutiboa, erabaki etikoak hartzeko orientabideak, lurraldean jarduteko protokoloak, laneko arriskuak, norbera babesteko ekipamenduak banatzea osasun langileei eta arriskuan dauden langileei, diagnostikorako sistemak eta protokoloak, probak, baheketa eta miaketa, informazio eguneratua eta babes emozionala horretarako sortutako atari birtual baten bidez (https://coronavirus.navarra.es/es/), eta, azkenik, txertaketa sistemaren planifikazioa.

Nafarroako Medikuntza Pertsonalizatuaren Estrategia Integrala ikuspegi biopsikosozialaren aurretik doa, eta ikuspegi indibidualizatu horretara bideratzen da; zehazki, pertsona arreta medikoaren erdigunean jartzean, prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan, eskura dauden aurrerapen zientifiko eta teknikoen bidez betiere: biomedikuntza, genetika, genomika, datuen analisia, etab. Nafarroako Gobernuaren beste departamentu, politika eta estrategia batzuei jarraikitzen die (Espezializazio Adimentsuaren Estrategia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, berrikuntzaren eta ikerketa zentroen Nafarroako sistema, eta abar). Plana ez da esplizituki lotzen 2030 Agendarekin, eta ez ditu aipatzen harekiko harremanak, ezta 3. GJHarekikoak ere; hala ere, jarraipen inkestetan 3. GJHari eta 9. GJHari jarraikitzen dio bigarren mailan, deskribatzen dituen itun kontzeptual eta publiko-pribatuen esparrua dela-eta, eta, beraz, beste GJH batzuekin ere lotuta egonen litzateke. **Medikuntza pertsonalizatuko** proiektuen finantzaketa ere nabarmentzekoa da. GEMA erronka, Genomika eta Medikuntza Aurreratua. NAGEN PEDRIATICS, AGATA eta LINTERNA (2020an aurkeztutako proiektuak dira, 2023an amaituko direnak). Osasun sisteman eragin handia duten I+Gko proiektuak dira, eta berrikuntzatik oso gertu dauden TRL[5] maileta

iristen dira. Beraz, garapen teknologikoen ezarpena berehalakoa izanen da beharbada. Eta osasun sistemako inpaktuak medikuntza egiteko eredua aldatzea ekarriko du agian. Adierazitako proiektuek jada jardunbide egokia finkatu duten beste aurrekari batzuk dituzte. Europan ezagunak diren batzuk, hala nola NAGEN 1000 proiektua (2017-2019), ICPerMedek deitutako medikuntza pertsonalizatuko jardunbide onenaren saria irabazi zuena. Horren ondorioz, praktika kliniko bat egin da, eta aldaera genomikoen azterketari esker, gaixotasun arraroak detekta daitezke bai eta tratamendua pertsonalizatu ere, eguneroko praktika klinikora eramanez.

COVID-19ari buruzko kapituluan erabilitako adierazleak gorabehera, ez daukagu 2020ko datu homogeneorik 3. GJHrako. Oro har, joera positiboa erakusten dute, baina estatistika institutuek jada iragartzen dute heriotza tasa handitzeaz gain, bizi itxaropena jaiotzean atzeratuko dela eta, jakina, osasun arriskuaren pertzepzio handiagoa izanen dela.

COVID-19ak adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan izandako inpaktuak eragin oso handia izan zuen pandemiaren lehen olatuan. Guztira 437 pertsona hil ziren, 274 COVID-19arekin eta 163 sintoma bateragarriekin baieztapenik gabe. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzetan hil ziren horietako 8. Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuek, egoitzekin batera, krisi larri bati ekin behar izan zioten; izan ere, lan handia egin behar izan zuten, nola koordinatzeko hala egoera kritiko horri erantzuteko. Erakundeen eta Nafarroako gizartearen laguntza izan zuten, eta izugarrizko gizalegea eta konpromisoa erakutsi zuten hain ezohikoa izan zen egoera bati aurre egiteko. Eskubide Sozialetako Departamentuan, bestalde, egoitza zentroetako COVID-19aren krisiari buruz autonomia erkidego batean egiten den lehen auditoria ofiziala egin genuen. Lehenik eta behin, betebehar etikoa zen, pandemiak egoitzen sektorean izan zuen eragin latza ikusirik, baita egindako kudeaketa ebaluatzeko betebehar politikoa ere, etorkizun hurbilean hobetu ahal izateko.

Zalantzarik gabe, ondorioek eta gomendioek hobeki erakutsi ziguten gertatutakoa eta hobetu beharreko alderdiak, berriro gerta ez dadin. Horren ildotik, pozik gaude bertan nabarmentzen diren ia gomendio guztiak abian jarri ditugulako. Gainera, ikasitako ikasgaiekin, 92/2020 Foru Dekretua onartu dugu, abenduaren 2koa, Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemaren barruan egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen duena. Arau berri horrek egoitza eredu berri bat zehazten du, honako hauetan funtsatua: zentro txikiagoak; pertsonarengan oinarritutako arreta; eta COVID-19aren aurreko prebentzio neurri ugari edo antzeko egoerak jasotzen dituena.

[5] TRL mailen bidez teknologia baten heldutasuna neurtzen dira. Horizon 2020 ekimenak eta Horizon Europe delakoak proiektuak ebaluatzeko txertatzen dituzte. Ingelesezko akronimoa da (Technology Readiness Level), «erabilgarritasun teknologikoaren maila» esan nahi duena; TRL 1 mailak oinarrizko ikerkuntza esan nahi du, eta beste muturrean TRL 9 dugu, zeinak adierazten baitu teknologia merkatuan sartuta dagoela.

MEDIKUNTZA PERTSONALIZATUKO NAGEN PROIEKTUA

3 OSASUNA ETA ONGIZATEA

NAGEN proiektuari medikuntza pertsonalizatuko jardunbiderik onenaren saria eman zion ICPerMed taldeak.
Giza genoma aztertzeko teknologia osoaren (WGS) erabilera Nafarroako osasun sare publikora eramatean datza proiektua.
Horren ondorioz, praktika kliniko bat egin da, eta aldaera genomikoen azterketari esker, gaixotasun arraroak detekta daitezke bai eta tratamendua pertsonalizatu ere, eguneroko praktika klinikora eramanez.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia S3 Proiektu Estrategikoen Zerbitzua
Itunak/lankidetzak	Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
Hartzaileak	Enpresak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, ospitaleak.
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA
Argibide gehiago	https://www.icpermed.eu/en/ICPerMed-Award-2018.php

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

3 OSASUNA ETA ONGIZATEA

26 PROIEKTUAK | **17** HERRIALDEAK | **2.880.911** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
3.1 JOMUGA 2030An, gutxi gorabehera, amen munduko heriotza tasa murriztea 70etik behera, bizirik jaiotako 100.000 bakoitzeko.	154.387,00	2
KAMERUN	34.387,00	1
GUATEMALA	120.000,00	1
3.2 JOMUGA 2030erako, jaioberrien eta 5 urtetik beherako haurren heriotza saihesgarriak bukaraztea; horrela, herrialde guztiek ahaleginak eginen dituzte jaioberrien heriotza tasa 12raino edo hortik behera jaisteko bizirik jaiotako 1.000 umeko, eta 5 urtetik beherako haurren heriotza tasa gutxienez 25eraino edo hortik behera jaisteko bizirik jaiotako 1.000 umeko.	372.937,00	4
KAMERUN	34.993,00	1
GUATEMALA	120.000,00	1
MALI	97.944,00	1
NIGER	120.000,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
3.3 JOMUGA 2030erako, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriak eta aintzat hartu ez diren beste eritasun tropikal batzuk bukaraztea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako eritasunei eta transmititzen ahal diren beste eritasun batzuei aurre egitea	413.704,00	6
GUATEMALA	29.468,00	1
HAITI	29.110,00	1
PERU	120.000,00	1
KONGOKO ERREP. DEMOK.	115.126,00	2
SUDAN	120.000,00	1

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
3.4 JOMUGA 2030erako, heren batera murriztea transmititu ezin diren eritasunen ondoriozko heriotza tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.	120.000,00	1
BENIN	120.000,00	1
3.5 JOMUGA Substantzien prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazienteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.	89.862,00	1
SIERRA LEONA	89.862,00	1
3.7 JOMUGA 2030ean, sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa osasuna sartzea estrategia eta programa nazionaletan.	786.125,00	5
BOLIVIA	120.000,00	1
EL SALVADOR	200.000,00	1
HAITI	158.312,00	1
SENEGAL	107.813,00	1
LURRALDE PALESTINARRAK	200.000,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
3.8 JOMUGA Osasun estaldura unibertsala lortzea, bereziki, finantza arriskuen aurkako babesa, kalitatezko funtsezko osasun zerbitzuetarako sarbidea eta sendagai eta txerto seguruak, eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak eskuratzea guztiontzat.	851.609,00	6
HERRI SAHARARRA	84.000,00	1
BOLIVIA	200.000,00	1
GUATEMALA	138.123,00	1
MOZAMBIKE	119.657,00	1
RUANDA	189.829,00	1
LURRALDE PALESTINARRAK	120.000,00	1
3.C JOMUGA Nabarmen areagotzea osasunaren finantziazioa eta osasun langileen kontratazioa, garapena eta gaikuntza, eta horiei eustea garapen bidean dauden herrialdeetan, bereziki, aurrerapen txikieneko herrialdeetan eta garapen bidean dauden uharte erako estatu txikietan.	92.287,00	1
GUATEMALA	92.287,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**2.880.911,00**	**26**

4

KALITATEZKO HEZKUNTZA

Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizi osoan ikasteko aukerak sustatzea pertsona guztientzat.

Nafarroan, hezkuntza politikak pertsonengan jartzen du arreta, pertsonak bizitza osoan zehar beren ikaskuntza etengabe bideratzeko gaitzean, hain zuzen. Pertsonei ikasten, sortzen, partekatzen irakastea. Metodologiak, teknologiak eta guneak aldatzea dakar berekin, baita gaitasun berriak garatzea ere. Adierazleek ez dituzte joerak aldatu 2020aren amaieran.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Deskribatu den bezala, hezkuntza sistemak bere erresilientzia eta egokitzeko gaitasuna erakutsi ditu larrialdi egoeretan, eta, gainera, 2030 Agendaren printzipioei jarraitu die, hala nola, «inor atzean ez uztea» eta maila guztietan ikasle guztiei hezkuntza arreta emateko beharrezkoak diren bitartekoez hornitzea. COVID-19an agerian utzi du jada Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren lehentasunetako bat zela hezkuntza desparekotasunaren aurkako borroka, ekitatearen eta hezkuntza eraginkortasunaren ikuspuntutik. Hezkuntza komunitate osoa inplikatuta egonik, eten digitalaren aurkako borroka, faboratze aldera Nafarroako hezkuntza sistema hobetu eginen dela errendimenduari eta kalitateari dagokienez.

Krisian zehar, Hezkuntza Departamentuak orientazio eta berrikuntza berriak ezartzen jarraitu du, Hezkuntza Departamentuaren hainbat plan, programa eta jarduera biltzen dituen IkasNOVA ekimenaren **hezkuntzaren eraldaketa digitala** lortzeko politikaren bidez, eta Hezkuntza Departamentuaren 2021-2023 aldirako Hezkidetza Planak 4. GJHari eta 5. GJHari jarraikitzen die, ikuskerari edo esparru estrategikoari dagokienez («nazioarteko akordioak ditu euskarri»). Halaber, 4. GJHari eta 5. GJHari jarraikitzea Nafarroako Gobernuaren beste zenbait planen bitartez ere kontuan hartu behar da, hezkuntza, berdintasun, gaitasun eta abarren arloan; hala ere, programaren helburuez, ikaskuntzaz, hezkidetzaz, aniztasunaz eta abarrez hitz egiten denean, indartu egin zitezkeen, 2030 Agendako jomugei lotuta. Hezkidetza Plana honako honen bidez sendotzen da: 72/2021 Foru Dekretua, abuztuaren 18koa, zeinaren bidez hezkidetza arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan; izan ere, jardunbide egokitzat jotzea ahalbidetuko du araudi tipologian.

2030 Agendaren Adierazpenak munduko kultura aniztasuna aitortzen du, baita kultura eta zibilizazio guztiak lagungarriak direla garapen jasangarrirako eta hori errazteko funtsezko zeregina dutela ere. Hizkuntza kulturaren funtsezko baliabide gisa hartuta, Euskararen II. Plan Estrategikoak (2020-2027) ere jarraitu beharko lioke 2030 Agendari, ziur aski 4. helburu horretan lehentasunez eta, bigarren mailan, 12. GJHan (hazkunde jasangarrirako faktore gisa) eta 16. GJHan (oinarrizko eskubidea gauzatze gisa) ere bai.

Bestalde, aipatu behar da **Garapenerako Lankidetza Programak** 4.7 helburua (herritartasun globalerako eta garapen jasangarrirako hezkuntza) lortzen jarraitzen duela, eta horrela, 2020an halako 59 proiektu babestu direla.

4. GJHarekin lotutako adierazleek joera positiboa izan dute, bai Nafarroa osoan, bai haren banaketa espazialean.

JARDUNBIDE EGOKIA

TALKA PLANA OINARRIZKO GAITASUN DIGITALETAN

Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eginiko Oinarrizko Gaitasun Digitalen Garapenerako Talka Plana pandemiaren konfinamenduaz geroztik sortu zen. Egoera horren ondorioz, langile askok ezin izan zuten hainbat administrazio eta enpresatako zerbitzu presentzialetan sartu.

Elkarrekintzaren zati handi bat internetera eraman zen. Une horretan egiaztatu zen langile askok ez zutela behar adinako trebetasunik eta ezagutzarik dagozkion izapideak egiteko (Gizarte Segurantza, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, udalak, Nafarroako Gobernuak, Estatuko Administrazio Orokorra, bankuak, Osasuna, etab.). Horrenbestez, gaitasun digitalei buruzko prestakuntza eman behar dela identifikatu zen, sarean gai pertsonal eta profesionalei buruzko kudeaketa errazteko. Horregatik guztiagatik, SNE-NLk «Talka Plan» izenekoa diseinatzea erabaki zuen, deskonfinamend garaietan eta higiene eta zuhurtasun neurri handiagoak kontuan hartuta, oinarrizko trebetasunetan aurrez aurreko prestakuntza intentsiboa eta egokia egiten ahalko zela ziurtatzeko, eta ikastaro horiek albait herri gehienetara gerturatu ziren 2020ko udan. Plan horrek, prestakuntza osagarri hori behar duten langabeei eragiteaz gain, oinarrizko gizarte zerbitzuekin, toki garapeneko eragileekin, partzuergoekin, toki erakundeekin, Nafarroako Gobernuko beste unitate batzuekin eta abarrekin lankidetzan aritzea eskatzen du. . Ekimen horri esker, 2020ko udan mila pertsona inguruk gaitasun digitalei buruzko prestakuntza jaso dute, «sareko sarbidean trebetasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzea faboratuta».

Guztira, 25 orduko 120 prestakuntza ekintza gauzatu dira prestakuntza hori eskatu duten toki erakunde guztietan. Mila pertsonak baino gehiagok prestakuntza jaso dute ikasgela mugikorren eta konektagarritasunaren bidez, ekipamendurik ez duten herrietan. Programa hori, Errealitate Sozialaren Behatokiak eginiko inpaktu ebaluazioak izaniko harrera onaren eta emaitzen ondoren, eskaintza egonkorreko programa gisa hedatu da denboran zehar, enplegu agentziek eta toki erakundeek eskatuta.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzua
Itunak/ lankidetzak	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, toki garapenerako agenteak, partzuergoak, NUKF, Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusia, Toki Administrazio eta Despopulazio Zuzendaritza Nagusia, eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia
Hartzaileak	Lehentasunez langabeak eta aldi baterako enplegu erregulazio espedienteen eraginpean daudenak, oinarrizko gaitasun digitaletan gabeziak dituztenak.
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	8 LANDUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA
Argibide gehiago	https://formacion.navarra.es/eu/ https://www.observatorioreallidadsocial.es/eu/ikerketak/plan-de-choque-de-competencias-digitales-basicas-informe-de-evaluacion/es-566955/

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

10 PROIEKTUAK | **8** HERRIALDEAK | **1.156.050** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
4.1 JOMUGA 2030erako, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza bukatzen dituztela ziurtatzea; hezkuntzak doakoa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza emaitza egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.	909.471,00	7
HERRI SAHARARRA	30.000,00	1
GUATEMALA	120.000,00	1
HAITÍ	400.000,00	2
INDIA	120.000,00	1
KENYA	119.471,00	1
KONGOKO ERREP. DEMOK.	120.000,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
4.4 JOMUGA 2030erako, trebetasun garrantzitsuak dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea, enplegurako, lan egokietarako eta ekintzailetzarako trebetasun teknikoak eta bokaziozkoak barne.	97.861,00	1
KONGOKO ERREP. DEMOK.	97.861,00	1
4.A JOMUGA Eskola instalazioa egokiak eraikitzea eta egokitzea, haurren eta pertsona desgaituen beharrei erantzunen dietenak eta genero kontuak kontuan hartuko dituztenak, eta ikasteko ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak, inklusiboak eta guztientzako eraginkorrak eskaintzen dituztenak.	148.718,00	2
NIGER	78.040,00	1
RUANDA	70.678,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**1.156.050,00**	**10**

GENERO BERDINTASUNA

Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea.

Arloek abiaraziriko politika eta ekintzei esker, adierazleek nazioarekin eta Europarekin duten erlazioa hobetu ahal izan da. Hala ere, barne eremu espazialetan adierazleek oraindik desparekotasun batzuk hautemateko aukera ematen dute.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK



Berdintasun politikak aukera ona dira 2030 Agenda ezartzeko eta GJHen barneko jomugak lortzeko, zeharkakoak izanik, politika eta zerbitzu publikoak bultzatzeko balio baitute. 5. GJHaren –eta, oro har, 2030 Agendaren– jomugak lortzeko, derrigorrezkoa da egiturazko desparekotasunak, soldata arrakala, emakumeen aurkako indarkeria eta genero larderia ezabatzea, baita kontzeptuak eta praktikak, bizitzaren jasangarritasuna eta zainketa politikak berrikustea ere. Halaber, ekipamendu eta zerbitzu publikoak, azpiegiturak eta babes sozialerako politikak ere erraztea, etxeko lanak eta zaintza lanak aitortu eta baloratzeko ez ezik, gizonen eta emakumeen artean erantzukizun partekatua sustatzeko ere bai.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua –eta, zehazki, Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Foru Legearen garapen gisa– hainbat plan gauzatzen ari da, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Programa, Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko 14/2015 Foru Legearen ekintza plana, Departamentuetako berdintasun unitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako gauzaturiko jarduerak eta Emakumeen Parte-hartze Sozial eta Politikorako Estrategia[6]. GJHei jarraikitzeaz gain, berdintasuna 2030 Agendaren betearazpena bizkortzeko eta pertsona guztientzat eta planetarentzat etorkizun jasangarria bermatzeko gai den faktorea da, itunen bidez eta bakean, taldeen eta gizarteen aurrerapena bermatuz.

Gai orokor horiek foru mailan zehazten ahal dira. Talde kalteberak eta arrakala espezifikoak identifikatzeak aukera ematen du adineko emakumeak eta migratzaileak gaitzeko programak (ahalduntzeko programak) egokitzeko, baina bestelako programak egokitzeko ere balio du: parte-hartze sozial eta politikoa, sustapen kultural eta zibikoa, etab. Horregatik sustatzen da, hain zuzen, zaintzen aldeko Foru Ituna eta tokiko itunak, Nafarroako Tokiko Erakundeetako Emakume Politikarien Foroa, Emakume-On/Nosotras Programa eta Taupada/Impulso Programa, indarkeria sexista prebenitzeko Iguala programa eta emakumeen hainbat elkarterekiko berariazko hitzarmenak.

Ekintza zehatzen artean, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatoen kasuan koordinatzeko eta jarduteko protokoloa dago. Emakumeak eta neskatoak detektatzeko, identifikatzeko, artatzeko eta babesteko prozesu horietan inplikatutako erakundeen koordinazioa bultzatzea da protokolo horren helburua. Halaber, arlo horretan erantzukizunak dituzten administrazioen arteko harreman mekanismoak eta salerosketaren biktima diren emakumeei eta neskatoei laguntzen esperientzia egiaztatua duten erakunde eta entitateekiko komunikazio eta lankidetza prozesuak zehaztea.

[5] Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Emakumeen Herritartasun, Ahalduntze eta Partaidetzarako Zuzendariordetzaren Estrategia horrek hainbat programa ditu, eta emakumeak ahalduntzeko guneak eta baliabideak eskaini dituzte programa horiek, ikuspegi intersekzionaletik betiere, Foru Komunitateko lurralde guztietan parte-hartze publikorako dauden guneak kontuan hartuta. 7 programa izan dira: ADIN EDERRA/EDAD HERMOSA; TAUPADA/IMPULSO, EMAKUME ON/NOSOTRAS, EMAKUME POLITIKARIEN FOROA, NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO KONTSEILUAREN BATZORDEKIDEAK, IGUALA ETA LIDERESAS MIGRANTES; 5. GJHa –genero berdintasunarekin lotutakoa–, emakumeak eta neskatoak ahalduntzera bideratua, genero desparekotasuna murrizteko, genero desparekotasunak gizartean eragiten duen geldialdia saihestearren. Guztiek nabarmentzen dute emakumeek eragina izan behar dutela Nafarroako Foru Komunitateko politika publikoetan; izan ere, Nazio Batuen Erakundeak adierazi duen bezala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oinarrizko giza eskubidea izateaz gain, mundu baketsu, oparo eta jasangarria sortzeko funtsetako bat ere bada.

“SKOLAE” HEZKIDETZA PROGRAMA



Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Berdintasun eta Bizikidetza Ataleko Hezkidetza Programa. Programa horrek, 4. GJHari buruzko aurreko epigrafean adierazi den bezala, hezkuntza sistema erabiltzen du, baina, batez ere, sustatzen du irakasleek zein ikasleek egiten dituzten ikaskuntzen bidez gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunekiko begirada kritikoarekin garatzeko elementuak eskuratzen direla, eta baliabideak ematen zaizkiela pertsona gisa aukerak irekiko dizkieten erabakiak har ditzaten. Gainera, programak aurreikusten duenez, ikastetxeak txertatuta, prestakuntza prozesu bat eginen da hainbat fasetan, desparekotasuna murriztea eta ikasleen garapen integrala faboratzea ahalbidetzen duten antolaketa ideietan eragiten duten faseetan.

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Hezkuntza Departamentua Berdintasun eta Bizikidetza Atala
Hartzaileak	Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemako ikasleak eta irakasleak.
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

5 GENERO BERDINTASUNA

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

5 GENERO BERDINTASUNA

17 PROIEKTUAK | **11** HERRIALDEAK | **2.337.362** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
5.1 JOMUGA Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio oro deuseztatzea	389.376,00	4
EL SALVADOR	120.000,00	1
LIBANO	120.000,00	1
PERU	120.000,00	1
SENEGAL	29.376,00	1
5.2 JOMUGA Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu salerosketa eta sexu ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne	353.309,00	3
KOLONBIA	113.309,00	1
EL SALVADOR	120.000,00	1
KONGOKO ERREP. DEMOK.	120.000,00	1
5.3 JOMUGA Praktika kaltegarri guztiak ezabatzea, besteak beste, haurren ezkontza, goiztiarra eta behartua, eta emakumeen genitalen mutilazioa.	200.000,00	1
MOZAMBIKE	200.000,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
5.5 JOMUGA Emakumeen parte hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko erabakigune guztietan.	1.274.677,00	8
BOLIVIA	400.000,00	2
EL SALVADOR	275.000,00	3
GUATEMALA	400.000,00	2
NIKARAGUA	199.677,00	1
5.6 JOMUGA Bermatzea guztiek eskuragarri dituztela sexu eta ugalketa osasuna eta ugalketa eskubideak, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarreko ekintza programaren, Beijing hirian adostutako Ekintza Plataformaren eta horren ikerketa biltzarretako azken dokumentuen arabera.	120.000,00	1
MEXIKO	120.000,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**2.337.362,00**	**17**

6

UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Pertsona guztiek ura eta saneamendua eskura edukitzea eta modu jasangarrian kudeatzea bermatzea.

Garrantzitsua da azpimarratzea ekintza ez dagoela soilik urari giza erabilera ematera bideratuta, baizik eta ur zikloaren ingurumen alderdirako ere badela. Ezin da ebaluatu adierazle guztien bilakaera; beraz, diagnostikoa kualitatiboa da Nafarroako uraren egoerari eta kalitateari dagokienez.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Uraren arloko dokumentu zuzentzailea 2030eko Nafarroako Uraren Esparru Integratuaren Estrategia da, eta aurreko urtean ere aztertu zen; halaber, 2030 Agendarekin lotuta dago eta horri jarraikitzen dio. Hiri-erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea gehitu da. Plan horrek uraren hiri zikloa lidergo eta zerbitzu publikoaren ikuspegitik hartzen du, garapen ekonomiko eta soziala bultzatzen du, giza osasuna zaintzen du, ekosistemetan inpaktu ezin txikiagoa eragiten du, klima aldaketa kontuan hartzen duten soluzio sendo eta dibertsifikatuak ematen ditu. Beraz, garapen jasangarriari –eta, zehazki, 6. GJHari– erabat jarraikitzen dio, finantzaketari, uraren gobernantzari eta ezagutzari, sentsibilizazioari eta dibulgazioari dagokienez.

GJH horri dagokionez, ekintza, orduan, kutsatzaileak kontrolatzera eta prebentzio lanak egitera bideratuta dago, adibidez, klima aldaketaren ondorioen aurrean. Erreferentziazko plana 2019-2030 aldirako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea da. Plan horrek uraren eta azpiegituren erabilera ebaluatzeko mekanismoak ezartzen ditu, bai eta uraren zikloaren kudeaketak habitat eta espezieetan agian izanen dituzten eraginetarako ere, indize biotikoen, uren kalitatearen eta kutsatzaileen presentziaren bidez.

Hiri-erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea eta adierazleen bilakaerak bide ematen dute ondorioztatzeko uraren arloko politika behar bezala ezarri dela Nafarroan, baina egokitu egin beharko dela klima aldaketaren ondoriozko balizko bilakaerara, bai erregimen hidrikoari dagokionez, bai baliabide hidrologikoen ebaluazioari gagozkiola.

DRAINAKETA JASANGARRIRAKO HIRI SISTEMAK

Europan oso zabalduta dago drainaketa jasangarrirako hiri sistemen erabilera jariatze urak lekuan bertan kudeatzeko. Drainaketa jasangarrirako sistema batek euri ura lokalki eta modu naturalean kudeatzen du, ibaira sartu aurretik (edo infiltra dadila ahalbidetuz), eta, aldi berean, arazketan kostuak aurrezteko balio du.

Drainaketa jasangarrirako hiri sistemak instalatzeak eta maneiatzeak kutsadura prebenitzen dute, hiriko jariatzea bideratzen eta moteltzen dute, emari horiek biltegiratzen dituzte tratamendu naturalerako, iragazketarako, berrerabilerarako edo ubide handiagoetara husteko. Diseinuan naturan oinarritutako soluzioak bildu ohi dituzte (azpiegitura berdea): substratu selektiboak, estalki berdea, bilketa, iragazketa, etab.

Klima aldaketara egokitzeko baliabide hori garatu eta zabaldu egin da LIFE IP NAdapta CC proiektuaren barruan, Uraren arlo estrategikoan, eta, zehazki, NUPek Tuteran duen campusean garatutako ekintza baten bidez, hiriko jariatze uraren kudeaketa integralerako soluzio horien erabilera bultzatzeko, eta, horretarako, prototipo bat taxutu da. Prototipo horretan, hainbat parametro ikuskatzen dira, drainaketa jasangarrirako etorkizuneko hiri sistemen diseinua eta dimentsionatzea ahalik eta gehien hobetzeko eta beste leku batzuetan halako sistemak erreplika moduan ezartzen laguntzeko.

Drainaketa jasangarrirako hiri sistemenek klima aldaketari aurre egiten laguntzen digute, energia aurrezten baita; izan ere, araztegietan euri ura tratatu behar ez denez, ibaira zuzenean iritsiko liratekeen tratatu gabeko askoz ere ur gutxiago isurtzen dira, eremu zolatuetako bero uhartearen efektua saihesten laguntzen dute, lurpeko urak berriro kargatzea lortzen da, eta beste ingurumen onura batzuk ere erdiesten dira.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua. Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzua.
Itunak/lankidetzak	Nafarroako Toki Azpiegiturak (NILSA) Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
Hartzaileak	Eraikuntza eta eraikigintza sektoreko profesionalak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK 13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
Argibide gehiago	Proiektuaren eta ekintzaren webgunea: https://lifenadapta.navarra.es/es/accion-c2.3

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

4 PROIEKTUAK | **3** HERRIALDEAK | **444.000** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
6.1 JOMUGA 2030erako, ur edangarria lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izan dadila lortzea, denontzako prezio egokian	222.000,00	2
EL SALVADOR	120.000,00	1
TANZANIA	102.000,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
6.2 JOMUGA 2030ean, gutxi gorabehera, saneamendu eta higiene zerbitzu egoki eta bidezkoetarako sarbidea lortzea denontzat, eta aire zabalean sabelustea bukaraztea, arreta berezia paratuz emakumeen, neskatikoen eta kalteberatasun egoeran dauden pertsonen beharretan	222.000,00	2
EL SALVADOR	120.000,00	1
TOGO	102.000,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**444.000,00**	**4**

7

ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ-KUTSAGARRIA

Pertsona guztiek energia eskuragarri, seguru, jasangarri eta modernoa izanen dutela bermatzea.

2019ra arteko adierazleek apur bat egin dute atzera. Alabaina, diseinatutako politikak eta helburuak, 2030 Agendari jarraikitzeaz gain, egokitzat jotzen dira.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK



Garapen jasangarria lortzeko, 7. GJHak plangintza eginkizun garrantzitsua du. Giza jarduera orok transferentzia energetikoa eskatzen du. Arnasketak berak gasak igortzen ditu, desplazamenduak energia eskatzen du, eta energia ekarpen horrek baliabideak behar ditu, kasu honetan, elikagaiak. Energia mendekotasun handia dugunez eta behar dugun energiaren zati handi bat jatorri ez-berriztagarrietakoa izateak esan nahi du trantsizio teknologikoa ere beharrezkoa dela, eta ez da aurreikusten halakorik hurbileko denbora tarterako. Efizientzia energetikoa, kontsumoa murriztea eta iturri berriztagarrietara igarotzea berehala ezarri beharreko ekintzak ditugu, beste GJH batzuk (aurrerabidea, enplegua, garraioa, ekintza klimatikoa, biodibertsitatea) lortzeko ataza kolokan ez jartzeko. Hala eta guztiz ere, Nafarroan energia berriztagarriaren kontsumoaren ehunekoa % 21,4ra jaitsi da 2019an, aurreko bi urteetan % 28koa izan baizen; nolanahi ere, inguruko eskualde eta herrialdeak baino tasa handiagoak ditugu Nafarroan (Europako batezbestekoa % 18 da).

Aurreko urteko txostenean aipatu zen bezala, Nafarroa inplikatuta dago **Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea**ren onarpenean, zeinak 2030erako Nafarroako Energia Plana onartu eta ezartzean baitu jatorria, bai eta Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orrian (2017-2030-2050) ere, zeinak berariaz baitaude lotuta 2030 Agendarekin, haren helburuekin, jomugekin eta adierazleekin. Gogoan izan behar da, gainera, garraio sektorea Nafarroako igorle handienetako bat dela, Nafarroak berezitasun jakin batzuk baititu geografiari eta ekoizpenari dagokienez; horren ildotik, Nafarroako 2018-2030 Mugikortasun jasangarrirako plan zuzentzailearen helburuak hauek ditu, besteak beste: *«Eraginkortasun energetikoa ugaritu eta menpekotasun energetikoa aldiz eskastea»*, garraioaren eta azpiegituren eraginkortasuna hobetzea, mugikortasuna klima aldaketaren erronketara egokitzea eta automobil pribatuaren ordez garraiobide kolektiboak faboratzea.

Nabarmentzekoa da Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zela Nafarroako Mugikortasun Aktiboaren Plan Zuzentzailea 2022-2030. 2030 Agendaren logotipoarekin agertzen da, derrigorrezkoa den bezala, baina ez da GJHekin lotzen; hala ere, Mugikortasun Jasangarrirako Planarekin lotutako jarduketa da, aurreko txostenean aztertu da eta 7. eta 11. GJHei jarraikitzen die. Joan-etorriak sortzen eta erakartzen dituzten puntuen artean mugitu beharrak murriztea du helburu, baita eguneroko beharrei erantzunen dien oinarrizko foru sare bat sortzea ere.

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

2020an ez da GJH hori lortzearekin loturiko proiekturik finantzatu.

ENERGIAREN ARLOKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAK

Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuak dirulaguntzen hainbat programa sustatzen ditu tokiko erakundeentzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde, enpresa, autonomo, pertsona fisiko eta jabeen erkidegoentzat, efizientzia energetikoa, energia berriztagarrien ezarpena eta mugikortasuna faboratzeko.

7.2 helburuarekin zuzeneko lotura izanik, energia berriztagarriek guztizko kontsumoaren barnean duten proportzioa handitzeko, baina kontuan hartuta trantsizio energetikoaren arloan herritarren artean zabaltzeko eta kontzientziatzeko modu bat dela, eta, beraz, onura dakarkiola gizarte osoari. Berotegi efektuko gasen –BEGen– murrizketa da, ziurrenik, planetaren batez besteko tenperatura 2 oC-tik gorakoa ez izateko eta karbono gutxiko ekonomia bat lortzeko erronkarik handiena, nazioarteko erakundeen maila gorenean lortutako konpromiso gisa.Proiektuei buruz egindako justifikazio txostenek pizgarri fiskalak lortzea ahalbidetzen dute, energia berriztagarrietan eta mugikortasunean inbertitzeagatik. Administrazio publikoen kontsumoari eta efizientzia energetikoari buruzko informazioa jendearen eskura egonen da plataforma eta aplikazio informatikoetan.

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua. Trantsizio Energetikoaren Zerbitzua.
Hartzaileak	Toki entitateak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, enpresak, autonomoak, pertsona fisikoak eta bizikideen erkidegoak. Gizarte osoa, orokorrean
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK
Argibide gehiago	Laster informazio guztia eskuragarri egonen da Nafarroako trantsizio energetikoa ikuskatzeko atari batean

LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria sustatzea, eta enplegu osoa eta produktiboa eta bidezko lana guztientzat.

Politika ekonomikoak eragina izan du lan jarduera sortzeari eta langabezia tasa murrizteari dagokienez. Orokorki, adierazleen bilakaera positiboa izan da. 2019an, enpleguaren prekarietatea eta lan istripuak bezalako fenomenoek kezka sortu dute («The Sustainable Development Goals Report. 2020»). Eta Nafarroan, zenbait barne desberdintasun

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

8. GJHrako deskribatutako ezaugarriek (pertsonen eta gizarteen aurrerapenarekin lotuta dago 8. GJHa), lurralde berezitasun bat dute Nafarroan. Ez da soilik bai jarduera ekonomikoaren eta ekintzailetzaren banaketa espaziala hiriguneetan dagoela kontzentratuta, baizik eta, gainera, inguruabar horiek landa eremuetatik datozen baliabideak xurgatzen eta metatzen dituztela eta, beraz, aurrerapen inklusibo eta orekatua eragozten dutela.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak Espezializazio Adimentsuaren Estrategia S3 ezartzen jarraitzen du; enpresetan I+Ga sustatzeko jomuga du. Dinamizazioaren, aholkularitzaren eta proiektu zehatzetarako dirulaguntzen arloan dihardu. Horretarako, enplegua sustatzeko, desparekotasunak saihesteko, gizarte oreka bultzatzeko eta ingurumenarekin lotutako teknologiak sustatzeko ebaluazio irizpideak ezarri dira. Energia berriztagarrietarako, ibilgailu elektrikoetarako eta biltegiratze energetikorako proiektuak zehaztu dira.

Departamentu horrek berak sustatu du II. Ekintzailetza Plana, Nafarroan jarduera ekonomiko berria sortzeko sustapen eta laguntza neurriak jasotzen dituena, bai eta ekintzailetza eta enpresa berriak sortu eta garatzeko ingurune ahalik eta aproposena sortzeko ekintzak ere. Gazteen eta emakumeen artean eta landa eremuetan ekintzailetza sustatzeko erronkei COVID-19a gehitu zaie; izan ere, kolektibo horiei merkataritza jardueretan, hurbileko zerbitzuetan, etorkinentzako ekintzailetzan (10. GJHa) eta abarretan zailtasun gehigarriak eragin dizkie pandemiak.

Aurreko txostenean Turismoaren Plan Estrategikoaren lerrokatzea aztertu zen. Plana metodologia parte-hartzailearekin eta Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (S3) integratuta egin zen, eta urteko ekintza plan eragileen bidez gauzatzen da. Plan horiek, gainera, GJHen araberako neurriak gauzatzen dituzte. Komunitatearen lurralde garapenerako, landa turismoak eragile ekonomiko gisa duen gaitasuna kontuan hartzen da; horretarako, digitalizazioa beharrezkoa da turismo helmuga gisa, despopulazioa geldiarazten laguntze aldera. COVID-19agatiko pandemian, ostalaritza sektorea, jarduera turistikoetako enpresak eta ETE turistikoak sektore kaltebera bihurtu dira eta, horregatik, laguntza jakin batzuk jarri dira martxan.

Aurreko txostenari dagokionez, Ekonomia Sozialaren II. Plan Integrala (2021-2024) gehitu da. Plan horren lehen helburua zera da, «2030 agendako (GJHak), politika europarretako eta suspertze planetako jomugak txertatzea», bai planean bertan (ekintzen deskribapena), bai gizarte ekonomiako enpresetan. Hauekin lotuta dago: *«4., 5., 8., 10., 12., 16. eta 17. helburuetan jasotako jomugak»*. Ekonomia Sozialaren II. Plan Integralak 2030 Agendari egiten dion ekarpenari buruzko kapitulu bat biltzen du, bai eta bere ekintzen eta jomugen arteko loturari buruzko taula bat ere; bertan ikusten denez, 8. GJHari jarraikitzen dio nagusiki eta, hein txikiagoan, 17. GJHari.

Halaber, Eskubide Sozialetako Departamentuak esku hartzen du 8. GJHa lortzeko, Enplegu Politika Aktiboen Planaren eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidezko enplegurako prestakuntzaren bidez, aukera berdintasunean betiere, baita langileen produktibitatearen eta enpresen lehiakortasunaren hazkundeari dagokionez ere. Enplegurako prestakuntza eta ikastaroak programatzen dira, parte-hartzaile ugari biltzen dituztenak eta enpresetan enplegua sortzen dutenak.

TURISMO IBILBIDE TXIKIENEKO EREMUETAN GARAPEN JASANGARRIA BULTZATZEKO LURRALDE LANA

8 LANDUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Nafarroako lurraldearen gobernantza eta kudeaketa eredu berri bat sortzea, Nafarroako Espazio Turistikoaren Kudeaketa Unitate (ETKU) delakoen bidez, Nafarroako lurraldeetan turismoa garapen ekonomikoaren eragile gisa sustatzeko, lurraldeko biztanleria finkatzen laguntzeko, eta turismo fluxuen urtarokotasuna ezabatzeko. Turismoa garatzeko gida gisako baliabide bat egitea barne hartzen du, turismo garapenerako ekintzak abian jarri nahi dituzten eta turismo arloan ibilbide sendorik ez duten herri guztietan aplikatzekoa izanen litzatekeena. Turismo sektorerako dirulaguntzen ildoekin osatzen da hori; zehazki, honako hauetarako dirulaguntzekin: merkataritza eta turismo arloko diagnostikoak, planak eta enpresa analisiak egiteko, turismo alorreko enpresa txiki eta ertainen bateragarritasuna hobetzeko, produktuaren kalitatea eta berrikuntza sustatzeko, interes turistikoko bizikleta ibilbideak sortzeko, bide berdeak, gune turistikoak eta jabetza publikoko turismo establezimenduak egokitzeko, eta garapen eta marketin turistikoa gauzatzeko.

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia
Itunak/lankidetzak	Partzuergo turistikoak; elkarte turistikoak; toki erakundeetako kudeatzaile turistikoak; turismo bulegoak; garapen agentziak
Hartzaileak	Toki eta eskualde entitateak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK 12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA
Argibide gehiago	https://www.visitnavarra.es/es/web/turismoprofesional

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

8 LANDUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

6 PROIEKTUAK | **4** HERRIALDEAK | **973.822** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
8.2 JOMUGA Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren artean, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz	499.530,00	3
BOLIVIA	199.922,00	1
KOLONBIA	99.608,00	1
PERU	200.000,00	1
8.3 JOMUGA Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babesa emanen dietenak: ekoizpen jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailetza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baita finantza zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.	274.370,00	2
NIKARAGUA	274.370,00	2

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOA	PROIEKTUAK
8.4 JOMUGA Hemendik 2030era bitartean, munduko baliabideen efizientzia pixkanaka hobetzea kontsumoan eta ekoizpenean, eta hazkunde ekonomikoak ingurumen narriadurarekin duen lotura ezabatzen saiatzea, Kontsumo eta Ekoizpen Jasangarriko Modalitateei buruzko Programen Hamar Urteko Esparruaren arabera.	199.922,00	1
KOLONBIA	199.922,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**973.822,00**	**6**

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Azpiegitura erresilienteak, industrializazio inklusiboa eta jasangarria eta berrikuntza sustatzea

Nafarroako politika ekonomikoak GJH horren berariazko gaietan eragiten du, hala nola industria sustapenean eta azpiegituren hornikuntzan. NBEk bereziki nabarmentzen ditu hauek: I+Ga, hazkundeak emisioekin duen lotura ezabatzea; balio kateak; eta industrializazio jasangarria. Adierazle horiek indartu egin dira analisiaren eraginpeko denbora tartean.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Nazioarteko erakundeen orientazioen arabera, ekoizpenerako erronka handienetako bat zera da, hazkundea BEGen emisioetatik bereiztea (13. GJHa). Horretarako, ikerketak eta berrikuntzak jarduera ekonomikoa sortzeko ingurune egokia sortzen dute. Nafarroako Teknologia Planek zentro teknologikoetarako eta ikerketa erakundeetarako laguntzak sustatzen dituzte, orientabide horiekin elkarlaneko I+Gko proiektuak egiteko, SARS-CoV-2 birusari eta osasun krisiari buruzko ikerketa txertatzeaz gain. (5. GJHarekin ere lotuta dago, deialdietan genero berdintasuneko irizpideak txertatzen baititu). Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua lanean ari da 2030 Agenda modu integralean txertatzeko, eta GJHak kontuan hartzen dira Nafarroako I+G+B Sistemako (SINAI) sistemako eragileek I+G+B proiektuak landu, finantzatu, gauzatu eta ebaluatzeko.

Banda Zabalerako Plan Zuzentzailearen helburu estrategikoen artean, lurraldea egituratzea dago, eta, horrenbestez, lurralde desorekak murriztea Nafarroako herritarrek, enpresek, administrazio publikoak eta zentro teknologikoek banda zabaleko zerbitzuetarako duten sarbidean. Horrela, lagungarria da lurralde garapenerako, nahiz eta Planak ez dien berariaz jarraikitzen GJHei, baina bai, ordea, beste gobernu plan batzuei, hala nola Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari (S3). Biztanleriari konektibitatea emateko jarduerak zeregin estrategikoa izan du osasun krisian.

Azpiegituren arloan, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiko Zainketa Zerbitzuak (Lurralde Kohesiorako Departamentua) Nafarroako Errepide Sarea mantentzeko eginkizuna du. Zehazki, helburua azpiegitura mantentzea da, eta hori mesedegarria da erabiltzaileentzat, baita 11. GJHari eta 9. GJHaren 9.1 jomugari (Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura) jarraitzeko ere, irisgarritasun orokorrerako onuragarria izanik (Nafarroako Lurralde Estrategiaren lurralde printzipioa). Aipagarria da esku hartzeko urteko planari jarraikitzen diolako; izan ere, Zerbitzuaren eguneroko lana da, eta, beraz, helburua bere plangintzan txertatuta dauka, *«zerbitzuaren jarduteko ohiko moduan»* aldaketarik edo txertaketarik eragin gabe.

Nafarroako 2020 Industria Planak Nafarroako industria (barne produktu gordinaren % 30) indartzea bultzatu zuen, politika publikoen bidez. Politika publiko horien artean, honako hauek nabarmentzen dira aurrekontuetan: nekazaritzako elikagaien industrien inbertsiorako laguntzak, ETEen eta industria handien inbertsiorako laguntzak eta I+G+Brako laguntzak.

Plan horretan, kapitulu bat sartu zen finantza krisitik lehengoratzeko erronka gehigarri gisa, zirkulartasuna sartzea, alegia. Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalean, birziklatze enpresak industria enpresa gisa sartu eta inbertsiorako laguntzen onuradun bihurtu ziren. Nekazaritzako elikagaien industrietan, bestalde, efizientzia energetikoko jarduerak barne hartzen zituzten proiektuei eman zaie lehentasuna.

Industria indartzeko, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren sektoreak lehenetsi dira; horien artean, energia berriztagarrien industria nabarmendu behar da, non gure industriaren espezializazio handia mantentzea lortu baitugu.

Industria plan berrian trantsizio digital eta jasangarriari helduko zaio, eta industria sustatzeko politika publikoen leitmotiva bihurtuko da.

CEKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

2020an ez da GJH hori lortzearekin loturiko proiekturik finantzatu.

2030 AGENDARI JARRAIKITZEN DIOTEN ETA LANKIDETZAN OINARRITUTA DAUDEN I+GKO PROIEKTUEN LAGUNTZA ILDOA

Zentro teknologiko eta ikerkuntza erakundeetarako laguntzak, elkarlaneko I+G proiektuak gauzatzeko 2020an. Proiektuak baloratzeko irizpideen artean, «Nafarroak GJHak eta trantsizio ekologikoa lortzeko izan duen aurrerabideari dagokionez aurreikusitako emaitzen eragina eta ekarpena» hartu dira kontuan, bai eta, espezifikoki, «5. GJHa (genero berdintasuna) lortzeko bidean Nafarroak izan duen aurrerabideari gagozkiola aurreikusitako emaitzen eragina eta ekarpena» ere.

Baloratu eginen da, halaber, proiektua aztertu izana kontuan hartuz sexu generoaren alderdia, eta, hala ez bada, justifikatu beharko da zergatik ez den garrantzizko faktoretzat hartzen proiektuan. Bestalde, ez delako uste berrikuntza «berez helburua denik, gizarteak desiragarritzat jotzen dituen eta beste GJH batzuetan sartuta dauden helburu jakin batzuk lortzeko erabiltzen den bitarteko bat baizik».
Betekizun horrek erakunde eskatzaileak behartu egiten ditu beren ikerketak GJHei egiten dien ekarpenari buruz hausnartzera. Era berean, I+G+B Zerbitzuko proiektuak ebaluatzen dituen taldeak ikaskuntza prozesu bat egin behar izan du ebaluazioa alderdi tekniko-zientifiko hutsetatik haratago zabaltzeko.

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua. I+G+B Zerbitzua
Itunak/lankidetzak	Nafarroako I+G+B Sistemako eragileak: unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak.
Hartzaileak	Toki eta eskualde entitateak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	5 GENERO BERDINTASUNA

10

DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Herrialdeetan eta herrialdeen artean desparekotasunak murriztea.

Adierazleek ez dute COVID-19aren eragina islatzen, 2018rako eta 2019rako eskuragarri baitaude kasurik onenean. Urte horretan, adibidez, oraindik ere behera egin zuen pobrezia arriskuan zegoen biztanleriak, bai foru mailan, bai estatu mailan; EBn, ordea, mantendu egin zen datu hori.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

10. GJHaren helburuek, besteak beste, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren eskumenak konprometitzen dituzte. GJH hau oso lotuta dago beste helburu batzuetan jasoriko jomugekin, eta COVID-19aren pandemiak izan duen efektu globalaren deskribapena ere komentatu izan da, desparekotasunen hazkundea izanik horren emaitza nagusia. Ikusi den bezala, 5. GJHarekin ez ezik, bizi kalitatearekin lotutako alderdi guztietan (giza eskubideak, enplegua, lana) aukera berdintasunarekin erlazio kontzeptuala duten beste helburu batzuekin ere lotuta dago harreman hori, edo, Chivite lehendakariaren hitzetan, Oinarrizko Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren (4. GJHa) alde egiten denean, **«gizarteratzeko bide»** gisa; hau da, bazterkeria saihesteko eta ikasleei aukera bat emateko bide gisa.

COVID-19aren krisiak, deskribatu dugunez, eragin handia izan du helburu horretan, eta Nafarroako Gobernuko zerbitzuek aparteko lana izan dute kolektibo zein pertsona kalteberak identifikatzen, euren ekintzak epe laburrera egokitzeko, eguneroko zereginean, alegia. Oro har, zerbitzu guztiek aipatzen dute beren estrategiak –eta ondorioz, 2030 Agenda– abiarazteko zailtasun nagusia aurrekontuena dela. Kasu horietan, gainera, kolektibo kalteberek, dituzten baldintza pertsonalak direla-eta, ez dute oinarrizko eskubideengatik esleituta izan beharko lituzketen oinarrizko prestaziorik jasotzeko aukerarik. Pertsona horiek diskriminazioak gehitzen badituzte (*«migratzailea gehi: adingabea; emakumea; desgaitasunen bat duen pertsona; adinekoa; orientazio sexual eta genero identitate ez-normatibokoak; administrazio egoera irregularrean dagoena, etab.»*), kalteberatasuna eta desabantaila egoerak areagotzen dira.

Babes sozialerako sistemak, dituen elementu eta baliabide ugariekin, gizarte inklusiboak sustatzeko helburu orokorrari erantzuten dio (16. GJHa), eta Nafarroako zerga sistemak, gainera, diru-sarrerak bermatzeko baliabide horien kudeaketa errazten du: Errenta Bermatua, aparteko eta gizarte larrialdiko laguntza ekonomikoak, kotizazio gabeko pentsioak eta alarguntasun eta erretiro pentsioengatiko kenkari fiskalen sistema, eta abar. Horiek guztiak Gizarteratze Plan Estrategikoan (2018-2021) ere deskribatu ditugu.

Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzaren Estrategia (2021-2026) onespen prozesuan dago, eta esplizituki jarraikitzen dio 2030 Agendari (bidalitako inkestaren arabera, *«2030 Agenda eta haren GJHak esparru politiko gisa osorik eta zeharka bultzatzea du oinarri eta helburu»*), Nafarroan –gizarte anitz eta askotariko batean– desparekotasunaren aurkako eta aukera berdintasunaren eta bizikidetzaren aldeko ekintza gauzatzeko uste osoa baitago. Eta pertsonen arteko harreman esparru berri bat definitzera garamatza. Esparru horretan, berdintasuna, elkarrekintza, aniztasunaren onarpena, kidetasun sentimenduaren sorrera eta balio partekatuak funtsezko elementuak dira herritartasun berri bat eratzeko.

Pertsona Migratzaileei Harrera Egiteko Nafarroako I. Plana (2021-2026) onespen prozesuan dago, baina Nafarroako Foru Komunitateak aurrerabide ekonomiko eta sozialaren, desparekotasunaren aurkako borrokaren, gizarteratzearen eta Nafarroako gizartearen aniztasunaren bizikidetzan ere aldeko bidean aurrera egiteko konpromisoaren barruan kokatzen da, kulturarteko ikuspegiaren aldeko apustua indartuz betiere: herritar guztien arteko bizikidetza hobetzea. Planak 2030 Agendari

jarraikitzeari buruzko kapitulu espezifiko bat aurkezten du, kontzeptualki ez ezik, lehentasunezko ekintza ildoen ikuspegitik ere bai. Plan honetan nabarmentzekoa da jatorriz onartzea ezinbestekoa dela beste zerbitzu batzuekin lankidetzan aritzea, lehenik eta behin, plana eratzeko, eta geroago, plana gauzatzeko, eta, gainera, 2030 Agenda ezarri da: 8.5 eta 8.6 jomuga: egoera irregularrean dauden pertsonentzako prestakuntza (Hezkuntza eta Nafar Lansarea); 8.7 jomuga: Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin lan egitea salerosketa gaietan; 8.8 jomuga: lan eskubideak lantzea, Nafar Lansarearekin eta sindikatuekin; 10.3 jomuga: Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin berdintasuna lantzea: 10.7 jomuga: atzerritartasunarekin eta ministerioekin lan egitea; 11.1 2030 jomuga: etxebizitza izateko aukera Etxebizitza Departamentuarekin lantzea. 16.6. jomuga: Poliziarekin lan egitea. 16.7 jomuga: Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin lan egitea.

10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

DAVID PROGRAMA

Programak etxebizitza eskuragarrirako sarbide erraztu nahi du, bai eta etxebizitza horretan jarraituko dela ziurtatu ere. etxebizitzarik ez duten, SARA indizea bider 1,7 baino txikiagoko diru-sarrera familiar haztatuak dituzten eta hilean 650 euro arteko errenta duen etxebizitzaren bateko maizterrak diren pertsona eta familientzat da. Horren adierazgarri gisa, pertsona guztientzako babes sozialerako neurri egokiak praktikan jarri dira, kolektibo kalteberenen estaldura zabal bat lortzeko.

2021/10/01ean, 1298 familia unitate onuradun existitzen ziren, 2207 adingabe zituzten ardurapean, eta familia onuradunen % 43 baino gehiago guraso bakarreko etxeak ziren.
Familiek 300 eurorainoko laguntza ekonomikoa jasotzen dute hilean alokairua ordaintzeko. Baina ez da dirulaguntza bat, kuota diferentzialeko kenkari fiskal bat baizik. Beraz, errenta negatiboaren gaineko benetako zerga gisa eratzen da, eta, horregatik, DaVid programa baliabide berria da etxebizitza eskuragarrien politikei aplikatutako zerga politikarako.

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua - Etxebizitza Zerbitzua
Itunak/lankidetzak	Nafarroako Zerga Ogasuna Gizartera Inklusiorako eta Gutxiengoei Arreta Emateko Atala Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak. Etxebizitzaren Arloko Gizarteratze Taldea Pobreziaren aurka borroka egiten duten gizarte entitateak.
Hartzaileak	Nafarroako etxebizitza babestuen eskatzaileen erroldan antzinatasun jakin batekin izena emanda egonik, etxebizitzarik ez duten, SARA indizea bider 1,7 baino txikiagoko diru-sarrera familiar haztatuak dituzten eta hilean 650 euro arteko errenta duen etxebizitzaren bateko maizterrak diren pertsonak/familiak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK
Argibide gehiago	DAVID - navarra.es

10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

1 PROIEKTUA BOLIVIAN | **102.000** EUROAK

HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.

Adierazleen bilakaera positiboa izan da 2019-2020ra arte. Estrategia gehienek 2030 Agendari jarraikitzen dioten eskualde ikuspegi bat dute. Barne ikuspegian, ordea, egoera ez da aldatu.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Azken urtean 11. GJHari jarraikitzen dioten plan estrategiko asko txertatu dira, eta maila espazial eta sektorial guztietan, gainera.

2030 Agendan eta Nafarroako Lurralde Estrategiaren berrikusitako bertsioan, estrategikoak izaki, honako hauek bat egiten dute: batetik, hainbat politika diseinatzeko eta berritzeko lanean lankidetza eta koordinazio horizontal eta bertikalean aritzen laguntzeko interesa; bestetik, horien planifikazioan parte hartzea; eta azkenik, horien kudeaketa publikoa egitea, jarraitutasuna emate aldera, Nafarroako Foru Komunitatearen garapen jasangarriaren zerbitzura betiere. Horiek lortzeko, baterako plangintzako baliabide bihurtzen ahal da, hiru alderdiak baitituzte helburu, **funtsezko xedeak** izanik **desparekotasunak zuzentzea** eta planetaren eta pertsonen **garapen integratzaile eta jasangarria**, bakea, elkartasuna eta abar. bermatzea.

Hori lortzeko, ahalegin etengabeak, sendoak eta iraunkorrak egin behar dira askotariko eragileen artean, Estatua eta haren erakundeak, sektore pribatua eta gizarte osoa barne hartuta. Baina 2030 Agendaren eta Nafarroako Lurralde Estrategiaren arteko gainezarpena erabatekoa da, aipaturiko izaera estrategikoagatik ez ezik, jomugak eta GJHak ezartzeak lurraldean duen eraginagatik ere bai. Lurraldea ez da soilik leku baten mugaketa geografikoa; kontua da nola zehazten den leku horretan dauden baliabideen gaitasuna, nola kudeatzen diren baliabide horiek efikaziaz eta nola ezartzen diren horiek erabiltzekoa arauak guztion onurarako (Espainiako konstituzioa).

Lurralde eta hirigintza antolamenduaren arloko ikuspegi «sektorialetik», aurreko jarraipen txostenean kontuan hartu ziren Nafarroako plangintza sistemari buruzko zenbait gogoeta, eskualde mailan (Nafarroako Lurralde Estrategia) ez ezik, alderdi zehatzagoetan ere bai, hala nola Etxebizitza Plana.

Etxebizitza arloko VII. kontrol eta ikuskapen plana (2021 eta 2022rako Ekintzak) eduki tekniko handiko plana da baina ez du 2030 Agenda aipatzen eta ez dio horri jarraikitzen. Hala ere, Etxebizitza Plana 2018-2028 delakoan ezarritako ekintza bat da, eta 2020ko jarraipen txostenean jada aintzat hartu zen politika sektorial batek 2030 Agendarekin eta Gobernuaren plan eta programa guztiei jarraikitzearen adibide gisa. Dituen eskumenak gauzatuz, Zerbitzuak arreta berezia jartzen du biztanle guztientzako etxebizitza eskuragarria bermatzeko, bizigarritasun, irisgarritasun eta efizientzia energetikoaren oinarrizko parametroak beteko dituena eta auzo inklusibo eta anitzetan txertatuko dena, ghettoak sortu gabe betiere. Pobreziaren aurkako borrokarekin lotuta (1. GJHarekiko lotura), ekintza espezifikoak daude, hala nola Etxebizitza Zerbitzuaren «HOUSING FIRST» programa, zeinak 11.1 jomuga (pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak eskuratu ditzaten ziurtatzea) lortzen laguntzen baitu; bost etxebizitza bideratu dira (eta laster beste bat bideratuko da) programa horren bidez, eta berehalako ondorio gisa, sei pertsona atera dira kaletik, pertsonei lagun-egite soziala egiten dieten hitzarturiko gizarte entitateen bidez (GKE). Etxerik gabeko pertsonen kolektibo horrek hobekuntza nabarmena izan du, autonomia pertsonalari eta bizi kalitateari dagokienez, eta duintasun pertsonala itzuli zaie, kontuan izanik erraza dela duintasun hori galtzea etxerik gabe bizitzean.

Nafarroako Azpiegitura Berdearen Estrategia ere eskumen esparru horretan dago, eta «printzipio honetan oinarritzen da: naturaren eta prozesu naturalen babesa eta balorizazioa; gainera, gizarteak naturatik lortzen dituen onura ugariek modu kontzientean egiten dute bat plangintza espazialean eta lurralde garapenean» (Azpiegitura berdea: Europako kapital naturalaren hobekuntza). Estrategiaren alderdi kontzeptualean eta metodologikoan, lurraldearekin eta jasangarritasunarekin lotuta badago ere, ez dago 2030 Agendarekin lotuta eta ez dio hari jarraikitzen. Nolanahi ere, Estrategiaren jarraipen fasean (9. Jarduera ildoa) adierazle koherenteak ezarriko dira, gutxienez, jarraikitzen ziela ulertutako GJHekin: 3.a, 6.a, 11.a, 13,a eta 15.a.

Garraioak eta mugikortasunak ere 11. GJHaren jomugei jarraikitzen diete. Aurreko txostenean Mugikortasun Jasangarriaren Planaren lotura aztertu zen. Plan horren garapen gisa, Nafarroako Mugikortasun Aktiboaren Plan Zuzentzailea 2022-2030 idatzi da, zeina, alabaina, ez baitago lotuta GJHei (izan ere, Planean ez dira GJHak aipatzen).

GJH horri lotuta daude, hain zuzen, 2020an idatzitako bi plan estrategiko. Lehenik eta behin, Foruzaingoaren Plan Estrategikoa (2020-2023) aipatzen da, zeina ez baitzaie GJHei berariaz lotzen. Baina, inplizituki, pertsonen eskubideak eta ingurumena babestearekin lotuta dago (natura eta kultura ondarea barne), eta, beraz, 11. GJHarekin, giza kokaguneen eta leku publikoen segurtasunarekin lotutako helburuetan. 5.2 jomugarekin (Emakume guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea) ere lotuta egonen litzateke, bai eta 8.7 eta 8.8 jomugekin (lan eskubideekin eta pertsonen salerosketarekin lotuak) ere. Dagoeneko adostuta dauden adierazleekin ere lotzen dira, hala nola trafiko istripuekin (3. eta 11. GJHak) eta bizileku eremuan bakarrik ibiltzean seguru sentitzen diren hamasei urtetik gorako pertsonen proportzioarekin (16.1.4.1) erlazionaturikoekin. Era berean, jasangarritasunaren definizioa aldatzea iradokitzen da, hau da, «erakundearen baliabideak arduraz erabiltzea».

Beste planak, Nafarroako Suhiltzaileen 2020-2023 Plan Estrategikoak GJH horri jarraikitzen dio 11.5 jomugari dagokionez (larrialdiak kudeatzea eta hondamendien ondorioak murriztea). Haren neurketa adierazlea 13. GJHarekin (heriotzak hondamendietan) eta 3. GJHarekin (heriotzak trafiko istripuetan, 11. GJHarekin batera) partekatuta dago beharbada. Hala ere, Plana idaztean ez da 2030 Agenda aipatzen, eta ez da dagokion irudi korporatiboa agertzen.

Tokian-tokian, Nafarroako Gobernuak, Tokiko Agenda 21 eratzeko laguntzetarako deialdiaren bidez, 2030 Agendaren edukiarekin duen loturari buruz laguntzen jarraitzen du, eta GJHei dagokienez egituratutako toki planak eratzea sustatzen da. TA21en jatorriak irismen globala ere badu, Nazio Batuen orientabideak jasotzeaz gain (Lurraren Gailurra, Rio de Janeiron, 1992an eta Aalborgeko Gutuna 1994an). 2020an, sei TA21 eratu dira, biztanleriarekin partaidetzarekin eta toki erakundeek hitzartuta, eta tokiko ekintza planak abiarazteko diruz lagundutako hirurogei jarduketa gauzatuta.

Azkenik, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren bisorea k (2017-2023) 2030 Agendari jarraikitzen diola nabarmendu behar da, bai eta jarraipena egiten zaiola ere. Lagungarria da jasangarritasunaren kultura (4. GJHa) sormen eta kultura sektorean, jarduera-programatzaileen eta herritar guztien artean zabaltzeko. Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren ekintzak beste jomuga batzuekin ere lotzen dira, hazkunde ekonomiko inklusiboa eta jasangarria, enplegua, jarduerak eta ekoizpena sustatzen baitituzte, generoen arteko erabateko berdintasunean funtsaturik betiere.

JARDUNBIDE EGOKIA

HIRIGINTZA COVID-19AREN GARAIAN: GUNE PUBLIKOETAN BIZITZEA ETA HORIEK ERALDATZEA

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

2020an, osasun larrialdiak nabarmen irauli zituen bizi gareneko inguruneekin loturiko lehentasunak, bai eta horien diseinua ulertzeko modua ere. Osasunak eta zainketek protagonismo handiagoa hartu dute, eta agerian geratu da berriz pentsatu behar dugula horiek nolakoak diren, baita geure gune publikoak, etxebizitzak, hiriak eta herriak nola planifikatzen ditugun ere.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentua/Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia
Itunak/lankidetzak	Artaxoako Udala eta Tafallako Udala.
Hartzaileak	Hiriguneetan bizi diren pertsona guztiak
Argibide gehiago	https://www.navarra.es/eu/web/encuentrosurbanismo2020

2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuek orain arte urrutitik eta etorkizunera begira ikusten ziren erronka globalen esparrua finkatzen dute, baina COVID-19ak agerian utzi du larriki izan behar ditugula Hiri eta Erkidego Jasangarriak (11. GJHa), larriki bizi behar ditugula halakoak, eta larriki bizi behar garela halakoetan. Beraz, administrazioek ezinbestean ikusi dute etxebizitzan, gune publikoetan, hiri antolamenduan eta horiekin loturiko esparruetan dauden erronkei aurre egiteko garaia iritsi zaigula.
«Hirigintza COVID-19aren garaian» izeneko ekintza, izan ere, administrazioak, herritarrak, profesionalak eta alor horretako adituak elkartuta, hirietako guneei eta, etorkizunean, horiek arautzeko erregelak hobetzeari begira hiria elkarrekin birpentsatzeko prozesu horren parte izanen litzateke.
Zehazki, «Hirigintza COVID garaian: espazio publikoak bizi eta eraldatu» topaketa 2020ko irailean egin zen Tafallan eta Artaxoan, eta hausnarketarako gune gisa planteatu zen. Bertan, hainbat jarduera programatu ziren (onlineko partaidetza bildu zuela): hiri kontakizunak, hitzaldiak adituekin, partaidetzan oinarrituriko baterako diseinurako tailerra eta inguruko gune publikoetan egindako ibilbideak.
Topaketek askotariko materiala sortu dute, topaketaren webgunean jaso da material hori, eta guztia laburbiltzen duen argitalpen bat ere egin da. Hori baliagarria izan da jasangarritasuna eta zainketak hein handiagoan biltzen dituzten hiri, herri eta lurraldeetarantz igarotzeko moduari buruzko alternatibak ikusarazteko eta esploratzeko; halaber, esperientzia, jardunbide egoki gisa erabili eta erreplikatu da, Nafarroako beste toki batzuetan herritarren partaidetzako ekintzak abiarazteko.

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

3 PROIEKTUAK | **3** HERRALDIAK | **267.941** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOAK	PROIEKTUAK
11.1 JOMUGA 2030erako, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki, seguru eta eskuragarriak izanen dituztela bermatzea eta auzo marjinalak hobetzea.	239.941,00	2
MAURITANIA	119.942,00	1
RUANDA	119.999,00	1

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOAK	PROIEKTUAK
11.C JOMUGA Babesa ematea aurrerapen txikieneko herrialdeei, laguntza finantzario eta teknikoaren bidez, eraikin jasangarriak eta sendoak eraiki ahal izan ditzaten, tokiko materiala erabiliz.	28.000,00	1
HERRI SAHARARRA	28.000,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**267.941,00**	**3**

12

EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

Kontsumo eta ekoizpen jasangarrietako modalitateak bermatzea.

GJH hau oso lotuta dago herritarren artean jasangarritasunaren kulturaz sentsibilizatzearekin.
Hala ere, adierazleek bilakaera negatiboa izan dute azken urtean.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Administrazio publikoek arautze ekintzen bidez (legeak eta estrategiak), lagun egiteko ekintzen bidez (dirulaguntzak eta laguntzak) edo zuzeneko ekintzen bidez (kontratazio publikoa) esku hartzen dute helburu horretan.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzeko Foru Legearen Aurreproiektuak ez dio berariaz jarraitzen 2030 Agendari, baina hau biltzen du: *«Era berean, eskubide sorta bat aurreikusten da arauan, eskubide sortu berriak izendatzen direnak, haietako asko garapen jasangarriaren helburuekin bat datozenak, hala nola: garapen jasangarria sustatuko duen kontsumo arduratsurako behar diren baldintzak ekar ditzakeen ingurumen osasuntsua izateko eskubidea; elikagai burujabetzarako eskubidea, merkaturatze zirkuitu laburretan banatzen diren bertako eta sasoian sasoiko produktuen kontsumoarekin eta kontsumo arduratsuarekin lotuta, elikagaiak eta oinarrizko baliabideak alferrik galtzearen prebentzioan oinarrituta; funtzionaltasun bermerako eskubidea, ondasun edo zerbitzu orotan espero den balio-bizitzaren zikloarekin bat, eta produkzio eta kontsumo eredu etiko eta jasangarrien bidez lortutako ondasunak edo zerbitzuak izateko eskubidea»* (zion azalpena); halaber, kontsumo arduratsu eta jasangarriari buruzko xedapen ugari daude, eta 12. GJHari jarraikitzen dio horrek (12.1 eta 12.8 jomugak). Jasangarritasunaren eta kontsumo efizientearen barnean kulturarekin lotuta dauden alderdiek ere aukera ematen dute hura bigarren mailan lotzeko 4.7 (hezkuntza) eta 8.4 (lana) jomugekin, hurrenez hurren.

Nafarroako Hondakin Plana (2017-2027) 12.5 jomugaren araberakoa da eta ekonomia zirkularraren printzipioei jarraitzen die: *«plan honen helburua da Nafarroako gizartea, etorkizunean, erreferentziakoa izatea hondakinen arloko prebentzioan eta murrizketan, birziklapenean, kudeaketa publikoaren lidergoan eta kalitateko enplegua sortzeko gaitasunean»* (jarraipen txostena). Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoak 14/2018 Foru Legearen xedapenak eta plana bera ezartzea sustatu du, hainbat programa eta neurriren bidez: administratiboak, hala nola hondakinak –bereziki industrialak– lekualdatzeko kudeaketa telematiko estandarizatua; estrategikoak, hala nola materia organikoa eta EEHak –eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak– birziklatzeko helburuak betetzea; eta ekintza neurri zehatzak, hala nola elikagaien xahubidearen aurka borrokatzekoak edo Hondakin Funtsak behar bezala kudeatzekoak.

Hondakinen Plana gauzatzean, 2030 Agendaren helburu orokorrei eta beste GJH batzuen jomugei jarraikitzen dieten esku-hartzeak ere sartu dira: Berdintasun Plan bat, hondakinen sektoreko genero berdintasunari buruzko sei ekintza jasotzen dituena; eta hondakinen sektoreari buruzko Enplegu Plan bat, lau ekintzaren bidez garatu beharrekoa. Halaber, GKEekin hitzarmenak (17. GJHa) eta ikerketa proiektuak ezarri dira, eta azken urtean, COVID-19ari dagokionez, hondakin sanitarioen tratamenduaren ondoriozko protokoloak eta jarraibideak aktibatu dira.

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

2020an ez da GJH hori lortzearekin loturiko proiekturik finantzatu.

HONDAKINEI ETA HAIEN FISKALITATEARI BURUZKO 14/2018 FORU LEGEA ABIARAZTEA

Lege berritzailea da, Europako eta Estatuko araudiaren xedapenak jasotzen dituena, eta aurrerapauso handia dakarrena hondakinen prebentzioan eta murrizketan. Hauek lortu nahi dira horren bidez:

Hondakin sorkuntza PREBENITZEA, hondakin gutxiago sortzeko neurriekin.
GAIKAKO BILKETA, KALITATEZKOA, batez ere materia organikoarena (etxeko hondakinen % 40).
Hondakinen isurketa zigortuko duen eta Hondakin Funts bat sortuko duen SISTEMA FISKAL BAT GARATZEA, narriatutako eremuen prebentzioan, sentsibilizazioan, gaikako bilketaren hobekuntzan eta berreskurapenean inbertitzeko.
BATERATU ETA KOORDINATUTAKO GOBERNANTZA BAT, kudeaketa koordinatuagoa, eraginkorragoa eta kohesionatuagoa izanen den kudeaketa bat gauzatze aldera tartean dauden erakunde guztien artean.
Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoaz gain, beste ekintza zehatz bat da legeak 2022rako ezartzen duela hondakin biologikoen gaikako bilketaren (gaur egun, % 84koa) hedapen osoa, eta hondakin biologikoen eta beste frakzio batzuen gaikako bilketan aitzindariak izan diren Autonomia Erkidegoetako bat dela.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzua Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoa.
Itunak/lankidetzak	Legeak gobernantza mekanismoak, baliabideak eta prozedurak ezartzen ditu, Jaurlaritzaren beste zerbitzu batzuekin eta toki erakundeekin eta erakunde sozialekin lankidetzan aritzea eskatzen dutenak.
Hartzaileak	Gizarte osoa
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	
Argibide gehiago	http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=50281 https://oprec-navarra.com/

13

KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Presako neurriak hartzea klima-aldaketari eta haren eraginei aurre egiteko

KLINa Klima Aldaketaren Bide Orriari jarraikitzen badio ere, egokitzapen politika batzuen diseinua eta aplikazioa kontuan hartuta, adierazleek ez dute bilakaera positiborik izan azken urtean.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

KLINa Klima Aldaketaren Bide Orriarekin gainezarrita, LIFE-IP NAdapta-CC proiektua: Nafarroan Klima-aldaketara Moldatzeko Estrategia Integratua (2017-2025) Nafarroak klima-aldaketari aurre egiteko nazioarteko konpromisoari egiten dion ekarpenaren parte da. Nafarroako Gobernuak koordinatzen du, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) eta enpresa publikoek parte hartzen dute bazkide gisa. Enpresa horiek beren ekintzak gauzatzen dituzte: Ikuskapena; egokitzapen neurriak bost sektoretan: 1. Ura. 2. Basoak. 3. Nekazaritza eta abeltzaintza. 4. Osasuna. 5. Azpiegiturak eta lurralde plangintza; parte-hartzea, gaitasun estrategikoak eratzea eta gobernantza; Transferentzia eta erreplikagarritasuna. Proiektuaren helburua Nafarroak klima-aldaketaren aurrean egokitzeko duen gaitasuna handitzea da, sektoreartekotasunaren, epe luzerako jasangarritasunaren, parte-hartzearen eta sareetako lanaren bidez. Proiektu honen helburua zera da, klima-aldaketaren aurkako borroka bateratzea sektore politiken programazioan eta garapenean.

Klima-aldaketaren arloan eginiko lanak erakusten ari dira departamentuarteko koordinazioa beharrezkoa dela 2030 Agendaren arloan, 2020an 3., 4., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13. eta 17. GJHekin lotutako jarduerak egin baitziren. Hala ere, herritarrek eta administrazio publikoetako teknikariek ez dakite *«zenbaterainokoa den egunez egun egiten diren jarduera guztien garrantzia».*

HCCN-KLINa Bide Orriaren aurrerapenaren etengabeko jarraipena eta azterketa egiten da, klima-aldaketaren ehun adierazle baino gehiagoren bidez, hainbat jarduketa arlotan, eta KlinaBerri buletinak intereseko beste esparru batzuetako albisteak eta ikerketak biltzen ditu, teknikariei eta, oro har, herritarrei informazioa emateko.

Halaber, klima-aldaketaren aurkako neurri ugari diseinatzerakoan, talde kalteberak aztertu eta aintzat hartu dira, eta, beraz, beste GJH batzuen beste jomuga batzuekin ere erlazionatzen dira neurri horiek: Osasun arloan, bero boladen kanpainetan (3. GJHa); eraikitako ingurunean egokitzeko jarduerak, identifikatutako gizarte kalteberatasuneko arriskua duten auzoak gizarteratzen eta berroneratzen lagunduz (5., 10. eta 11. GJHak).

Klima-aldaketaren eta jasangarritasunaren arloko sentsibilizazioa funtsezko ardatza da, halaber, LIFE-IP NAdapta-CC (4. GJHa eta 12. GIHa) garatzeko eta Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Foru Legearen aurreproiektua arau bidez garatzeko. Horrez gain, jarraipeneko, partaidetzako, gaitasun estrategikoak eratzeko eta informazioa eskuratzeko gobernantzako ehun adierazletik gorako zehaztapena ere biltzen du (17. GJHa), klima-aldaketarako egokitzapenari jarraipena egiteko web-atari baten bidez.

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

2020an ez da GJH hori lortzearekin loturiko proiekturik finantzatu.

LIFE-IP NADAPTA-CC PROIEKTUA, «NAFARROA KLIMA ALDAKETARA MOLDATZEKO ESTRATEGIA INTEGRATUA»

LIFE-IP NAdapta-CC Proiektuak –«Nafarroa Klima Aldaketara moldatzeko estrategia integratua» delakoak– Nafarroa klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriak proposatzea du helburu, 53 garapen ekintzatan zehaztua oinarrizko sei eremu estrategikotan: ura, basoak, nekazaritza eta abeltzaintza, osasuna, azpiegiturak eta plangintza eta ikuskatzea, eta transferentziarekin, ezarpenarekin eta erreplikatzearekin lotutako beste arlo batzuk, bai eta hainbat politika sektorialetan txertatzea ere, klima-aldaketaren ondorioei buruzko ezagutza txertatzeko haren programazioan eta garapenean.
Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orriaren (HCCN-KLINa) barruan sartzen da, klima-aldaketa ezagutzeari eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak abian jartzeari dagokienez.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzua.
Itunak/lankidetzak	Nafarroako Gobernuko departamentu guztian biltzen dituen zeharkako jarduketa.
Hartzaileak	Gizarte osoa
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	2 GOSERIK EZ 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA 6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA 9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK 15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA
Argibide gehiago	https://lifenadapta.navarra.es/eu/

14

ITSASPEKO BIZITZA

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak garapen jasangarriaren irizpidetik zaintzea eta erabiltzea.

Nafarroak ez du GJH horrekin lotutako politika publikoa sartzen duen kosturik edo eskumenik. Alabaina, Foru Komunitatean askotariko ekintzak gauzatzeko dira, hala nola plastikoen berrerabilera eta birziklapena, urpeko bizitzaren egoeran zuzeneko ondorioak dituztenak.

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Lur ekosistemen erabilera jasangarria babestea, lehengoratzea eta sustatzea, oihanak jasangarritasunez kudeatzea, desertifikazioari aurre egitea; lurren hondatze bidea galaraztea eta itzulikatzea eta biodibertsitatearen galbidea geraraztea.

Departamentu eskudunak urtero argitaratzen du «Nafarroako Ingurumen Profila», ingurumenaren egoera eta bilakaera laburbiltzen dituena. GJHekin eskudun diren gaiak bildu ohi ditu dokumentu horrek. Kontserbazioaren, ekosistemen eta natura ondarearen arloko adierazleen bilakaera egonkorra da.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

LIFE-IP NAdapta-CC proiektutik lortzen ari diren emaitzak ikusita, komenigarria izanen litzateke klima-aldaketaren, landa garapenaren eta lurralde antolamenduaren arloko politika zenbait politikak 15.3 jomugari jarraikitzea: «Basamortutzearen aurka borrokatzea, lur eta lurzoru narriatuak birgaitzea, baita basamortutzeak, lehorteak eta uholdeek eragindako lurrak ere, eta lurraren narriadura neutroa duen mundu bat lortzen saiatzea»; izan ere, Nafarroak gaitasuna du lurzorua babesteko eta basamortutzea saihesteko, neurri egokiekin eta presazko ekintzarekin ingurunearen kudeaketa egokitzailearen arloan.

Nafarroako Basogintza Agenda (2019-2023 ekintza programa) delakoak ez dio jarraikitzen 2030 Agendaren helburuei; alabaina, hona hemen biltzen dituen asmoetako bat: *«ahalik eta ingurumen, ekonomia eta gizarte onura gehien sortu nahi ditu, modu orekatuan, aldi berean haien babesa bermatuz; herritarren bizi kalitateari eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapen jasangarria babestuta, nola toki mailan hala mundu mailan»*. Halako adierazpenek aukera ematen dute *«Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) eta baso kudeaketa jasangarriaren arteko lotura oso estuekin»* aurkezteko, Nafarroako Gobernu Irekiaren ekintza loturan adierazten den bezala.

LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren esparruan, uholde arriskuko planak egin dira Nafarroako hainbat udalerritan, herritarrei zuzendutako autobabes planekin eta IKTak txertatuz larrialdiak kudeatzeko neurrietan. Konfederazio Hidrografikoek zehaztutako uholde gainazalak eta horiek IDENAn duten isla eguneratu dira. Aurreikuspenen arabera, diagnostikoa eta arrisku planak zabalduko dira kontu osoan, Ebro Resilience Estrategiaren bidez. Estrategia horrek LIFE proiektu bat bultzatu du jarduerak zehazteko, Trantsizio Ekologikoko Ministerioak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak bultzatuta.

2020ko jarraipen txostenean Nafarroa Ezagutu Sarea nabarmendu zen, 2030 Agendari jarraikitzeko gidaliburua izanik. Bere jardueran, eta Nafarroako naturaguneak, gune bereziak eta ibilbideak kudeatzen dituzten toki entitateek, erakundeek eta pertsonek eskatuta sortu ondoren, eragile horiek lotu egiten ditu *«modu jasangarrian kudeatzeko gune horiek»*, beren *«lurralde ingurunean, tokiko biztanleria barne, hiru ardatzetan: ingurumena, gizarte kultura eta ekonomia»*.

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

2020an ez da GJH hori lortzearekin loturiko proiekturik finantzatu.

JARDUNBIDE EGOKIA

NATURAGUNEEN EDUKIERA KONTROLATZEKO APLIKAZIOA

Gune natural eta berezietarako –Nafarroa Ezagutu Sarearen ibilbide sarea– edukiera kontrolatzeko baliabidea. Nafarroa Ezagutu Sarearen webgunean kokatutako erreserba plataforma bat da. Sare horretan, edozein erabiltzailek du aukera ikusteko une horretan zenbateko edukiera dagoen interesatzen zaion gunean, aparkalekua erreserbatu eta online ordaintzen du.

Edukiera beterik badago, jende gutxiago biltzen duen beste gune bat iradokitzen du. Baliabide horrek masifikazioa saihesten du eta lagungarria da eskaintza dibertsifikatzeko. Baliabidea gune natural eta berezietarako –Nafarroa Ezagutu Sarearen ibilbide sarea– kudeatzaile eta bazkideen partaidetza foro batetik sortu zen, COVID-19agatiko konfinamenduaren garaian, halako guneetan segurtasuna bermatzeko, behin horietan jarduerari berrekiten zitzaionean. Gaur egun, oso baliabide erabilgarria dela uste dugu, bertara iristen den publikoaren kudeaketa arauturik ezaren ondorioak jasaten dituzten naturagune askoren pilaketa saihesteko.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Proiektu Estrategikoen Plangintza eta Garapenerako Zerbitzua
Itunak/lankidetzak	Naturaguneen eta ibilbideen kudeatzaileak. Toki erakundeak, irabazi-asmorik gabeko entitateak
Hartzaileak	Naturagune eta ibilbideak erabiltzen dituzten herritarrak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK 13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA
Argibide gehiago	https://redexploranavarra.es/eu/nafarroa-ezagutu-sarea/

BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

Gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea garapen jasangarrirako, justizia guztien eskura jartzea eta maila guztietan instituzio eraginkor, inklusibo eta kontuen berri emanen dutenak eraikitzea.

Aurreko txostenari dagokionez, GJH honekin lotutako ekintzek eta adierazleek hobekuntza txiki bat izan dute segurtasunaren arloan eta sistema judizialekin eta erakunde publikoekin lotutako erakundeetan.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Ikuspegi globala kontuan hartuta, Nafarroaren egoera oso finkatuta dago erakunde egituraketari, botere banaketari, administrazio publikoei, ustelkeriaren kontrolari, giza eskubideen errespetuari eta abarri dagokienez. Hala ere, GJH horren orientabideei jarraituz, bizikidetzaren, memoria historikoaren, parte-hartzearen, gardentasunaren, errefuxiatuei laguntzearen, laguntza humanitarioaren eta abarren arloan jarduten ari da, eta horrek indartu egiten du 2030 Agendak gobernu ekintzan dakarren konpromisoa GJH horri dagokionez.

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa onartzeke dago. 16. GJHarekin lotzen da hasieratik. Hamar orientabide nagusi edo indar ideia ezarri ditu, eta horiek, aldi berean, 2030 Agendaren beste jomuga batzuei jarraikitzen diete. Hurrengo eraketa etapetan interesgarria izan liteke erlazio horiek kontuan hartzea, batez ere ekintza zehatzak eta bizikidetzaren gobernantza adierazleak ezartzerakoan.

Hurrengo bi programekin izaniko esperientziek egiaztatzen dute zaila dela aniztasuna eta desparekotasun ekonomiko, kultural eta generokoak kudeatzea. Eta, era berean, benetako aukera berdintasuna azaltzea eta eskaintzea trantsizio guztietan (ingurumenekoa, soziala, teknologikoa, etab.).

«Bake eta Bizikidetzaren aldeko Toki Erakundeak» Programaren helburua zera da, Nafarroako Toki Erakundeetan bizikidetzarako, oroimenerako eta giza eskubideetarako ekimenak inplikatu eta garatzea. Horretarako, lankidetza teknikoko eta finantzarioko agertoki bat egituratzen da, aholkularitza espezializatuaren eta dirulaguntzen urteko deialdien bidez.

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoaren partaidetzaren esparruan, pandemiak areagotutako zenbait kasutan, hainbat pertsona talderen kalteberatasuna agerian geratu da: terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak; migratzaileak eta errefuxiatuak; egiturazko desparekotasun ekonomikoak eragindako pertsonak; diskriminazioa eta/edo indarkeria jasaten duten emakumeak; desgaitasunen bat duten pertsonak; presoak; ingurumen ez-garbian, ez-jasangarrian eta ez-seguruan bizi diren biztanlean.

Bake eta Bizikidetzaren aldeko Eskolak programa 2016az geroztik dago ezarrita; Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak lankidetzan ezarri zuten. Bakearen kulturaren, giza eskubideen eta bizikidetzaren inguruko tailerrak eta esperientzia jarduerak egiten dira, Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza ekintza osatze aldera. Tailerren eskaintza laurogei ikastetxetan egin da eta hogei mila ikaslerengana iritsi da. Familien eta irakasleen eskura ere badago. Ekimen hori Nafarroako Liburutegien Sarean hedatzen da, Bakea eta bizikidetza lantzen duten liburutegiak programarekin. Programa horrek aniztasuna eta aniztasuna errespetuaren oinarri gisa balioesten dituzten tailerrak proposatzen ditu.

Azkenik, Justizia Zuzendaritza Nagusiak Zigor Betearazpeneko eta Justizia Laheneratzaileko zerbitzuaren Ildo Estrategikoak landu zituen; dokumentu horretan ezartzen dira, hain zuzen, Zigor

betearazpeneko eta lehengoratze justiziako zerbitzuaren jarduera ardatzak 16.3 jomugari dagokionez: hain zuzen, zuzenbide estatua sustatzea maila nazionalean eta nazioartekoan, eta herritar guztiei bermatzea justiziarako sarbidea berdintasunez izanen dutela. Zigor betearazpenerako sistema konplexua da, eta gizarte eragile ugarik esku hartzen dute bertan. Beraz, horietako bakoitzaren eskumenak koordinatuko zituen zerbitzu bat behar zen, zigorrak gizarteratzera bideratuta egon daitezen lortzeko, eta, beraz, gizartea baketsuagoa eta inklusiboagoa izan dadin. Horrela, izaera sozialeko gatazka txikiak nolabait desjudizializatzera jotzen da, askatasunaz gabetzen ez duten zigorren betearazpena handitzera, hirugarren graduko sailkapenak faboratzera eta kolektibo kalteberei arreta berezia eskaintzera (osasun mentala). Gainera, Zigor Betearazpeneko eta Justizia Leheneratzaileko zerbitzua sortzea jardunbide egokia da, GJHen (jomugak eta adierazleak) lorpenean eragina duelako, eta eragileak koordinatzen dituelako, ezagutza partekatuan funtsaturik gizarteratze prozedurak (itunak) ezartze eta halakoei erantzute aldera. Ekintza zehatzak behar ditu, hala nola Hitzarmena Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiarekin, espetxeetako lantegi lehengoratzaileak egiteko. Zigor prozesuetan sartutako pertsonak gizarteko maila behartsuenetatik etorri ohi dira. Adikzioak dituzten, osasun mentalak pairatzen dituzten eta/edo gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen pertsonen proportzioa nabarmen handia izan ohi da halako prozesuetan.

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

ZIGOR BETEARAZPENEKO ETA JUSTIZIA LEHENERATZAILEKO ZERBITZUA

Nafarroan Zigor Betearazpenaren Ildo Estrategikoak lantzean, zigor sistemaren eta beste sistema batzuen (osasun sistema, gizarte zerbitzuak, enplegua etab.) arteko lotura ezarri ahal izan da. Zigorrak gizarteratzera bideratuta egon daitezen lortzeko, derrigorrezkoa da gure erakundeek arlo juridikoaren eta sozialaren koordinazioa gauzatzea. Gainera, auziak parte-hartzean oinarrituta eta denon artean ebaztearen alde egiteak, lehengoratze justiziako baliabideen bidez, gizarte kohesionatu eta baketsua sendotzen du.

Jardunbide egokia honako honetan datza: plan bat diseinatu da, politika publikoen gidaliburu dokumentu bat (Nafarroan Zigor Betearazpenaren Ildo Estrategikoak), partaidetza prozesu baten bidez, non gizarte zibileko, administrazio publikoko eta unibertsitateko eragileek parte hartu duten. Hori, berez, jardunbide egokia da, politika publikoak ezagutza partekatutik antolatzeko aukera ematen baitu. Baina, gainera, plan horren ondorioz, Zigor Betearazpeneko eta Justizia Leheneratzaileko zerbitzu sortu da, atal espezializatu gisa, zigor betearazpena birgizarteratzera bideratzeko beharrezko ekintzak koordinatzen espezializatutako atal gisa, bereziki pertsona kalteberenei dagokienez.

Hori bultzatzen duen departamentua/zerbitzua	Justizia Zuzendaritza Nagusia
Itunak/lankidetzak	Osasun Departamentua, Osasun Mentaleko Kudeatzailetza, Eskubide Sozialetako Departamentua, Organo judizialak
Hartzaileak	Zigor prozesuetan eta bitartekaritza prozesuetan sartuta dauden pertsonak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

7 PROIEKTUAK | **5** HERRIALDEAK | **872.306** EUROAK

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOAK	PROIEKTUAK
16.1 JOMUGA Nabarmen murriztea indarkeria mota guztiak eta heriotza-tasak mundu guztian.	196.921,00	1
KOLONBIA	196.921,00	1
16.2 JOMUGA Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria eta tortura mota guztiei	333.408,00	3
EL SALVADOR	93.408,00	1
PERU	240.000,00	2

JOMUGA/HERRIALDEA	ZENBATEKOAK	PROIEKTUAK
16.3 JOMUGA Zuzenbidezko estatua sustatzea estatu mailan nahiz nazioartean eta justizia eskuragarri izateko aukera-berdintasuna bermatzea denentzat.	239.977,00	2
GUATEMALA	119.977,00	1
LURRALDE PALESTINARRAK	120.000,00	1
16.7 JOMUGA Beharrei erantzunen dieten erabaki inklusiboak, partaidetzazkoak eta ordezkapenezkoak maila guztietan hartuko direla bermatzea.	102.000,00	1
EL SALVADOR	102.000,00	1
ORO HAR, GUZTIRA	**872.306,00**	**7**

17

HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA

Garapen Jasangarrirako Mundu Ituna suspertzeko eta aitzina eramateko bitartekoak sendotzea.

Eskura dauden bi adierazle multzoak kontuan hartuta, Foru Komunitateak zertxobait hobera egin du GJH horri dagokionez. 2020an, garapenerako laguntza ofizialari urte horretako aurrekontuaren % 0,28 eskaini zaio.

NAFARROAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Helburu horren irismenak oso ikuspegi kualitatiboa du. Hautatutako adierazleen ikuspegia oso kontzentratuta dago diruan, dute barne itunek eta itun globalek izaten ahal duten irismenari gagozkiola. Zerga sarrerekin, lankidetzara bideratutako zatiarekin edo esku-hartze publiko edo pribatu baten edo bestearen onuradun diren pertsonekin lotutako adierazleak dira. 17. GJHaren ikuspegi globalak zerikusi handia du garapen jasangarrian inor atzean ez uztearekin. Foru ikuspegi batean, eragina du erakunde publikoen esku-hartzearen eraginkortasunean, beste gizarte eragile batzuekiko itun publiko-pribatuen sustapenean, elkarteak bultzatuz, ikerketarako, ingurune akademikorako eta prestakuntzarako, berrikuntzarako eta teknologiarako, eta 2030 Agenda eragile horien guztien barne ekintzan sar dadin lagunduta.

Iazko txostenean Nafarroaren esku-hartzea duten nazioarteko hainbat saretan eta garapen jasangarriaren hiru alderdietako esparruetan izandako parte-hartzea errepasatu zen. Azken urte honetan plan estrategiko ugari sartu dira, baina bi nabarmentzen dira, barne itunak sortzeko duten gaitasunagatik.

Nabarmentzekoa da **Liburutegi Zerbitzuak** jasangarritasunaren kultura eta, bereziki, 2030 Agendaren ezagutza zabaltzeko egindako lana. Horretarako, honako jarduera hauek sustatu ditu:

- 1. «Nahi dugun mundua eraikitzeko liburuak eta liburutegiak»: ikastetxeei eta liburutegiei haurrentzako eta gazteentzako ikasgaien liburu eta DVDen sortak eta 2030 Agendako helburuei buruzko fikziozko lanak mailegatzeko proiektua. Helburuen edo gaien araberako sorta osoak eskatzen ahal dira edo, bestela, 17 helburuen inguruan lan soltez osaturiko nahierako sortak osatu.
- 2. Liburubusa. 800 bat dokumentutarako edukiera duen ibilgailu bat –furgoi luze bat– erosi da, eta liburubus gisa egokitzen ari da ibilgailu hori, Estellerrian liburutegi zerbitzu mugikorrak emate aldera.
- 3. 2020ko abenduaren 18an, Gernika-Lumoko Kulturetxeak GERNIKA K2K foroaren barruan antolaturiko «Liburutegi jasangarriak: herritarren guneak» webinarrean parte hartzea, GJHak kulturaren bidez sustatzeko.
- 4. GKEekin eta beste gizarte eragile batzuekin lankidetzan aritzea, erakusketa ibiltariak egiteko. Era berean, 2020an eta 2021ean, udako hilabeteetan, tailerrak programatu ziren Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan, balioetan, giza eskubideetan eta inklusioan oinarritutako erresilientzia lantzeko.
- 5. Irakurketa errazeko klubak bultzatzea.
- 6. Jardueren ebaluazioa, 2030 Agendarako begiradarekin.

Nafarroako Gobernu Irekiaren I. Plana (2021-2023 ekintzak)

Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko 12/2019 Foru Legearen eta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legearen garapen gisa egiten da. 16. GJHari eta 17. GJHari berariaz jarraikitzen dio, modu orokorrean bada ere. Baita 5. GJHari eta 10. GJHari ere. Alabaina, helburu estrategikoen kapituluan, ez ditu lotzen ez jomugak ez ekintzak, adibidez, bat datozen helburuekin: informaziorako eskubidea, teknologia eta digitalizazioa, parte-hartzearen erregulazioa, etab.

Gazteriaren III. Foru Plana (2021-2023 ekintzak) delakoak, bere deskribapenean, iragartzen du lanaren alorreko bere ardatzak GJHekin lotuko direla: hiru ardatz egituratzaile (auzolana, emantzipazioa eta horizontea) eta zeharkako lau ardatz (parte-hartzea; gizarteratzea eta aniztasuna; berdintasuna; lurralde kohesioa); hala ere, ez du esplizituki azaltzen nola eginen duen hori, eta ia GJH guztiekiko zerrenda grafiko huts bat baino ez du biltzen. 3. GJHari, 4. GJHari eta 8. GJHari jarraikitzen diela aipatzen du, baina 17. GJHa, adibidez, ez du aipatzen, planaren helburuak lortzeko koordinatu beharraz, zeharkakoa izan beharraz eta itunak ezarri beharraz sistematikoki hitz egiten duenean.

2021-2024 Kanpo Ekintzaren Planak bi baliabide aurreikusten ditu nola Europako hala mundu osoko beste eragile batzuekin itunak eta lankidetza formalizatzeko, Nafarroaren interes estrategikoak ikuskatzeko eta interpretatzeko: batetik, «nazioartekotze instituzionala», eta bestetik, «diplomazia paraleloa». Izan ere, Foru Komunitatearentzat garrantzitsuak diren informazio eta ekimen guztiak bildu nahi dira, bai eta funtsak eta aukerak biltzen lagundu ere, nola Europako hala munduko erakunde eta sareetan presentzia ofiziala sustatuz eta koordinatuz betiere. Planak ez ditu bere helburuak eta neurriak GJHekin lotzen, baina bidalitako inkestan adierazten denez, horiek guztiak «zeharkakotasun ikuspegi batean oinarriturik egin behar da (hots, Gobernuko departamentu guztiek parte hartuta), eta lankidetza publiko-pribatuari balioa emanez».

Egungo pandemiaren testuinguruan, nola barnean hala kanporantz aplikatzen ahal ditugu Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailea (2021–2024) delakoaren funtsezko hiru ildoak. (1) **biziak salbatzea**, osasun sistema nazionalak indartuz; (2) **pertsona kalteberenak babestea** eta haien eskubideak eta bizibideak berreskuratzea; eta (3) **sistema sozioekonomikoak babestea**. Hala, Nafarroako lankidetza «Nafarroako gizarteak historian zehar eta azpiegitura aldetik pobretutako herrienganako duen elkartasunaren agerkaria da». Mundu globalizatu honetan, eta 2030 Agendak berezkoa duen iparralde vs hegoalde dikotomiaren hausturarekin bat etorriz, herrialdeen artean ageri diren desparekotasunekiko elkartasunak eta erantzukizun partekatuak bideratzen dituzte gure lankidetza.

NAFARROAKO FINANTZAKETA JASANGARRIRAKO PROGRAMA

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA

Finantzaketa jasangarrian, lortutako funtsak proiektu berdeen eta GJHei lotutako gizarte proiektuen konbinazio bat finantzatzeko edo birfinantzatzeko baino ez dira aplikatzen.

Finantzaketa Jasangarrirako Esparru bat irekitzea eskatzen du, non hauek ezarriko baitira: funtsen erabilera, proiektuak ebaluatzeko eta hautatzeko prozesua, funtsen kudeaketa eta esleipenari eta inpaktuari buruzko txostenak. Hautatutako proiektuak GJHekin lotzen dira (hamabi proiektu motatan), eta aipaturiko proiektu horien inpaktu adierazleak jaso behar dituzte.
2020an, 2019an hasitako finantzaketa jasangarriaren aldeko apustua sendotu zen, hirurogeita hamabost milioi euroko bigarren bonu jasangarria jaulki baitziren.

Hori bultzatzen duen departamentua/ zerbitzua	Ekonomia eta Ogasun Departamentua
Itunak/lankidetzak	Nafarroako Gobernuko departamentu guztiak.
Hartzaileak	Herritarrak
Beste zein GJH lortzeko den lagungarria	
Argibide gehiago	Nafarroako Foru Administrazioaren zorpetzea - navarra.es.

EKARPENA GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN

2021-2024 Kanpo Ekintzaren Planak bi baliabide aurreikusten ditu Europako eta mundurako beste eragile batzuekin itunak eta lankidetza formalizatzeko, Nafarroaren interes estrategikoak ikuskatzeko eta itzultzeko. «Nazioartekotze instituzionala» eta «diplomazia paraleloa» dira bi baliabidea horiek, Foru Komunitatearentzat garrantzitsuak diren informazio eta ekimen guztiak biltzeko eta funtsak eta aukerak erakartzen laguntzeko, Europako eta munduko erakunde eta sareetan presentzia ofiziala sustatuz eta koordinatuz. Planak ez ditu bere helburuak eta neurriak GJHekin lotzen, baina bidalitako inkestan adierazten denez, horiek guztiak *«zeharkakotasun ikuspegi batean oinarriturik egin behar da (hots, Gobernuko departamentu guztiek parte hartuta), eta lankidetza publiko-pribatuari balioa emanez».*

Egungo pandemiaren testuinguruan, nola barnean hala kanporantz aplikatzen ahal ditugu Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailea (2021–2024) delakoaren funtsezko hiru ildoak. (1) **biziak salbatzea**, osasun sistema nazionalak indartuz; (2) **pertsona kalteberenak babestea** eta haien eskubideak eta bizibideak berreskuratzea; eta (3) **sistema sozioekonomikoak babestea**. Hala, Nafarroako lankidetza *«Nafarroako gizarteak historian zehar eta azpiegitura aldetik pobretutako herrienganako duen elkartasunaren agerkaria da»*. Mundu globalizatu honetan, eta 2030 Agendak berezkoa duen iparralde vs hegoalde dikotomiaren hausturarekin bat etorriz, herrialdeen artean ageri diren desparekotasunekiko elkartasunak eta erantzukizun partekatuak bideratzen dituzte gure lankidetza ekintzak.

6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

6.1. GARAPEN JASANGARRIAREN EGOERA OROKORRA NAFARROAN

Jasangarritasuna 2030era begira

Nafarroan, COVID-19ak eragina izan du GJHen lorpenean, nazioarteko, nazioko eta tokiko mailetan bezala (ikus 1. irudia). Pandemiak krisi sozial eta ekonomikoa ekarri du berekin, eta agerian geratu da kolektibo, jarduera, komunitate eta herrialde asko kalteberak direla. Gainera, agerian geratu da iraganeko hazkunde ekonomikoaren ereduek desparekotasuna faboratu dutela eta ez direla inklusiboak izan, baliabideen gehiegizko ustiapenean oinarritu direla, eta, hala, oreka naturalak bortxatu dituztela, bai eta berotze globala eta ondoriozko klima-aldaketa ere. COVID-19aren aurkako jarduera publikoak indarguneak eta ahuleziak dituela utzi du agerian, eta aukera ona izaten ari da garapen jasangarriari epe luzera heltzeko, 2030 Agendak eta hura ezartzeko jomuga duten Europako eta Espainiako estrategietan proposatzen den bezala (BET honen 2. eta 3. apartatuak).

---

1. gomendioa:

Horregatik, Nafarroarako Garapen Jasangarrirako Estrategia bat eratzea gomendatzen da, 2030era begira, haren hiru alderdien ikuspegi integral eta integratua, Europako jasangarritasun politikekin eta Espainiako Garapen Jasangarrirako Estrategiari jarraikita, eta Nafarroak gaur egun dituen plangintza estrategikoko baliabideekiko koherentziari eutsiz: (a) bai izaera globalekoak edo garapen jasangarriaren hiru alderdiak jorratzen dituztenak: Nafarroa Suspertu Plana, S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategia eta haren berrikuspena eta Nafarroako Lurralde Estrategia eta haren berrikuspena (b), bai izaera sektorialekoak –hiru alderdiei lotuak– (ikus Planen Eranskina).

GJHen egoera kuantitatibo orokorra Nafarroan

2019an, jasotako adierazle gehienen erreferentzia urtean (6. taula), garapen jasangarriaren alderdi sozialean izaniko aurrerapena erakusten digu (1., 2., 3., 4., 5., 10. eta 16. GJHak), Espainiako batezbestekoarekin alderatzen duen abantailari eutsiz bereziki. Alderdi ekonomikoak (7., 8., 9., 11. eta 12. GJHak) agerian uzten du aurrerapen arina izan duela egoerak edo, zenbait kasutan, bere horretan jarraitu duela –geldialdian dagoela–, baina Espainiako batezbestekoa baino abantailatsuagoa da egoera, nolanahi ere, Nafarroan. Azkenik, bildutako ingurumen-adierazleek (2, 6, 7, 11, 13 eta 15 GJHak) agerian uzten du aurrerapen egoera geldialdian dagoela, nahiz eta GJH horietako batzuek hobekuntza nabarmenak izan dituzten. Laburbilduz, gizarte industrial gisa ditugun ingurumen erronkei aurre egiteko baliagarri izan behar duen abantaila sozial eta ekonomikoa mantentzen jarraitzen dugu.

Etorkizuneko txosten batean eginen dela espero den bezala, 2020ko adierazle sozial eta ekonomikoek jaso eginen dute COVID-19aren eragina, BET honen 3. apartatuan deskribaturiko eran; alabaina, eta kontuan izanik arazo koiunturala dela, espero baino eragin txikiagoa izanen du ziurrenik pandemiak, txosten berriagoetan jasorik dagoen bezala; izan ere, maila eta eragile guztiek hartutako neurriek adierazleen narriaduran zuzenketa bat ere islatuko baitute.

---

2. gomendioa:

Egokitzat jotzen da gizarte politikei eustea, hazkunde ekonomikora bideratutakoak indartzea eta ingurumen jarduketei lehentasuna ematea. Ildo estrategiko horiek Nafarroako Garapen Jasangarrirako 2030 Estrategiaren parte izan beharko dute.

---

3. gomendioa:

Egokitzat jotzen da adierazleak urtero eguneratzen jarraitzea, nahiz eta urteko BET batera ez eraman; izan ere, adierazleen urte arteko aldaketak oso txikiak dira adierazle gehienetan, eta, beraz, ez dute aukerarik ematen GJHak lortu ote diren baloratzeko.

Departamentuen jardunbide egokiak

7. taulan ikusten denez, 17 GJHekin loturiko 35 jardunbide egoki jaso dira, non adierazten baita Nafarroako Gobernuko departamentuak jarduera jakin batzuk –GJHak lortzeko eragin handia dutenak– egiten ari direla, adierazleen bilakaerak adierazitakoa modu kualitatiboan modulatuz eta zuzenduz.

Jardunbide egoki horiek, gainera, komunikatzeko ahalmena dute, Nafarroako herritarrak garapen jasangarriari buruz sentsibilizatu eta hedatzeari dagokionez; izan ere, modu argi eta zehatzean erakusten dute Nafarroako Gobernua GJHak eta haien jomugak lortzeko lanean ari dela.

Jada 5.3. puntuan adierazi den bezala, GJH bakoitzari buruzko apartatuetan GJH bakoitzeko jardunbide egoki bat soilik aurkeztu da xehetasunez, baina horrek ez du esan nahi 35 GJHek kalitate balio bera dutenik 2030 Agendaren ezarpenean.

4. gomendioa:

Egokitzat jotzen da jardunbide egokiak GJHekin eta dagozkien helburuekin lotuta edo horiei jarraikiz hedatzea; horri esker, 2030 Agenda zehazkiago eta espezifikotasun handiagoz ezagutuko da, bai eta 2030ean helburuak lortzeko egiten ari diren jarduketa publikoei balioa eman ere.

6.2. GARAPEN JASANGARRIAREN EDUKIAK ETA ALDERDIAK

Pertsonak

Hainbat departamentuk egiten dituzten politikek eta ekintzek Nafarroan gizarte integrazioaren maila handitzera jotzen dute, eta gure lurraldeak beste autonomia erkidego batzuek baino pobrezia txikiagoa eta gizarte kohesio handiagoa dituela erakusten du horrek, nahiz eta, aitzitik, enpleguaren prekarietatea, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta halako fenomenoak kezkagarriak diren; osasunaren eta hezkuntzaren eremuetan, orobat, Nafarroak egoera abantailatsua du beste eremu batzuekin alderatuta. Oro har, gizarte adierazleen multzoan eragin negatiboa aurreikusten da, COVID-19aren eraginez.

Beste kezka bat lurralde desparekotasuna da, askotariko tasen arteko desberdintasunei lotuta dagoena: pobrezia, langabezia, biztanleria migratzailearen banaketa, zahartzea, zaintzarako baliabideak, despopulazioa, etab. Nafarroako erronka demografikoa, biztanleriaren tamaina txikiaz harago, esanguratsuena da garapen jasangarrirako eta lurralde-garapenerako estrategiak gauzatzeko printzipioekin lotuta dagoela (Nafarroako Lurralde Estrategia). Nafarroa oso demografia txikiko komunitatea da; horregatik, berezitasun demografikoak ditu biztanleriaren banaketa espazialari, despopulazioari eta kokagune motei dagokienez (polizentrismo printzipioa), baina biztanleriaren egiturak ondorioak ditu baliabideak egokiro kudeatzeko gaitasunean (kontserbazioa eta kudeaketa), jarduerak eta enplegua sortze aldera (lehiakortasuna), zahartzeaz eta immigrazioaz harago (gizarte kohesioa), elkarrekin harremanak izateko gaitasuna alde batera utzi gabe, taldeari koherentzia eta egonkortasuna emate aldera (irisgarritasuna) (gizarte kohesioa).

Arloek abiaraziriko politika eta ekintzei esker, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko adierazleek nazioarekin eta Europarekin duten erlazioa hobetu ahal izan da. Hala ere, barne eremu espazialetan adierazleek oraindik desparekotasun batzuk hautemateko aukera ematen dute.

5. gomendioa:

Egokitzat jotzen da alertari eustea gizarte eremuetan, pandemiaren ondorio negatiboak zuzendu daitezen epe laburrean. Lehentasuna eman behar zaio gizarte zerbitzuen, enplegu zerbitzuen, osasun sistemaren, hezkuntza sistemaren eta etxebizitza zerbitzuen arteko koordinazioari, eta, hala badagokio, arreta integratuari. Modu integralean heldu behar zaie despopulatzeari, biztanleriaren zahartzeari, baliabide eta zerbitzuen banaketari, genero desparekotasunari, pobreziari eta gizarte desparekotasunari, gure Foru Komunitatearen gizarte eta lurralde kohesioa sustatze aldera.

Oparotasuna

Nafarroako politika ekonomikoak hainbat gai jorratzen ditu, hala nola industria sustatzea eta azpiegiturez hornitzea, I+Ga sustatzea, emisioen eta hazkundearen arteko lotura ezabatzea, balio kateak eta industrializazio jasangarria. Gai horiei buruzko adierazleek agerian uzten dute aurrera egin dela. Gauza bera politika ekonomikoak jarduera sortzearen eta langabezia tasa murriztearen alorren duen eraginari dagokionez. Energia politikak eta ekoizpen eta kontsumo jasangarriarekin lotutako politikak hein handian jarraikitzen diete 2030 Agendan bilduriko helburuei, baina adierazleek ez dute bilakaera positiborik erakusten.

Pandemiak agerian utzi du desparekotasun faktoreetako bat eten digitala ari dela izaten; izan ere, kolektibo behartsuei, adinekoei eta landa-inguruneko jendeari eragiten die eten digitalak. Ikastetxeek –eta profesionalek– erantzun eraginkorra eman zuten ikasleei arreta emateko. Digitalizazioa garapen ekonomikoko faktorea ere bada, eta baliabide naturalen eta kulturalen, publikoen eta pribatuen kudeaketa errazten du. Digitalizazioaren arloko ekintza lurralde jasangarritasunerako eta kohesiorako baliabide bihurtzen da: garapen bideragarria, bidezkoa, onargarria eta bidezkoa errazten du.

6. gomendioa:

Egokitzat jotzen da alertari eustea politika ekonomikoan, pandemiaren ondorio negatiboak zuzendu daitezen epe laburrean. Politika horrek hazkunde inklusiboarekin dituen loturak indartu behar dira; hazkunde inklusibo horrek enplegua eta gizarteratzea kontuan hartu eta ingurumena errespetatu beharko ditu, zirkulartasuna bilduko duen ekonomia berde, karbonorik gabeko, adimendun eta integratzaile baterantz iragaitea. Era berean, ekonomia digitalerako eraldaketak kontuan hartu behar du nola gizarte esparruan hala lurralde arloan eten digitala existitzen dela eta arazo horri heldu egin behar zaiola.

Gure planeta

Nekazaritza ekoizpen jasangarria, hazien eta animalia espezieen aniztasun genetikoaren babesa, uraren zikloaren ingurumen alderdia, diseinatutako energia politika, natura eta kultura ondarearen babesa, eta *KliNa Klima Aldaketaren Bide Orria* delakoaren bidez diseinatutako ingurumen politika behar bezala ari dira gauzatzen 2030 Agendaren helburuei jarraikiz; hala eta guztiz ere, ikusten da adierazleek ez dutela bilakaera on hori islatzen, eta, neurri handi batean, hautatutako adierazleek ez dietela ongi jarraitzen jomugei. Gai horretan eskumena duen departamentuak urtero argitaratzen du «Nafarroako ingurumen profila», eta profil horrek arestian aipaturikoa berresten du, kontserbazioaren, ekosistemen eta natura ondarearen arloko adierazleen bilakaera egonkorra erakusten baitu.

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektua (KLINa-Klima Aldaketaren Bide Orria eta LIFE-IP NAdapta-CC Proiektua) prestatzeko eginiko ikerketek agerian uzten dute berotze globalak Nafarroako lurralde eta biogeografia baldintzetan dituen ondorioak, eta agerian uzten dute, gainera, klima-aldaketara egokitzeko neurriak lehenbailehen hartu behar direla jarduera sektore guztietan.

7. gomendioa:

Egokitzat jotzen da ingurumen politika lehenestea, Glasgown egin berri den COP26ren konpromisoei jarraikiz; zehazki, ahalegina hauetan ardaztu behar da: biodibertsitatea babestea eta leheneratzea, benetako politiken eta tokiko balizko erasanen arteko erlazioak eta BEGen isuriak murrizteko politiken aplikazio eraginkorra. Adierazleen sistema berrikusi behar da, jasangarritasunaren ingurumen alderdiarekin lotura handiagoa duten GJHen eta jomugen eragina hobeki neurtzeko.

Bakea eta Bizikidetza

Aurreko txostenari dagokionez, 16. GJHarekin lotutako ekintzek eta adierazleek hobekuntza txiki bat izan dute segurtasunaren arloan eta sistema judizialekin eta erakunde publikoekin lotutako erakundeetan. Ikuspegi globala kontuan hartuta, Nafarroaren egoera oso finkatuta dago erakunde egituraketari, botere banaketari, administrazio publikoei, ustelkeriaren kontrolari, giza eskubideen errespetuari eta abarri dagokienez. Hala ere, GJH horren orientabideei jarraituz, bizikidetzaren, memoria historikoaren, parte-hartzearen, gardentasunaren, errefuxiatuei laguntzearen, laguntza humanitarioaren eta abarren arloan jarduten ari da, eta horrek

indartu egiten du 2030 Agendak gobernu ekintzan dakarren konpromisoa GJH horri dagokionez.

8. gomendioa:

Egokitzat jotzen da bizikidetzarekin, bakearekin eta memoria demokratikoarekin lotutako politika publikoekin jarraitzea eta horiek indartzea. Gomendagarria da migratzaileak hartzeko eta integratzeko jarduerek bizikidetza politikekiko koherentziari eustea.

Itunak

2030 Agenda eraginkorra izan dadin, Nafarroan itunak finkatu behar dira gobernuaren, administrazio publikoen, zerbitzu publikoen, sektore pribatuaren, gizarte zibilaren eta herritar guztien artean. Itun horiek GJHen multzoaren gainean edo helburu edo interes partekatu baten gainean eratzen ahal ditugu, betiere 2030 Agendaren bost oinarriak kontuan izanik: Batetik, planeta, bakea, pertsonak eta oparotasuna. Eta azken oinarriari dagokionez (elkarlana), baliabideak mobilizatzea eskatzen du, baina batez ere, helburu komunak erdietsi nahi izatea, ezagutzak partekatzea, gaitasun teknikoa eta teknologia helburu horiek lortzeko eta, halaber, herrialde guztietara zabaltzeko, bereziki, garapen bidean daudenetara.

9. gomendioa:

Datozen urteetarako, komunikazio eta hedapen ekintzak gauzatu beharko lirateke, 2030 Agenda ezagutarazteko eta GGKEekin, enpresekin, unibertsitateekin, sindikatuekin, gizarte zibilarekin eta abarrekin itunak sustatzeko. Era berean, hainbat kolektiborekin tailerrak egin beharko lirateke, 2030 Agenda plangintzarako eta gobernu onerako baliabide gisa indartzeko.

10. gomendioa:

Udalerri eta lurralde bakoitzean Garapen Jasangarriko Helburuak udalerri eta lurralde esparrura eramateko, bultzatu eginen da toki administrazioek 2030 Agendaren aldeko konpromisoa har dezatela, 2030 Toki Agenda deritzenen bitartez, Agenda hori Tokiko Agenda 21en, Espainiako Hiri Agendaren eta Alkateen Itunen esperientzia eta edukia jasotzen dituen jasangarritasun agenda integratu, sinplifikatu eta konparagarriaren eredua izanik.

6.3. GOBERNANTZA ETA JARRAIPENA

BET hau egiteko erabilitako metodologia eta Departamentuarteko Batzordea abian jarri zenetik metatutako esperientzia aztertuta, beharrezkotzat jotzen da honako gomendio hauek kontuan hartzea:

11. gomendioa:

Egindako analisiek eta beharrezko datuen fluxuak egiaztatu egiten dute egokia dela txostenak bi urtean behin egitea. Hala ere, jarraipen prozesuak jarraitua izan behar du, baliabide batzuk taxutu behar dira plan, programa eta politiken teknikari eta kudeatzaileek 2030 Agendaren ezarpenari buruzko informazio kualitatibo eta kuantitatiboa eman dezaten.

12. gomendioa:

Era berean, planen eta programen jarraipena egiteko, baita politikena ere, jomugak lortzeko jarraipen adierazle batzuk Nafarroako errealitatera gehiago egokitzen ahal dira. Beste maila eta esparru espazial batzuekiko alderaketaren homogeneizazioa galtzeko arriskua gorabehera, hautatutako adierazle multzo batek zehazkiago adieraz lezake 2030 Agendaren aplikazioak Nafarroako Foru Komunitatean izaniko bilakaera, bai eta GJH guztiena ere. Nolanahi ere, joera OCECA adierazleak txertatzea izanen da.

13. gomendioa:

Estrategia eta plan berriak eratu direnez, politikek GJHei jarraikitzeari buruzko lehen txostenean aurreikusitako loturak eguneratu egin behar izan dira. Gainera, eratze prozesuan zenbait elementu hauteman dira, politikek GJHei jarraikitzeari buruzko eta jarraipena egiteko sisteman txertatzeko landu beharrekoak[7] .

[7]Laguntza Teknikoak aurkeztutako dokumentu teknikoan dago.

ERANSKINA

NAFARROAKO GOBERNUAREN PLAN ETA PROGRAMEN BARNEAN, 2030 AGENDAREKIN ZUZENEAN EDO ZEHARKA LOTUTA DAUDENAK

Politika publikoek 2030 Agendako helburuei jarraikitzeari dagokionez jarraipena egin zaien planak eta proiektuak, eta inkesta bidali zaienak.

Lurralde Kohesiorako Departamentua
- Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren Plan Zuzentzailea 2019-2030
- Toki Inbertsioetako Programa 2017-2019 - Luzapena
- Errepideen Plan Zuzendaria 2010-2018
- Errepide Sareko Istripu Ugariko Tarteetan eragiteko XVII. Plana 2016-2018
- Trenbide pasaguneak kentzeko Plana Trenbide pasaguneen egoera (2016ko iraila)
- Neguko Bidezaintza Plana 2017-2018
- Errepide bidezko Garraioaren Ikuskapen Plana 2016
- Hiriarteko garraio publikorako plana

Kultura eta Kirol Departamentua
- Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa (2017-2023)
- Kirola eta Emakumea Ekintza Plana

Eskubide Sozialetako Departamentua
- Familia, haurtzaroa eta nerabezaroa laguntzeko II. Plan Integrala
- Desgaitasuna artatzeko plan integrala
- Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2019-2023
- Nafarroako Lankidetzaren II. eta III. Plan Zuzentzailea
- Gizarteratze Plan Estrategikoa
- Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategia 2019-2022.
- Enplegu politika aktiboak

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua
- Nafarroako Energia Plana 2030 – NEP2030
- Mugikortasun Jasangarrirako Plan Zuzentzailea.
- Nafarroako Medikuntza Pertsonalizatuaren Estrategia Integrala
- Industria Plana 2020
- Lan Autonomoaren Plana
- Ekonomia Sozialaren Plana 2017-2020
- Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibak integratzeko Esparru Estrategikoa (2018-2022)
- II. Ekintzailetza Plana
- III. Nazioartekotze Plana
- Nafarroako Nazioarteko Plana 2021-2022
- Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (S3)
- 2017 - 2020 Merkataritza Plana
- Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzeko Foru Legearen Aurreproiektua
- Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikoko Alorrak arautzen dituen foru legearen aurreproiektua
- 2017 - 2025 Turismo Plana

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiaren helburuak
- Landa Garapeneko 2014-2020 programa
- Dibertsitate Biologikoa Kontserbatzeko eta haren Erabilera Jasangarrirako Nafarroako Estrategia (1999)
- Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko agenda (2030)
- Ibaiak lehengoratzeko planak

- Arrantza antolatzeko planak
- KBEak kudeatzeko planak (kontserbazio bereziko eremuak Natura 2000 Sarean)
- Nafarroako Baso Plana eta Baso Agenda
- Ehizari buruzko eskualdeetako planak
- Oihan ordenamendurako plan eta proiektuak
- Ehiza antolatzeko planak
- Tokiko Agenda 21 eta Hiri Agenda berria, 2030erako Tokiko Agendarantz
- Life-IP NAdapta-CC proiektua
- Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orria – HCCN
- Uholdeei Aurre Egiteko Larrialdi Planak
- Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Plana

Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Zerga sistema
- Aurrekontu-sistema
- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea
- Finantzaketa Jasangarrirako Esparrua
- Estatistika Sistema (NAstat)

Hezkuntza Departamentua
- Hezkidetza Plana
- Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa
  - Europako CRISS proiektua
  - IkasNOVA
  - Stem planeta
  - Etorkizuneko ikasgela
  - 21 Kodea eta Ikasi 21 Kodea
- Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa
- Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua
- Nafarroako Lurralde Estrategia – NLE (2005)
- Lurralde Antolamendurako Planak – LAP (2011)
- Udaletako Hirigintza Planak
- Etxebizitza Plana 2018-2028
- Nafarroa Ezagutu Sarea
- Lurralde Antolamendurako Planak – LAP (2011)
- Udaletako Hirigintza Planak
- Nafarroako Lurralde Estrategia – NLE (2005)
- Nafarroa Ezagutu Sarea
- Etxebizitza Plana 2018-2028

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua
- Justizia Zuzendaritza Nagusiaren helburuak eta jarduketak
- Migratzaileei harrera integrala egiteko plana
- Kulturen arteko Bizikidetzaren Estrategia
- Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Plana

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua
- Zuzendaritza Nagusiaren helburuak - Nafarroako Berdintasunerako Institutua
- Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiaren helburuak.
- III. Gazteria Plana
- Emakumeen parte hartze sozial eta politikorako estrategia 2017-2019
- Departamentuetako berdintasun atalen urteko programa emakume eta gizonen berdintasunaren alde NFKAan
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Foru Legea garatzeko bidean dagoen plana.
- Ekintza plana, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko.
- LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea garatzeko Ekintza Plana
- Sexu esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatxekin koordinatzeko eta jarduteko protokoloa
- Nafarroako Foru Komunitateko Uholde Arriskuen aurreko Larrialdietarako Plan Berezia (2011)

- Nafarroako Larrialdietarako Lurralde Plana (2008)
- Baso suteengatiko Larrialdietarako Babes Zibileko Plana (1999)
- Larrialdietarako plan espezifikoak
- Nafarroako Suhiltzaileen 2020-2023 Plan Estrategikoa.
- Foruzaingoaren Plan Estrategikoa (2020-2023)
- Gobernu Irekiaren I. Plana (2021-2023)
- Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu 2020-2023 Plana

Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
- 2021-2024 Kanpo Ekintzaren Plana
- Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa
- Bake eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Programa
- «Bake eta Bizikidetzaren aldeko Toki Erakundeak» Programa
- Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027)

Osasun Departamentua
- Nafarroako Medikuntza Pertsonalizatuaren Estrategia Integrala
- Nafarroako Zahartze Aktiboaren eta Osasungarriaren Estrategia 2017-2022
- 2017-2020 aldirako Nafarroako Lan Osasuneko Ekintza Plana
- Droga Mendekotasunari Aurre Egiteko Foru Plana
- Tabako Kontsumoaren Prebentzioa
- Osasunaren Sustapena
- Osasun Publikoaren Plana 2016-2020.
- Nafarroako Osasun Plana 2014-2020.
- Nafarroako Osasun Zerbitzua–Osasunbidearen Plan Estrategikoa

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua
- Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2017-2020
- Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema – SITNAren 2020-2023 eperako Plan Estrategikoa
- Lurraldeko Azpiegitura Planak
- 2016-2021 Nafarroako Banda Zabalaren Plan Zuzentzailea
- Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiaren helburuak.